



**KAPUTXINO ANAIA TXIKIEN
KONSTITUZIOAK**

**SAN FRANTZISKO AITA SERAFIKOAREN
ERREGLA TA TESTAMENTUA**

Kaputxinoen Probintzial Kuria

Burlada, 1992

**KAPUTXINO ANAIA TXIKIEN
KONSTITUZIOAK**

SAN FRANTZISKO AITA SERAFIKOAREN
ERREGLA TA TESTAMENTUA

Kaputxinoen Probintzial Kuria

Burlada, 1992

**SAN FRANTZISKO AITA SERAFIKOAREN
ERREGLA TA TESTAMENTUA**

AITA SANTU HONORIO III.AREN BULDA ANAIA TXIKIEN ERREGLARI BURUZ

Honorio Gotzain eta Jainkoaren zerbitzarien zerbitzariak. Seme maite ditudan Anai Frantzisko eta anaia Txikien Ordenako beste anaiei, osasuna eta apostolu bedeinkapena. Ohitura du apostolu Aulki honek, eske datozkionen nahi jainkotiarrei amore ematea eta asmo egokiei onginahiz laguntzea. Horregatik, bada, Jaunarengan seme kutun zaituztedanoi, zuen eskari jaierratsuak adituz, idazki honen barnean datorren zuen Ordenako Erregla -oroitzapen oneko Inozentzio gure aurreko Aita Santuak onetsia-, apostolu agintez nahi dugu berretsi, eta idazki honen babesaz baieztu. Honela da Erregla hori:

I. ATALBURUA

JAUNAREN IZENEAN HASIERA EMATEN ZAIO ANAIA TXIKIEN ERREGLA ETA BIZIBIDEARI

Anaia Txikien Erregla eta bizibidea honela da; alegia: Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelio santua gordetzea, obedientzian, berenik gabe eta kastitatean biziz. Anai Frantziskok obedientzia eta begirunea hitz-ematen dizkio Honorio Aita santu jaunari, eta legez aukeratutako haren ondorengoei eta Erromako Elizari. Eta beste anaiaik beude beharturik anai Frantziskori eta haren ondorengoei obeditzera.

II. ATALBURUA

BIZIBIDE HAU HARTU NAHI DUTENEI BURUZ, ETA NOLA IZAN BEHAR DUTEN HARTUAK

Norbaitzuek bizibide hau hartu nahi balute eta gure anaiengana baletoz, bidal bitzate beren Ministro probintzialengana, eta horiek bakarrik, eta ez beste inork, izan bezate anaiak hartzeko eskubidea. Ministroek, berriz, arretaz azter bitzate horiek fede katolikuari eta Elizaren sakramentuei buruz. Eta gauza guzti horiek sinesten baldin badituzte, eta zintzoki aitortu eta azkeneraino gorde nahi baldin badituzte; eta emazterik ez badute, edo izanez gero, haiek ere komenturen batean sartuak baldin badira, edo baimena eman baldin badiete elizbarrutiko Gotzainaren oneritziatz, garbitasun botua egin ondoren, eta emazteak susmo txarrik ez sortzeko adinekoak badira, orduan Ebanjelio santuko hitz hura esan biezaiete: dihoazela, alegia, eta beren ondasun denak saldu eta behartsuei banatzeko ahaleginak egin ditzatela. Baina hori egiterik ez balute, aski dute borondate ona. Eta kontu izan bezate anaiek eta haien Ministroek, ez daitezen horien gauza tenporalez zaletu, askatasun osoz egin dezaten beren gauzekin, Jainkoak aditzera ematen dien bezala. Aholkua eskatuko balute, ordea, Ministroek izan bezate aukera Jainkoaren beldur diren norbaitzuringana bidaltzeko, eta horien aholkuaren arabera bana bitzate ondasunok behartsuen artean. Gero eman biezazkiete beraiei probantza-denborarako jantziak: hau da, bi tunika txano gabekoak, eta gerriko soka, eta galtzak, eta sokarainoko kaparoiak, inoiz Ministroei berei Jainkoaren arabera beste zerbait iruditzen ez bazaie behintzat.

Probantza-urtea bukatutakoan, obediencia hartuak izan bitez, bizibide eta Erregla hau beti gordetzeko hitza emanik. Eta Ordena honetatik irtetzea inondik eta inora ez zaie zilegi izango, Aita santu jaunak agindu bezala, Ebanjelio santuak honela bait dio: *Eskua goldeari ezarri eta atzera begiratzen duena, ez da gai Jainkoaren erreinurako*. Eta behin obediencia hitz-emanez gero, eduki bezate tunika bat txano eta guzti eta, nahi dutenek, beste bat txano gabekoa. Eta premiak behartzen dituenek erabil ditzakete oinetakoak. Eta anaia guztiak erropa zirtzilez jantzi bitez, eta zakukiz eta beste oihalpuskaz adabatzeko aukera izan bezate Jainkoaren bedeinkapenez; horiei diet oharterazten eta arren eskatzen, ez ditzatela mesprezia eta gaizki juzga, jantzi leun eta margodunez jantzirik, jan-edari finak hartzen ikusten dituztenak; alderantziz, juzga eta mesprezia beza bakoitzak bere burua.

III. ATALBURUA

OFIZIO-OTOITZAZ ETA BARAUAZ, ETA ANAIEK NOLA IBILI BEHAR DUTEN MUNDUAN ZEHAR

Anaia klerikoek erreza bezate ofizio-otoitza Erromako Eliza santuaren gisa, salmategia izan ezik, eta horretarako eduki ditzakete brebiarioak. Anaia laikoek, berriz, esan bitzate hogeitalau *Gure Aita* maitinetarako, gorespenetarako bost, eta prima, tertzia, sexta eta nona, horietako bakoitzerako, zazpi, bezperetarako hamabi, konpletetarako zazpi, eta hildakoen alde egin bezate otoitz.

Eta barau egin bezate Santu Guztien jaiari hasi eta Jaunaren Jaiotz egunera bitartean. Jaunaren Agerkundera hasi eta hurrengo berrogei egunetako garizuma santua, Jaunak bere barau santuaz sagaratu zuena, beren borondatez gordetzen dutenak, Jaunak bedeinka ditzala, eta gorde nahi ez dutenak ez bitez behartuak izan; Jaunaren Biztuerara arteko beste garizuma hartan, ordea, barau egin bezate. Eta Gainerantzeko garaietan ez bezate barau egiteko obligaziorik eduki, ostiralez izan ezik. Baina ageriko behar-aldian, ez bitez anaiak gorputzeko baraua egitera behartuak izan.

Jesukristo Jaunagan aholku ematen diet neure anaiei, oharterazten eta eskatzen, munduan barrena dihoazenean, ez daitezela hitzez eztabaidan eta sesioan ari, eta ez dezatela inor juzga, baizik izan daitezela bihotz oneko, baketsu eta neurritsuak, otzan eta apalak, guztiei egoki, behar den bezala, hitzeginez. Eta ez bitez zaldiz ibili, premia larria, edo gaixo egoteak horretera behartzen ez baditu. Eta edozein etxetan sartzen direlarik, aurrena hauxe esan bezate: *Bakea etxe honi*. Eta Ebanjelio santuak dioenez, zilegi bekie aurrean jartzen dizkieten janari guztietatik jatea.

IV. ATALBURUA

ANAIEK EZ DEZATELA DIRURIK HAR

Sendo agintzen diet anaia guztiei inolaz ere ez dezatela diru edo txanponik har, ez berenez eta ez beste inoren bitartez; gaixoen premietarako, ordea, eta beste anaiak jazteko, ministroek bakarrik eta kustodioek, adiskide espiritualen bidez, har bezate kontu haundia, tokien, urte-

sasoién eta lurraldeetako hotzaren arabera, beharrak eskatzen duela ikusten duten neurrian; beti honako hau zutik utziz: ez dezatela, esan bezala, diru edo txanponik har.

V. ATALBURUA

LAN EGITEKO ERAZ

Jaunak emanik, lan egiteko grazia duten anaiek, zintzo eta debozioz lan egin bezate, arimaren galgarri den alferkeria uxatuz, otoitz eta debozio santuaren espiritua ez itotzeko eran; izan ere, hori behar dute zerbitzatu beste gauza guztiek. Eta lan-saritik, diru edo txanponik ez, baina gorputzari beharrezko zaizkionak jaso ditzakete, bai berentzat eta bai beren anaientzat, eta hori apalki, Jainkoaren zerbitzariei eta pobretasun guztiz santuaren jarraitzailei dagokienez.

VI. ATALBURUA

ANAIK EZ DAITEZELA EZEREN JABE EGIN, ETA LIMOSNA ESKATZEAZ, ETA GAIXORIK DAUDEN ANAIEZ

Anaiek ez bezate ezer berentzat har, ez etxe, ez toki, ez beste gauzarik. Eta mundu honetan erromes eta atzerritar bezala, Jauna pobretasun eta apaltasunean zerbitzatzuz, bihoaz konfidantzaz limosna eske; eta ez dute lotsatu behar, Jauna guregatik behartsu egin bait zen mundu honetan. Hau da goi-goiko pobretasunaren bikaintasuna, zuek, ene anaia txit laztanok, zeruetako erreinuaren oinordeko eta errege bihurtu zaituztena, hemengo ondasunetan behartsu, baina bertuetan aberats egin zaituztena. Hau izan bedi zuen senipartea, bizidunen herrira daramana; eta beroni, anaia maite-maiteok, oso-osorik atxikirik, ez dezazuela, Jesukristo gure Jaunaren izenean, sekula beste ezer zerupean eduki nahi.

Eta anaia, nonahi aurkitzen direlarik, etxeko bezala ager bitez elkarren artean, eta konfidantzaz ager biezaio bata besteari bere beharra; izan ere, amak bere haragizko semea maitatzen eta hazten baldin badu, zenbat arreta haundiagoz ez ote du maite eta hazi beharko bakoitzak bere anaia espirituala? Eta horietako bat gaixo baledi, beste anaiek behar dute zerbitzatu, haiek berei egitea nahiko luketen bezalaxe.

VII. ATALBURUA

BEKATU EGITEN DUTEN ANAIEI EZARRI BEHAR ZAIEN PENITENTZIAZ

Anaietako batzuek, etsaiak zirikatirik, bekatu astuna egin balezate - anaien artean, Ministro probintzialengana bakarrik jo behar dela erabakita dagoen bekatu horietakoa-, beude beharturik anaiak horiek haiengana joatera lehen-bait-lehen, luzapenik gabe. Eta Ministroek berek, apaizak direnean, errukiz penitentzia ezar diezaiete; baina, apaizak ez direnean, ezar erazi diezaiete Ordenako beste apaiz batzuren bidez, Jainkoaren aurrean ongien iruditzen zaien eran; eta kontu izan bezate ez daitezen inoren bekatuagatik haserretu edo beren onetik atera, haserretzeak eta alsaldatzeak karitatea galerazten bait du, bai norberagan eta bai besteengan.

VIII. ATALBURUA

ANAIARTE HONETAKO MINISTRO JENERALA HAUTATZEAZ, ETA PENTEKOSTEKO KAPITULUAZ

Anaiak guztiak beude behartuak Ordena honetako anaiak bat anaiarte osoaren ministro jeneral eta zerbitzarizat hartzera, eta beude berari obeditzera estu behartuak. Hura hiltzen denean, ministro probintzialek eta kustodioek aukera bezate ondorengoa Pentekosteko kapituluan. Ministro probintzial guztiek bildu behar dute kapitulu horretera, ministro jeneralak erabakitako tokian; eta hori hiru urtetik hiru urtera, nahiz epe luzeagoz edo laburragoz, ministro hark berak agindu bezalaxe. Eta inoiz irudituko balitzaie ministro probintzial eta kustodio gehienei, ministro hori ez dela gauza anaien zerbitzu eta onerako, hautespena egitea dagokien anaiak beude behartuak beste anaiak bat ministro bezala aukeratzera Jaunaren izenean. Eta Pentekosteko kapitulu ondoren, ministro eta kustodioetako bakoitzak, nahi izanez gero eta egoki ikusten baldin badu, urte berean bil ditzake behin anaiak kapitulura bere kustumian.

IX. ATALBURUA

PREDIKARIEZ

Anaiak ez bezate predika inongo gotzainen elizbarrutian, hark galerazi egin baldin badie; eta ez bedi anaiarik inolaz ere ausartu herriari

predikatzera, baldin eta Ordena honetako ministro jeneralak aztertu eta onetsi ez badu, eta beronek predikatzeko eginkizuna eman ez badio. Oharterazten eta eskatzen diet gainera anaiei, egiten duten predikuan hitz neurtuak eta garbiak esan ditzatela, herriaren probetxu eta eraikuntzarako, makurkeriak eta bertuteak hotseginez, zigorra eta aintza, eta guzti hori prediku laburrez, hitz laburra egin bait zuen Jaunak lur gainean.

X. ATALBURUA

ANAIK OHARTERAZI ETA ZENTZARAZTEAZ

Beste anaien ministro eta zerbitzari diren anaiek, bisita eta oharterazi bitzate beren anaiak, umilki eta maitasunez zentzarazi bitzate, eta ez biezaiete agindu haien arimaren eta gure Erreglaren kontrakoa den ezer. Menpeko diren anaiek, berriz, gogoan izan bezate Jainkoagatik uko egin ziotela beren nahari. Beraz, sendo agintzen diet beren ministroei obeditzeko, Jaunari gordetzea hitz-eman zioten gauza guztietan, baldin hitz-emandakoak beren arimaren eta gure Erreglaren kontrakoa ez badira. Eta, nonahi daudela ere, anaiak ohartu eta konturatuko balira ezin dutela Erregla espiritualki gorde, beren ministroengana jotzeko obligazioa eta eskubidea edukiko dute. Eta ministroek egin biezaiete harrera on eta gozoa, eta halako adiskidetasuna izan bezate haientzat, non ondorioz nagusiek beren morroiei bezala haiek esan eta egin ahal diezaieten; halaxe izan behar bait du, ministroak anai guztien morroi izan daitezela.

Oharterazten eta eskatzen diet, gainera, Jesukristo Jaunagan, anaiak gorde daitezela inolako harrokeriatik, haundiuste, bekaizkeria, dirugose, mundu honetako gauzen kezka eta gehiegizko arduetatik, gaizki esaka eta marmarrean aritzetik; eta eskolarik ez dutenek ez bezate eskola ikastearen kezkarik izan, baizik kontu egin bezate, beste edozeren gaineratik, Jaunaren espiritua eta haren egintza santua edukitzea behar dutela irrikatu. Hari beti bihotz garbiz otoitz egitea, umiltasuna iristea, eta erasoaldi eta gaixoardian pazientzia izatea, eta guri eraso, errieta eta salaketa egiten digutenak maitatzea, Jaunak esaten bait du: *Maita itzazue zeuen etsaiak, eta egin otoitz erasotzen eta gezurretan salatzen zaituztenentzat. Zorionekoak zuzenagatik erasotuak, hauena bait da zeruetako erreinua. Azkeneraino irauten duena salbatuko da.*

XI. ATALBURUA

ANAIK EZ DAITEZELA MOJEN MONASTEGIETAN SARTU

Sendo agintzen diet anaia guztiei, ez dezatela susmo txarreko tratu eta harremanik izan emakumeekin, eta ez daitezela mojen monastegietan sartu, horretarako apostolu Aulkiaren baimen berezia daukatenak izan ezik. Eta ez bitez gizon nahiz emakumeen aitabitxi izan, hori dela-eta anaien artean edo anaiengandik zer-esana sor ez dadin.

XII. ATALBURUA

MAIRU-HERRIRA ETA BESTE FEDEGABEENGANA DIHOAZENEI BURUZ

Jainkoak argiturik, mairu herrira nahiz beste fedegabeengana joan nahi duten anaiek, eska biezaiete horretarako baimena beren ministro probintzialesi; baina ministroek ez biezaiote inori joateko baimenik eman, bidaltzeko gai direla ikusten dituzten haiei izan ezik.

Gainera, obedienciaz gatik agintzen diet ministroei, eska diezaiotela Aita santu jaunari Erromako Eliza santuaren kardenal bat, anaiarte honen gobernari, zaindari eta zuzentzaile izango dena, horrela, beti Eliza santu beronen oinetan esaneko eta menpeko egonez, eta fede katolikoan sendo iraunez, zinez hitzeman genituen pobretasuna, umiltasuna eta Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelio santua gorde ditzagun.

Beraz, inori ez bekio zilegi gure onespeneren orri hau urratzea edo berari ausarkeriaz kontra egitea. Hala ere, bat edoren bat horretera ausart baledi, jakin beza halakoak Jainko ahalguztidunaren eta haren apostolu Pedro eta Paulo dohatsuen haserrea izango duela bere gain.

Letranen emana, Azaroaren hogeitabederatzian, gure Aita santutzaren zortzigarren urtean.

SAN FRANTZISKOREN TESTAMENTUA

Jaunak era honetan eman zidan neri, anai Frantziskori, penitentzia egiten hastea: bekatutan nengoenean, oso samina egiten zitzaidan legenardunak ikustea. Eta Jaunak berak eraman ninduen haien artera eta nik errukia egin nien. Eta haiengandik aldegiterrakoan, lehen samina iruditzen zitzaidana, gozo bihurtu zitzaidan arima eta gorputzarentzat; eta pixka bat geroago, mundutik atera nintzen.

Halako fedea eman zidan Jaunak elizentzat, non honela otoitz egin eta esaten nuen xumeki: *Adoratzen zaitugu, Jesukristo Jauna, baita mundu guztian diren zeure eliza denetan ere, eta bedeinkatzen zaitugu, zeure gurutze santuaren bidez mundua erosi zenuelako.*

Horren ondoren, Erromako Eliza santuaren arabera bizi diren apaizentzat, hain fede haundia eman zidan eta ematen dit Jaunak, daukaten apaizgoagatik, ze, erasoaldia baletorkit, beroriengana jo nahi bait dut. Eta Salomonek eduki zuen adina jakituria baneuka, eta mundu honetako apaiz pobretxoak, bizi diren parroketan aurkituko banitu, haien borondatearen kontra ez dut predikatu nahi. Eta apaiz horiek eta beste denak nahi ditut errespetatu, maitatu eta ohoratu, nere nagusiak bezala. Eta ez dut horiengan bekatuak erreparatu nahi, Jainkoaren Semea ikusten bait dut beroriengan eta nere nagusiak bait dira. Eta hori dena honengatik egiten dut: mundu honetan, Jainkoaren Seme gorenaren gorputzezko beste ezer ikusten ez dudalako, apaiz horiek berek hartu eta berek bakarrik besteei banatzen dizkieten Haren gorputz txit santua eta odol txit santua izan ezik. Eta nahi dut, misterio santu hauek gauza guztien gainetik ohoratuak eta beneratuak izatea, eta toki preziatuetan jarriak.

Eta Jaunaren izen guztiz santuak eta Haren hitz idatziak, inon egokiak ez diren tokietan aurki banitza, nahi ditut bildu, eta erregutzen dut bildu eta toki egokietan jar daitezela.

Eta teologo denak, eta Jainkoaren hitz guztiz santuak banatzen dizkigutenak, ohoratu eta beneratu egin behar ditugu, espiritua eta bizia banatzen digutenak bezala.

Eta Jaunak anaiak eman zizkidanean, inork ere ez zidan erakusten zer egin behar nuen, baizik Goi-goikoak berak adierazi zidan, Ebanjelio santuaren moldean behar nuela bizi. Eta nik hitz labur eta xaloetan idazterazi nuen, eta Aita santu jaunak ontzat eman zidan.

Eta bizibide hau hartzera zetozenak, izan zezaketen guztia, behartsuei banatzen zieten; eta pozik bizi ziren tunika bakarraz, barme eta kanpo adabatua, soka eta galtzekin. Eta ez genuen beste ezer eduki nahi.

Guk, klerikook, Ofizioa esaten genuen, beste klerikoez bezalaxe; laikoek, berriz, Gure Aita; eta oso gustora egoten ginen elizetan. Eta ez jakinak ginen, eta guztien menpeko.

Eta nik neure eskuez lan egiten nuen, eta egin nahi dut; eta zinez nahi dut beste anaia guztiek ere lan egoki bat egin dezaten. Eta ez dakitenek ikas bezate, ez lan-saria jasotzeko gutuziatatik, ejenplu ona eman eta alferkeria uxatzeko baizik. Eta lan-saria ematen ez digutenean, jo dezagun Jaunaren mahaira, atez-ate limosna eskatuz. Agur hau adierazi zidan Jaunak, esateko: *Jaunak bakea dizula.*

Begira bezate anaiek ez dezaten inolaz ere har, ez elizarik, ez bizileku pobrerik, ez berentzat eraikitzen den besterik ezer, baldin eta Erreglan hitz-eman genuen pobretasun santuari dagozkion bezalakoak ez badira; eta bizi bitez horietan beti atzerritar eta erromes bezala.

Obedientziatik sendo agintzen diet anaia guztiei, nonahi egonik ere, ez daitezela ausartu Erromako kurian inolako idazkirik eskatzera, ez berenez, ez beste inoren bitartez, ez eliza baten alde, ez beste toki baten alde, ez predikazioaren aitzakiz, ez beren gorputzen kontrako erasoaldiak; oster, tokiren batean hartzen ez badituzte, ihes egin bezate beste lurralde batera, han Jainkoaren bedeinkapenaz penitentzia egitera.

Eta gogo guztiaz obeditu nahi diot anaiarte honetako ministro jeneralari eta hark eman nahiko didan goardianoari; eta hala nahi dut egon beraren eskuetan katibu, non ez dezadala haren obedientzia eta borondatearen kontra inora joaterik eta ezer egiterik izan, bera bait da nere nagusia.

Eta arlotea eta gaixoa naizen arren, hala ere beti eduki nahi dut kleriko bat ofizioa erreza diezadan Erreglan esaten den bezala. Eta beste anaia

guztiak ere beude beharturik beren goardianoei era honetan obeditzera eta ofizio-otoitza Erreglaren arabera egitera.

Eta aurkituko balira ofizioa Erreglaren arabera erreztatzen ez duten eta beste era batera aldatu nahi luketen norbaitzuk, edo katoliku ez direnak, anaia guztiak, dauden tokian daudela, beude behartuak obedienciaz, halakoren bat nonahi aurkitzen dutelarik, toki hartatik hurbilen dagoen kustodioarengana eramatera. Eta kustodioa bego zinez behartua, obedienciaz, halakoa estu zaintzera, gizon preso gau eta egun zaintzen den bezalaxe, bere eskuetatik ihes ez egiteko moduan, bere ministroaren eskuetan utzi dezan arte. Eta ministroa bego zinez behartua, obedienciaz, halakoa, gizon gartzelatua bezala gau eta egun zainduko duten anaien bidez, Ostiako jaunaren aurrera aurkeztera, hura bait da anaiaite honen jaun, zaintzaile eta zuzentzailea.

Eta anaiek ez bezate esan: hau beste Erregla bat da; hau oroigarri bat bait da, aholku eta eskabide bat, eta nere testamentua, neuk, anai Frantzisko txiki honek, zuei, neure anaia bedeinkatuoi, egiten dizuedana, horrela katoliku-eran hobeto gorde dezagun Jaunari hitz-eman genion Erregla.

Eta ministro jenerala eta beste ministro guztiak eta kustodioak beude beharturik, obedienciaz, hitz hauei ezer ez erantsi eta ezer ez kentzera. Eta idazki hau eduki bezate beti berekin Erreglaren ondoan. Eta egiten dituzten kapitulu-batzarre guztietan, Erregla irakurtzen dutenean, irakur bitzate hitz hauek ere.

Eta neure anaia guztiei, nahiz kleriko nahiz laikoei, sendo agintzen diet, obedienciaz, ez dezatela erantsi oharrik ez Erreglan eta ez hitz hauetan ere, esanez: Honela ulertu behar dira; baizik eta, Jaunak neri, Erregla eta hitz hauek xaloki eta garbi esatea eta idaztea eman zidan bezala, era berean uler ditzazuela zuek ere xaloki eta oharrik erantsi gabe, eta azkeneraino bete ditzazuela egintza santuak eginez.

Eta gauza hauek gordetzen dituen oro, gainezka bete bedi zeruan goigoiko Aitaren bedeinkapenaz, eta bete bedi lurrean Haren Seme maitearen bedeinkapenaz, Espiritu txit santu Pozemailearekin batean, eta zeruko bertute guztiekin, eta santu guztiekin. Eta nik, anai Frantziskok, txiki eta zerbitzaria nauzuen honek, ahal dudan neurrian, bedeinkapen santu hau barne eta kanpo sendotzen dizuet.

SAN FRANTZISKOREN AHOLKUA

*Oi ene anaia maite-maiteok eta seme betirako bedeinkatuok!, entzun
iezadazue, entzun zeuen Aitaren ahotsa:*

Gauza haundiak hitz-eman ditugu, haundiagoak hitz-eman zaizkigu.

Gorde ditzagun hauek, irrikatu haiek.

Laburra da atsegina, betirakoa zigorra.

*Motza nekaldia, aintza azken gabea. Asko dira deituak, gutxi hautatuak;
denak izango dira sarituak. Amen.*

NOLA EGIN PROFESA

Nik, I.I. anaiak, grazia hau Jaungoikoak eman didan ezkerro Beraren aintzarako, Kristoren Ebanjelioa hobekiako bizizeko asmo sendoakin, hemen anaien aurrean, zure eskuetan, Aita I.I. (hiru urtez edo x urtez...; nere bizibide guztian) menpean, neurerik gabe eta garbitasunean bizitzea zin-egiten dut, Aita Santu Honoriok onetsi zuen Erreklaren eta Kaputxino Anaia Txikien Konstituzioen arabera. Beraz, bihotz-bihotzez lotzen natsaio Anaiarte honi Jainkoaren eta Elizaren zerbitzurako Espiritu Santuaren eraginpean, Andre Maria Birjina garbiaren, gure Aita San Frantziskoren eta Santu guztien bitartekotzaz eta anaien laguntzaz.

**KAPUTXINO ANAIA TXIKIEN
KONSTITUZIOAK**

DEKRETUA

Kaputxino Anaia Txikien Kapitulo jeneralak, 1982.urtean, Batikano Bigarren Kontzilioaren nahien eta Zuzenbide Kanonikoaren (cfr.can.587²) aginduen arabera aztertu zituen arretaz Konstituzioak. Eta Ministro jeneralak, Kapitulua izenean, Aulki Santuari aurkeztu zizkion onetsi zitzaizkien.

Kaputxino Anaia Txikien Ordenako kideek bizi nahi dute Ebanjelio santuaren arabera, bai ere Fundatzaile san Frantziskoren espiritu eta goi asmoen eran, eta Ordenak duen ondare goresgarria osatzen duten tradizio ezin hobekak gordez.

Beraz, otoitz espirituan finkaturik batipat, bizi nahi dute ebanjeliko anaiartean. Frantziskotar txikiera spirituak dituen anai-loturen bidez guztiak elkarturik, adierazi nahi die erlijiozko bizibidea, batez ere Jaunaren hitza aldarrikatuz, herri-sermoigintza tamisiolari ebanjelizatzearen bidez, pobre ta erien arduraz, eta adiskidetzeko sakramentua gogoan hartu eta sustatuz.

Erregla santu eta Konstituzioen arauen laguntzaz, gogora bezate Kaputxinoek, Jainkoarekin izan behar duten barneko batasunak sortu behar duela beren apostolu-ekintza, egin behar dutela Elizaren izenean eta bere aginduz, eta harekin elkarturik, alde guztietan santutasun fruitu ugariak eman ditzan, Aita Serafikoari jarraituz.

Erlijioso eta Instituto Sekularrentzako Kongregazioak, aholku emaileen oharrez eta Kongresoren aburu oneskoarekin, onetsi eta berretsi egiten

ditu Kaputxino Anaia Txikien Ordenako Konstituzioak, Kongreso berak jakin erazi dituen aldaketakin, Kongregazioaren artxiboan, latinez idatzita, gorderik dagoen alearen arabera.

Bete bedi zuzenbidez bete beharreko guztia. Ezer kontra ez delarik.

Erroman emana, 1986. abenduaren 25an, Jaunaren Jaiokundean.

FR. J.M. KARD. HAMER, O.P.

AINTZIN SOLAS

Asis-ko Frantzisko Anaiak, goiargiturik eta Kristoganako maitasun gartsuz suturik, beretzat eta bere anaientzat ebanjelioaren araberako anaiartean bizitzea aukeratu zuen, berenik gabe eta txikieran, eta ezarri zuen, labur eta garbi, bere Erreglan. Inozenzio III garrenak hitzez onartu zuen delako Erregla eta Anaia txikien bizimoldea, eta Honorio III garrenak egiaztatu zuen "*Solet annuere*" buldaren bidez 1223. azaroaren 29an. Hil aurretixoan, san Frantziskok eman zien orduko eta geroagoko anaiei bere Testamentua, oroigarri, oharpen eta aholku gisa, "Jainkoari hitz eman genion Erregla katoliko-eran hobeto gorde dezagun".

Urteetan zehar, bere ikasleek, garaien zenbait eskakizunei egokitu behar zizkieten beren biziera, egintzak eta legeak; hau egin zuten Kapitulu nagusiek Konstituzioen bidez.

Aita Santu Klemente VII garrenak onartu zuen 1528. uztailaren 3an Kaputxino Anaia Txikien Ordena, "*Religionis zelus*" Buldakin. Honek biziro nahi zuen zaindu hasieratik zintzo, xalo eta garbi san Frantzisko Fundatzailearen ondare espirituala Erreglaren eta Testamentuaren arabera, Elizaren erakutsiei jarraituz, baita ere eman horrela ondorengo belaunaldiei.

Araubide hau zintzoki eraberritzearen, 1536. Ordenaren Kapituluak argitaratu zituen Konstituzio batzuk, baina geroago beharreko gertatu zen arauak aldatzea zenbait aldiz, garai berrietara eta, batez ere, Elizaren legeetara moldatzeko. Adibidez, Trento-ko Kontzilioaren ondoan, bai ere eliz-legedia berritzean eta orobat Erroma-ko Eliz-Araudia agertzean gizaldi honen hasieran. Hala ere, gure Konstituzioek gorde zuten beren espiritualitate berezia ta frantziskotar oinarrizko joera.

Igarren Batikano Batzarra garrantzi haundiko beste gertakizuna izan da erlijiosoen bizitza eta legedia berritze arazo honetan, batipat "*Lumen gentium*" eta "*Perfectae caritatis*" erabakien bidez.

Paulo VI garrenak, "*Ecclesiae Sanctae*" deritzan "Motu proprio"-ren bidez, 1966. abuztuaren 6an, agindu zien anaiarte guztiari aztertzeko heuren legedia. Aztertze hau egiteko eritzi garrantzi haundikoenak hauek dira: II Batikano Batzarraren agirien eta ondoren Elizak emandakoen

arabera, kristau bizieraren iturburuetara etengabe itzultzea eta Institutoen lehenengo eraginera bihurtzea, garaien ezaugarriei uko egin gabe, ezta espirituaren eta legearen batasunari, horrela Konstituzioak ez daitezen izan idazki legezto edo aholku emaile soilik.

Gure Kapitulua Nagusiak aztertu zituen 1968an zehazki Konstituzioak, eta gero argitaratu ere bai "saio-antzo". Eta 1970 eta 1974an berriz ukituak izan ziren gure Kapituluetan.

1982ko Kapitulua Nagusian, "*Ecclesiae Sanctae*" II,6 eta 8 zenbakietan eta Erroma-ko Erlijioso eta Laiko Institutoen Kongregazio Agurgarriak 1979ko azaroaren 15an agertu zuen gogoaren arabera, eman zaie Konstituzioei azken ukia, Erroma-ko Aulki Santuari bidaltzeko eran, erabateko onespena eman dezan.

Kapitulua Nagusi berak, Eliz-Araudi berriak zekarkena ta Erlijioso eta Laikoen Kongregazio Agurgarriak 1981ko abuztuaren 4an adierazi zigun asmoa betez, batzorde bat aukeratu zen idazkera azter, antola eta Eliz-Araudi berriari egokitu ziezaion.

Definitorio Jeneralak, Kapitulua Nagusiaren erabakia bete nahirik, eta Erroma-ko Aulki Santuak 1982ko azaroaren 12an idazkiz eskubide emanik, zehazki mia ondoan, erabateko Konstituzioak argitaratu zituen. Hauek legez indar hartu zuten 1983ko martxoaren 25an, Jaunaren Gizakunde-Adierazpenaren festaburuan, Erlijiosoen eta Apostoluzta-Elkarteen Institutoen Kongregazioak erabat baietsi zituen arte.

Eliz-Araudi berria 1983ko urtarrilaren 25an lege egin zen, eta nahitaez agokitu behar izan zitzaizkion gure Konstituzioen atal batzuk. Horregatik, Kongregazioak baimena eman zien gure Nagusi gorengoei behin-behineko arauak agintzeko, Eliz-Araudi berriak agintzen zituen eta gure Konstituzioetan ez zeudenei buruz; arau hauek eraman behar ziren hurrengo Kapitulua nagusira.

Bitartean, Konstituzioen idazkia, arretaz azter ondoan, bidali zen Kongregaziora, eta honek onartu zuen bera 1986ko abenduaren 25an.

Kapitulua Nagusiak 1988an arduraz arakatu eta onetsi zituen Definitorio nagusiak aurkeztu zituen arauak, oraindik Eliz-Araudi berriak agindu-ta, Konstituzioetan ez zeuden haiek. Eta Kongregazioak ontzat eman zituen 1990ko otsailaren 7an.

Beraz, latinez idatzirik dauden eta Aulki Santuak onartu dituen Konstituzio hauek jatortzat hartu behar dira, eta herri-hizkuntzeetara egin itzulpenak harekin ados izango dira.

KAPUTXINO ANAIA TXIKIEN BIZIERA

I-go Atala: Gure biziera Ebanjelioaren arabera

- 1.1 Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelioa Elizarentzat bere bizi osoaren hasiera da beti, eta munduarentzat bere salbazio-mezua.
 - 2 Elizak, haren bidez, Espiritu Santua gidari izanik, ezagutzen bait du Jesukristo, eta fededunentzat espiritu ta bizia diren hitz eta egintzak jasotzen ditu.
 - 3 San Frantzisko, gure Anaiartearen fundatzaileak onbideratze-hasieratik hartu zuen Ebanjelioa bere bizitzaren eta ekintzaren oinarritzat.
 - 4 Horregatik, Erreglaren hasiera-bukaeran agindu zuen argiro, gorde behar zela, eta Testamentuan baietsi zuen goi-argiz berari aditzera emanik, Ebanjelio santuaren arabera bizi behar zuela.
 - 5 Bere seme garenez gero, saia gaitzen etengabe gero eta hobeto ebanjelioa ezagutzen.
 - 6 Bizitzaren gora-behera guztietan bego Ebanjelioa gure lege nagusi; irakur ditzagun sarri bere salbazio hitzak eta gogoeman ere bai gure barnean, Andra Maria Birjinak bezala, gure biziera Ebanjelioaren arabera gero ta gehiago eraturik, Kristoren antzeko ahal guztiz izaten saia gaitzen.
- 2.1 San Frantzisko, Kristoren ikasle leial eta kristau bizitzaren eredu bikainak, irakatsi zien beretarrei Jesukristo behartsu eta apalaren urratsei alai jotzen, berak eraman zitzan Aitarengana Espiritu Santuaren bidez.
 - 2 Kristoren maitasunez suturik, bere antzekoagoak izatearren, so egin diezaigun berari giza-egite ta ezerestapenean eta, Eukaristia poz batez ospatzen dugularik, bazko misterioan partaide izan gaitzen bizkunde aintza alde aurretik dastatuz bera etorri arte.

- 3 Bete ditzagun bihotz handiz ebanjelio-aholkuak, batez ere hitzeman ditugunak: Jainkoari opa diogun garbitasuna, guretzat salbamen bide den pobrezia eta maitezko menpetasuna.
- 3.1 Apostoluei emandako misio-hitzak entzun ondoren, san Frantziskok hasiera eman zion Txikien Ordenaren anaiarteari, batasunean biziz, Jainko Erreinuaren lekuko izango bait zen, hitzez eta egitez penitentzia ta bakea ohiukatuz.
 - 2 Jesukristoren egiazko ikasle bati egokitzeko, bera harrigarri egokitu zen bezala, arduraz jarrai diezaiozun, bere ondare espirituala arretaz biziz gure bizieran eta egintzetan, eta garai guztietako gizakiekin partaide izanez.
 - 3 Horretarako, irakur ditzagun maiz san Frantziskoren beraren bizia ta idazkiak, era berean bere ikasleenak, batez ere santutasunean, apostolutzan eta jakintzan gorenekoenak, orobat bere espiritua ezaguterazten duten beste liburuak.
- 4.1 Kaputxino Anaia Txikiak garenez, gure Anaiartearen izaera ta berezgarriak ezagutu behar ditugu, gure bizimoldea garaiei zuzen egokiturik, anaiei tradizio sendoan oinarritu dadin.
 - 2 Oroz gain, haien antzeko izan behar dugu lehendabiziko espiritura bihurtuz, hau da, gure aita san Frantziskoren bizira ta erreglara barrendik itzuliz, gisa honetaz gure Ordena etengabe berritzen dugula.
 - 3 Bere urratsei jarraituz, saia gaitzen lehenasuna em aten otoitzari, batipat kontenplazioari, baita ere pobretasun osoari, hala norberenari nola elkar-artekoari, txikierazko espirituan, eta saia ere bai biziera latz eta hildura pozezkoa aitortzen, Jaunaren gurutzeari diogun maitasunaz, bide batez, garaiei ezaugarrien argitan, ahaleginak eginez gure bizimoldea eraberritzeko.
 - 4 Gure artean abegi ona landuz, bizi gaitzen pozik behartsu, ahul eta eriekin, beren bizitza geureganatuz, herriarenganako gure hurbiltasun berezia gorde dezagun.
 - 5 Eragiogun apostolutzari, zerbitzu espirituz ekinez era guztietan, bereziki ebanjelizazioaren bidez.
- 5.1 San Frantziskoren Erreglak, Ebanjeliotik sortua delarik, ebanjelioaren arabera bizitzara bultzatzen du.

- 2 Jabetu gaitezen arduraz bere espirituaz eta ekin bera gordetzeari, xalo eta garbi, egintza onen bidez, Testeamentuan Fundatzaileak esan zigun arabera, eta lehenengo anaia kaputxinoen espiritu, ebanjelioaren helburu eta santutasunaren arabera.
 - 3 Negusiek, anaiarteekin batera, bultza bitzate anaiak Erregla ezagutu eta maitez gordetzera.
 - 4 Erregla ta lege-emaile Aitaren asmoak, alde guztietan anaiek zintzo bete ahal izan ditzaten, ministroek kontuan hartuko dituzte herrialde ezberdinak, kulturak eta toki ta garaien beharrak; orobat bilatuko dituzte modu egokienak, era askotakoak ere bai, anaien biziera eta apostoluzarentzat.
 - 5 Egiazko aniztasuna alkartasunean eta obedientzian oinarriurik bait dago, espiritu jator baten batasuna zainduz. Horrela, bakoitzaren ariketari ebanjelio-askatasuna ematen zaio, batipat gure bizierari dagokion berritzeari, Ordenaren espiritua itzal ez dadin.
- 6.1 Serapindar Frantziskok idatz-arazi zuen Testamentua hil baino lehentxeago, zauri santuz apaindurik eta Espiritu Santuaz beterik zegoela, guri salbazioa gogo gartsuenaz opa zigunean.
 - 2 Bertan aditzera eman bere azken nahia eta uzten du bere spirituaren seniparte baliozkoa.
 - 3 Testamentua utzi zigun, hitzeman dugun Erregla, Elizaren eritziz gero ta hobeto bete dezagun.
 - 4 Horregatik, gure Ordenak gorde duen tradizioaren arabera, Testamentua hartzen dugu Erreglaren lehen espiritual azalpen bezala, eta gure bizieraren argi-emaile gorengotzat.
 - 7.1 Konstituzioen helburua, Erregla hobe ta osoago betetzen laguntzea da, gure bizieraren askotariko gora-beherak gogoan edukiz.
 - 2 Beraiek dira Kristogan eraberritze espirituala lortzeko laguntza segurua, eta Jainkoari guztiok agindu diogun bizimoldea bere betera eramateko bide egiazkoa.
 - 3 Bete ditzagun Konstituzioak, ez morroi antzo, seme bezala baizik, bada egin dugun profesaz hortara behartzen gaitu, guztiz gain Jainkomaitasuna irrikatuz eta Espiritu Santuaren erakutsiei begiratuz, Jainkoaren aintzaren ta lagun-hurkoaren salbamenaren bila gabiltzala.

- 4 Anaia guztiei eskatzen zaie biziki, Erregla, Testamentua eta Konstituzioen norberezko ikasteari eman daitezela ta beren barren espirituz bete.

II-gn Atala: Gure Eliz-biziera

- 8.1 Eliza, salbamen bide eta Jainko eta gizakien arteko batasun bide delarik, munduan erromes dabilen Jainko herri bezala dagerkigu. Herri hau, Kristok elkartasunean, maitasunean eta egian eratu zuen, eta Espiritu Santuak aberasten du dohain edo karisma ugariz, Eliza bera eraberritu eta zabalago egiteko egoki direnak.
 - 2 Hainbeste karismaz apaindua dugun Eliza honetan, san Frantziskok, Espiritu Santuaren eraginpean, eraiki eta eratu zuen erlijiozko Anaiarte bat. Elizak, bere jerarki aginpidez ontzat eman zuen eta babesten du ama baten arduraz, bere aurpegian argiago dizdiz ager dadin Kristo pobre ta apala gizakien zerbitzuan, batipat pobreen artean.
 - 3 Orobat, Elizak onartu zuen Kaputxino Anaia Txikien Ordena, Aita Santu Klemente VIIgarrenak, 1529ko uztailaren 3an eman zuen "Religionis zeluz" buldaren bidez.
 - 4 Beraz, maita dezagun Eliza bihotz bihotzez, hausnar bere misterioa eta esku har gartsu bere bizitzan eta egitasmoetan.
- 9.1 Gure Aita san Frantzisko, gizon katoliko eta osoro apostolikoaren antzera, obedi diezaiogun zintzo Elizan gartsu bizi den Kristoren Espirituari.
 - 2 Obedientzia eta begirunea ager diezaizkiogun Aita Santuari, bere menpean bait daude erlijioso guztiak obedientzi botuaren bidez, baita ere, berarekin batera Elizaren batasun eta apostolutasunaren ageriko ezaugarri den Gotzainen Batzorkidegoari.
 - 3 Gauden tokian, lagun diezaiogun tokiko Elizari gure anai-bizibidez eta igarle-amasez, bere gehitze ta garapenerako.
 - 4 Tokiko Gotzainen gidapean, opa diezaiegun gure apostolutza, gure karismaren gisara, Jainko herriari eta giz-emakume guztiei.
 - 5 Diezaiegun begirune apaizei eta guretzat espiritu eta bizi-emaile beste guztiei, eta arretaz lan egin dezagun beraiekin batera.
- 10.1 Maita eta obedi dezagun bihotz zabalez gure Ministro jenerala,

bera bait da Fundatzaile santuaren ondorengoa, gu eta elizagintarien tarteko lokarri bizia, Anaiarte osoaren zerbitzu eta onurako hautatua.

- 2 Era berean, ohora ditzagun menpetasun eginkor eta arduradunez, Anaiartearen gainerako zerbitzariak, Jaunak ezarri bait ditu artzain bezala eta anaien elkarren arteko uste-onaren arduradun, horrela fedez eta Kristoren maitasunaz Elizarentzako zerbitzu lanari estuago eta ziurtasun handiagoan lotu gakizkion.
- 11.1 San Frantziskok, on hutsa den Jainko Aita gurtuz, ikasi zuen sorkari guztienganako maitasuna, haietan ikusten bait zuen lehen seme ta salbatzaile den Kristoren irudia.
 - 2 Halako Aitaren seme garenez, senti gaitezen gizon-emakume guztien senide, inor bereizi gabe; eta izaki guztiakin bat eginik, anai bezala, opa diezaiogun Jainkoari, on guztien sortzaile denari, izadi osoaren gurtza.
 - 3 Dei beraren indarrez Espiritu Santuak bildu gaitu ta, susta dezagun anaitasun zentzua, otoitz eta elkarte lanaren bidez, Ordena osoan, batipat gure probintzia eta tokiko anaiarteetan. Bizi dezagun orobat, senide-espiritu berbera gure frantziskotar familia bakarra osatzen dugun anaiarreba guztiakin, bai erlijiosoekin, bai sekularrekin.
 - 4 Ebanjelio araberako gure senidetasuna, sozial bizieraren eredu eta legami gertatzen denez, dei bat da gizonentzat beren arteko elkartasuna sustatu eta indarrak batu ditzaten pertsona guztien garapena ta askatasuna hobetzeko, eta gizartearen aurrerapen jator bat lortzeko.
 - 5 Gure anai-bizierak berebiziko garrantzia ta testimoniozko eragite haundia ditu elkargo eta sozialgintzan; testigantza honen bidez, Jainkoak bultzatzen gaitu zuzentasun eta bake giroan, anaitasuna sortzera eta areagotzera.
 - 12.1 Jainkoaren Semea, morroi antza harturik, ez zen etorri zerbitzatua izatera, zerbitzari izatera baizik eta bere bizia guztien salbagarri ematera.
 - 2 Bere irudiko izan nahirik, ez dezagun haundiagoak izatea bilatu, txikiak baizik guztien zerbitzurako, batipat beharraldian eta estualdian daudenen alde, baita erasotzen gaituztenen alde ere.

- 3 Bizi dezagun bada, pozik gure anai-biziera pobreekin, beren gabezia eta xumetasunean bihotz guztiz parte hartuz.
 - 4 Gogoan edukiz beraien gorputz-animako beharrak, saia gaitezen hitzez eta egitez beren giza ta kristau bizimoldea hobetzen.
 - 5 Horrela, adierazten dugu gure anaiarteak duen txiki izatearen espiritua, eta bide batez, zuzentasun, batasun eta bake orantza bilakatzen gara.
- 13.1** Gure ebanjeliko deia emankor egitearren Elizan eta munduan, saia behar gara apostolu-bizitza zintzoki gauzatzen gogarte ta egintzak barne, Jesusek bezala etengabeko otoitzean eta eginkizun salbatzailetan.
- 2 Maisuaren bizibide honen antzera, mundu guztian barna bidal zituen apostoluak, otoitzari eta hitzaren zabaltzeari neka-gabe loturik.
 - 3 San Frantziskok, bakardade lekuak maiteago izan arren, Jaunaren eta Apostoluen urratsei jarraituz, otoitza ta salbazio mezua hertsiki elkarganutzen dituen biziera hautatu zuen.
 - 4 Horregatik, ari gaitezen Jainkoaren gorespenetan eta, bere hitzaren gogartetan, gero ta gehiago bizkorturik, gure ekinaren bidez gizakiak Jainkoa maitatzera alai eramanak izan daitezen.
 - 5 Honela, gure otoitz bizitza apostoliko espirituz osorik betea gertatzen da, eta gure apostoliko jarduera otoitz espirituz blaitua.

BIGARREN ATALBURUA

GURE BIZIERARAKO DEIAZ, HARRERAZ ETA ANAIEN HEZIERAZ

I-go Atala: Gure bizierarako deiaz

- 14.1 Bakoitzaren santutasuna ta munduaren salbazioa sustatzeko, Jainkoak, bere onginahiez, dei egiten die bizi maila guztietako kristau denei goi maitasun betera Elizan.
 - 2 Dei honi erantzun behar dio norberak gogoz eta askatasunez, Jainkoaren borondatea eta pertsonaren gaitasuna bat etorri daitezen.
 - 3 Poz gaitezen guztiok eskerronez Jainkoak bere borondatez egin digun erlijioso dei bereziarengatik.
 - 4 Frantziskotar kaputxino izateko gure bokazioari erantzunez, guregan dagoen Kristoren betiko bizitzaren agiriko eta sozial testigutza ematen dugu, Kristo pobre ta apalari jarraitzen diogu eta nonnahi zabaltzen diegu, batipat behartsuei, mezu bat.
 - 5 Honela, erromes-anaiartearen garez, bihotzez eta egitez, penitente, gizonen zerbitzari eta txiki izanik, Elizaren salbamen lanari ekiten diogu.
- 15.1 Anaiek, giza legezko eta ebanjeliozko eduki aberats baten jabe direla, bizi duten besteei ematen dieten kontzientziatik batipat sortzen da bokazioak bilatzeko axola. Biziera hori aukeraturik, eskaintzen diete Jainkoari eta gizakiei egiazko zerbitzua, eta aberasten dute beren nortasuna. Holako bizieraren testigantza garbia emateko, bearreko dugu etengabeko biziberritzea.
 - 2 Anaia guztiak parte har bezate bokazioak sustatzen, Jainkoak duen xedea gogoz betetzeko gure karismaren bitartez.
 - 3 San Frantziskok lehenbiziko anaiartearen ugaritzeaz zuen kezka gogoratuz, anaia guztiak, batez ere ministroak eta anaiarteak arduratsu izan bidez bokazio jatorrak ezagutzen eta pizten, batipat

beren ejenpluz, otoitzaz eta hitzez.

- 4 Honela lan dagigu Jainkoarekin, Berak dei egiten eta hautatzen bait ditu nahi dituenak, eta Elizari on egiten diogu.
- 16.1 Bokazio pastoralgintzaren era guztietan arretaz lan egin behar da, batez ere, gure Ordenaren espiritua biziago dagoen inguruetan.
 - 2 Bokazioak biltzeko anaia aukeratuak pizten eta eratzen ari diren tokietan fruitu ugariagoa jaso ohi da. Bestalde, anaia guztiek lagundu bezate eginbehar honetan, frantziskotar bizi bide naroaren ezaupide da-ta.
 - 3 Gazteei gure anai-bizitzan esku hartzeko aukera emateak asko laguntzen du bokazioak izateko. Eta hori etxe egokietan oso ongi iristen da, aldi berean gogoeta pertsonalak egiteko aukera ematen delarik.
 - 4 Bokazioak zaindu eta gure erlijioso bizitzarako egoki prestatzearren, probintzial nagusiek, definitorearen oneritzi eta, hala badirudi, Kapitulu probintzialaren aurre on-eritzia dutelarik, eraiki bitzate bizitetxe bereziak lurralde ta garaien beharren arabera.
 - 5 Etxe hoek antolatu behar dira gisako pedagogiak eskatzen duen arabera, jakintza ta giza-heziera elkaturik, ikasleek gizarteekin eta beren etxekoekin harremanetan bizi daitezen, adinari, espirituari eta garapenari dagokien kristau bizitzan, bertan ager eta susta ahal dadin biziera erlijiosorako deia.
 - 6 Ikasleen ikasketak komeni da eratzea beste ikastetxeetan oztoporik gabe jarraitzeko baliagarri moduan.

II-gn Atala: Gure bizieran harrera

- 17.1 San Frantziskok biziki nahi zuen erlijioso bizitzaren jatorrasuna, eta aurrez ikusirik bere Anaiartea asko ugarituko zela, beldur zen anaia ez-gaien multzoaz.
 - 2 Anaiartea, birtutez, goi-maitasunez eta espirituz aberastu behar denez multzoan baino, gure bizibidea har nahi dutenak arretaz azter eta hauta behar dira.
 - 3 Ministro Pronbintzialesk iker bitzate arretaz gure bizimoldean har behar direnak ba ote dituzten zilegi eta baliozko harrerako zuzenbide orokorrak eskatzen dituen baldintzak. Eta gainera bete bedi honako hau:

- a) anai gaiak, beren jitez, gai izan daitezela ebanjeliko bizitzarako anaiartean;
 - b) egiztaturik dagoela badutela gure bizierako behar den osasuna, bai gorputzekoa ta bai sikikoa;
 - c) beren jokeraz baieztu dezatela Eliza Ama santuak sinetsi eta erakusten duena, eta badutela zentzu katolikoa;
 - d) ager dadila izen onen jabe direla, batez ere harremanak izan dituzten artean;
 - e) badutela behar den heldutasuna eta gogo suharra, eta Ordenara datozela helburu bakar baterako, hots, Jainkoaren zerbitzurako eta gizakien salbaziorako, san Frantziskoren Erregla eta gure Konstituzioen arabera,
 - f) herrialde bakoitzeko eskakizunek duten jakintzaz jantziak izan eta beren lanbidean ongi aritzeko proba erakutsi dezatela;
 - g) batipat, anai gaiak urtetan helduak badira eta erlijioso bizitzaz esperientzia baldin badute, beraien aurreko bizieraz garbitasun guztiak bildu behar dira.
- 18.1** Jesukristo, gure maisu guztiz jakintsuak, salbatu nahia azaldu zion gazteari erantzun zion on-ona izan nahi bazuen, lehendabizi bere ondasun guztiak saldu eta emateko behartsuei.
- 2** Bere jarraitzaile Frantziskok ez zuen bakarrik hori erakutsi, bai ere burutu berberak berekin har zituenekin, baita ere agindu bere Erreglan.
- 3** Beraz, Probintzial Ministroek ezaguterazi eta azaldu biezaizkiete Ordenara, Kristoren maitasun biziak eraginik datozen anai gaiei, Ebanjelioko aipatu hitzak garaiz, profesia nagusia egin aurretik, beren ondasunak utzi ditzaten bereziki behartsuentzat.
- 4** Anai gaiek gerta bitez, beren barnean, gero ondasunak uzteko, eta presta ere bai gizaki guztiak zerbitzatzeko, batipat pobreak.
- 5** Anaiak ez bezate inolaz ere, Erreglaren arabera, esku har zeregin hauetan.
- 6** Anai gaiek, gainera, prest egon bitez adimenezko eta moral ontasunak jartzeko anaiarte osoaren alde; orobat, izate ta grazia dohainak, Jainkoherriaren zerbitzurako leporatu zaizkien lanbidetan.
- 19.1** Ministro jeneralak ez ezik, Ministro probintzialak ere esku dauka postulantzara, nobiziotzara eta profesara hartzeko probintzia

- bakoitzean, eta esku eman diezaike hortarako bikario probintzialari, probintzial ordezkoiari eta nagusi erregulari.
- 2 Ministro hoek, anaiagaiak nobiziotzara hartu aurretik, eska biezaiete beren aholkua Kontseiluari edo Kontseiluak hautatutako hiruzpalau anaiei; baina lehenengo eta profesu nagusirako ezinbestekoa dute beren Kontseiluaren baieztapena.
 - 3 Beharrekoa izanezkerok, eska biezaiete aholkua arazoan kompetentzia berezia dutenei.
 - 4 Ohi-gabeko gora-beheretan, ministro probintzialeskiko harremana ezinezkoa denean, tokiko anaiarten nagusiak eskubide berdinak ditu, Konstituzioetan erabakia beterik.
- 20.1** Ministro Probintzialak besterik ez badu erabakitzen, nobizioen maisuaren zeregina da hauen harrera egitea, eta orduan hasten da nobiziotza.
- 2 Ministro Probintzialaren eginbeharra da, ordea, Elizaren izenean, profesuak botuak hartzea; hala ere, hortarako esku eman diezaiokorde Ordenako beste anaia bati.
 - 3 Nobiziotzari sartzean eta profesu egitean gorde bidez liturgi arauak.
 - 4 Botugintza meza barruan egin behar da arruntki, frantziskotarrentzat Aulki Santuak dadukan honako eran: "Nik, N.N. anaiak, grazia hau Jaungoikoak eman didan ezkerok Beraren aintzararako, Kristoren Ebanjelioa hobekiako bizitzeko asmo sendoekin, hemen anaien aurrean, zure eskuetan, Aita N.N. (hiru urtez edo x urtez...; nere bizibide guztian) menpean, neurerik gabe eta garbitasunean bizitzea zin-egiten dut, Aita Santu Honorioek onetsi zuen Erreglaren eta Kaputxino Anaia Txikien Konstituzioen arabera. Beraz, bihotz-bihotzez lotzen natzaio Anaiarte honi Jainkoaren eta Elizaren zerbitzurako Espiritu Santuaren eraginean, Andre Maria Birjina garbiaren, gure Aita San Frantziskoren eta Santu guztien bitartekotzaz eta anaien laguntzaz".
- 21.1** Profesan botuen bidez zin-egindako hiru aholku ebanjelikoen arrazoin eta helburua Kristorekin dugun elkartzunean datzate, graziaren bidez bihotz askatuz, biziera garbi, pobre ta menpekoaren bitartez zeruko Errenuagatik, San Frantziskoren oinatzai jarraituz.
- 2 Zeruko Errenuagatik, gerok munduaren eta ugaldien haundiagoaren ezaupide den ebanjelioko kastitate aholkuak, bihotza zatitu gabe,

ezkongabeen bizimoduan, garbitasun osora behartzen du.

- 3 Aberats izanik, behartsu egin zen Kristori jarraituz, ebanjelioko pobretasun aholkuak berekin dakar ondasunez baliatzea eta beraien erabakitzea nagusien menpean.
- 4 Ebanjelioko obedientzi aholkuak, sinesmen espirituz eta heriotzaraino menpeko egin zen Kristori maitez jarraitzeko hitzemanak behartzen du Jainkoagatik gogoa menderatzera, legezko nagusiek gure Konstituzioen arabera agintzen dutenetan, norberaren kontzientziaren eta Erreglaren kontra ez diren gauza guztietan.

III-gn Atala: Hezieraz, oro har

- 22.1 Heziera-lana honetan datza: Ebanjelio santuari eta frantziskotar espirituari gero ta hobekiago dohakien bizierako anaiak eta anaiarteak sustatzean, toki eta garaien eskakizunen arabera.
 - 2 Jarraikor izan behar du heziera prozesuak, bizi guztian zehar giza baloreei, nahiz ebanjeliko eta erlijioso profesari buruzkoetan.
 - 3 Pertsona osokoa izan behar du hezierak, bereziki sikikoa, erlijiosoa, kulturala, profesionala ta teknikoa; eta bialdi ditu: hasierakoa eta jarraikorra.
- 23.1 Heziera-lan guztia, oroz gain, Espiritu Santuaren lana da, berak bizierazten bait ditu barrenean hezitzaileak eta hezigaiak.
 - 2 Benetako hezierak hezi behar direnei lankide izatea eskatzen die, beraiek bait dira beren buruen heziera-egile eta arduradun nagusienak.
 - 3 Anaia bakoitza, aldi berean, eta bizitza guztian, hezigai eta heziemaile da, beti bait dugu besteengandik zerbait ikasi eta besteei irakatsi beharra; tinko bego erizpide hau hezieraren egitarau bezala.
 - 4 Gure frantziskotar bokazioaren xede nagusienetako bat da anaia txikien antzera elkarrekin bizitzea. Horregatik, gure heziera aldian, eskakizun funtsezkoa da gure anaiarte-bizitza, noiznahi eta nonnahi.
 - 5 Anaiarte bakoitzak, batipat berez hezitzaile direnak, eginbehar behinen hau betetzeko, nagusien den anaiarte Probintziala bera izan behar du eragile eta zuzpergarri.
 - 6 Anaia guztiak hezitzaile diren arren, eginkizun honetarako jarriak eta ardura ahundiagoa izango duten batzuk hautatu beharrekoak dira. Honi begira, Ministro Probintzialak eta nagusiek izan behar

dute buruburuko, horiek bait dira anaien hezieran ohizko pizkorgarri eta eratzailer. Ondoan datoz anaiartearen izenean eginkizun honetarako hezitzaile hautak.

- 24.1 Ordenak ukan behar ditu bere karismaren eskakizun bereziei dagozkien heziera bideak.
- 2 Hezieraren hasierako denboraldian anaiekin axola berezia ukan behar denez, barruti bakoitzak hezi-bide aukerakoak izan behar ditu.
- 3 Heziera aldiak eskatzen du, batez ere, arduradun anai sail bat, erizpide batean ariko dena heziera ibilbidea luze den beste. Talde honi dagokion laguntza eman beharko dio anaiarte osoak.
- 4 Heziera idazkaritza eta zentroak duten garrantzi handia dela-ta, horietaz artatzeko eta eginkor izan daitezen, ardura berezia izan beharra da.
- 5 Hezierako idazkaritza orokorrak eman biezaiezkie laguntza ta argibideak nagusi jeneralei eta barruti bakoitzekoei hezierari dagokion oro susta dezaten.
- 6 Halaber, probintzia bakoitzak ukan beza hezierako kontseilu bat, eta gauza berako etxeetan anaia bat, berariaz arduraduna, arazoari buruzko guztia susta dezan.
- 7 Probintzia bakoitzak edo probintzi-taldeek, herrialdeen gorabeheren arabera, ukan bezate hezierarako beren araudi berarizkoa; bertan zehazki emango dira heziera aldi guztirako helburu, egitarau eta anaien eginbide zehatzak.

IV-gn Atala: Hasiera gure bizieran

- 25.1 Gure bizitarako lehen hezierak, beharrezko esperientziak eta ezagutzak berekin daramatza; horien bidez anaigaiak hezitzaileen gidaripean, frantziskotar bizimodu ebanjelikoa gero ta gehiago bereganatzen doaz.
- 2 Hasiera garaietan, anaigaien heziera bedi sendo, osagarri eta herrialde bakoitz eta aldiei egokitua, giza ta espiritual elementuak onez- onean bateratuz.
- 3 Erabil behar dira ezi-lege zuzenak, batipat, anaigaiari bere burujabetza eta heldutasun sikiko ta sentikorra mailka eman ohi dizkieten zereginak eta lanbideak.

- 4 Beraien izakera eta aiurria gogoan harturik, eskolatuak izan bitez espiritual bizitzan, Jainko-hitzaren janariaz, liturjian esku hartuz, norberaren gogoeta eta otoitzaz, bidea, egia eta bizia den Kristok gero ta gehiago erakartzen dituela sentitzeraino.
 - 5 Hasiera aldian, ardura bitez anaiak kaputxino-frantziskotar espiritua eta nola bete izan den ezagutzen, san Frantziskoren bizitza eta nolako pentsamoldea zuen Erregla gordetzez ikasiz, bai ere gure Ordenaren kondaira eta tradizio jatorrak; bainan batipat, biziera batera deituak izan bait dira, ardura bitez bera baretik eta praktikan bereganatzen.
 - 6 Landu bezate bereziki heuren eta gainerako gizakien arteko anaibizitza; eta lagunduko diete laster beren beharretan, Elizakin gero ta gartsuago elkaturik, ikas dezaten bizitzen.
 - 7 Hasierako garaian, anaien heziera berezia eratu behar da horiek beteko dituzten lanbide, gora-behera eta barrutien estatutuen arabera.
 - 8 Hasierako aldi guztiak izango dira gure bizimodua eramateko eta heziera emateko bereziki egoki diren, eta hortarako Ministro probintzialak bere definitorioren adostasunaz aukeratu dituen anaiarteetan. Hala ere, prailegaiak egin dezake bere lehenengo prestaera gure anaiarteetatik kanpo, Ministro Probintzialak, definitorioren oneritzi, hortarako baimena emanik.
 - 9 Ministro jeneralari, bere aholkularien oneritzia duelarik, dagokio nobiziotzako etxeak sortzea, aldatzea eta ezabatzea, erabakia idatziz emanik. Kasu berezietan, agintedun honek berak nobizio bati eman diezaioke bere nobiziotza egiteko baimena Ordenako beste etxe batean.
- 26.1 Jainkoak anaiarteari eman dion edozein anaiak poztan gaitu, eta gure bokazio espiritua eraberritzera sustatzen gaitu.
- 2 Anaigaiak bereak direnez, anaiarte osoarena da benetan hasiera garaiko egitekoa.
 - 3 Bainan, ministro probintzialak, bere definitorioren baietaz, erabakiko dituen era eta muga barruan, eman biezaie beraien gidaritza espiritu-bizitzan, anai-bizitzan, pastoraltzan esperientzia duten eta jakintzaz, zuhurtasunaz, espirituen senaz eta arimen ezagueraz ondo jantzita dauden anaiei.

- 4 Anaigai, nobizio eta profesa egindakoen maisuak libre egon behar dute beraien ardura ta zuzendaritza eragotzi diezaizkiekeen kargu guztietatik.
 - 5 Eta hartarako arrazoin bereziek eskatzen dutenean, izan ditzakete laguntzaileak, batez ere espiritual bizibideri eta barne-arazoei dagozkienetan.
- 27.1 Hasierako heziera garai hasten da anaiartean sartzten den egunean, ministro probintzialak norbait hartu ondoren, eta profesa nagusira arte dirau. Zuzenbide arruntaren eta gure Ordenaren aginduen arabera egin behar da. Sarrera-agiria egingo da.
 - 2 Egun hortatik anaigaia, heziera, bizimodu eta lanari dagozkienetan anaikide bezala begiratu izango da, mailaka, ministro probintzialak, definitorioren adostasunaz erabaki duen arabera.
 - 3 Gure anaiartera sartzeko lehen aldiak postulantzeta, nobiziotza eta nobiziotza-ondokoa hartzen ditu.
 - 28.1 Postulantzeta lehen hezierarako eta gure biziera aukeratzeko aldi bat da. Bizkitartean, anaigaia gure bizimoldeaz jabetzen da, eta anaiarteak, bere aldetik, anaigaia obeki ezagutuz, bere bokazioaz eritzia eman dezake.
 - 2 Postulanteen heziera ari da, batipat, fede-katekesiaren osotzeaz, liturgiaren lehen iraskapenaz, otoitz ariketaz, frantziskotar bizieraz eta apostolutza lanerako aurren saioaz. Orobat, egiazta ta susta behar dira giza-heldutasuna, batez ere bihotz sentimenarena, eta ebanjelioaren arabera garaien ezaupideak ezagutzeko gaitasuna.
 - 29.1 Nobiziotza, hasierarako garai biziago bat da eta frantziskotar-kaputxino ebanjelikoaren esperientzi bameagoa, bere eskakizun oinarrikoetan; eta erlijioso bizieraren hautaketa libre ta heldua darama berarekin.
 - 2 Nobizioak beren maisuaren esku daude soilik, gorengo nagusien menpe, eta profesa nagusia egina duen ordenako anaia izan behar du.
 - 3 Nobizioen heziera, gure bizimodu sagaratuaren baloreetan oinarritzen da; Kristo ereduaren argitan ezagutu eta bizi diren baloreetan, san Frantziskok ebanjelioan aurkitu zituen ikuspegietan eta Ordenaren tradizio jatorretan.

- 4 Nobiziotzako abiadak gure erlijioso bizieraren beharreneko ikuspegiak kontuan izango ditu, batez ere sinesmen, otoitz kontenplatibo, anaia-biziera, behartsuekiko harreman eta lanaren esperientzia bereziaren bitartez.
 - 5 Baliozkoa izateko, hamabi hilabetez iraun behar du nobiziotzak, hau dagoen anaiartean; ministro probintzialak, definitorioren oneritiz, erabakiko du bere hasiera eta nola egin behar den.
 - 6 Nobiziotza-etxetik alde egiteak hiru hilabetez, nahiz etengabe nahiz eten-aldiz, balio-gabe uzten du nobiziotza.
 - 7 Egin bedi nobiziotzako hasiera-agiria, orduan hasten bait da bizitzen Ordenan.
- 30.1** Nobiziotza-ondoan, anaiak geroko heldutasunean aurreratuz, prestatzen dira gure biziera ebanjelikoaren erabateko hautapena egiteko, profesa nagusiaren bitartez.
- 2 Gure bokazio-bizitzan anai-biziera ebanjelikoak lehen maila duenez gero, nobiziotza ondoan ere lehenetsuna eman behar zaio. Eta horregatik anaia guztiei erlijiozko heziera berbera eman behar zaie, ministro probintzialak bere definitorioren baietzaz ezarritako eran eta denboraldian.
 - 3 Anaiak, bakoitzaren gaitasun eta graziaren arabera, ekin diezaiote Idazteun, teologia espiritual, liturgia, Ordenaren kondaira eta espiritualitatearen ikaste sakonago bati, eta ari daitezela apostolutza era ezberdinetan, halaber etxe-lanetan. Heziera hau burutu behar da beti bizi-inguru batez eta gogoan hartuz pertsonaren etengabeko heldutasuna.

V-gn Atala: Gure erlijioso biziera

- 31.1** Gogoan har dezagun sarritan erlijioso biziera honen bikaintasuna.
- 2 Horren bidez, Jainkoaren ohore ta zerbitzurako hartzen bait dugu arrazoien berri eta bereziaz, bizimolde bat; honek bultzatzen gaitu goimaitasun bete-betere, eta jainkozko onginahiari sendo eta barne-barnetik emanik, Kristok bere emazte Elizakin etengabezko lokarri duen elkartasunaren irudi egiten gara.
 - 3 Gure sagaratze honen bidez, bataioko graziaren fruitu are oparoagoa lortzearen, ebanjeliko aholkuak betetzeko hitzematzen dugu Erregla eta Konstituzioen arabera.

- 4 Honela, goi-maitasun betea, espiritu-askatasuna ta jainko-gurtza eragotzi ditzazkiguketan oztopoetatik alde egin nahi dugu.
 - 5 Azkenik, profesaren bidez, Elizaren bizitzan dohain berezi honen jabe izanik, gure testigantzaz bere salbazio egitekoan laguntzen diogu.
 - 6 Beraz, arren eta arren eskatzen diegu anaiei presta daitezela arreta guztiz profesara, gogojardunen bidez eta sakramentuak gartsu hartuz, bereziki eukaristia, bai ere otoitz beroaren bidez. Guzti hori burutuko da era berezi eta sakonagoz profesia nagusia egin aurretik.
- 32.1 Nobiziotza bukatu-ta, egin bedi aldi baterako profesia, ministro probintzialak nobizioarekin erabakiko duen aldira arte, eta berritu daiteke profesia nagusia egin arteraino. Ezbairik balego nobizioaren gaitasunaz, proba aldia luza dezake ministro probintzialak, ez ordea sei hilabete baino gehiago. Eta ez-gaitzat jo badute, bidal bezate.
 - 2 Profesia honek iraun behar du, berez eta gutxienez, hiru urtez eta ez sei urtez baino gehiago; hala ere, luza daiteke, bainan aldi baterako profesaren denbora guztia ez da bederatzi urtez baino gehiago luzatuko.
 - 3 Profesia nagusia egiten da ministro probintzialak profesia-egilearekin erabaki duen egunez, aldirako profesaren hiru urteak osorik gorde eta gero, eta inoiz ez ogei urte bete baino lehen. Honela, anaiaia elkartzen da erabat anaiartearekin eskubide eta eginbehar guztiekin, Konstituzioen arabera.
 - 4 Aldirako profesaren denbora bete delarik, anaiak alde agin dezake. Eta bidezko arrazoinak izanik, legezko nagusiak, bere kontseiluari entzun ondoren, uka diezaioke hurrengo profesia.
 - 5 Bete bitez eliz-legean dauden beste arauak, batez ere, aldirako eta betirako profesia egin baino lehen nobizioaren ondasunei buruz emandakoak.
 - 33.1 Erlijioso habitua lehen profesarako elizkizunean ematen da, nahiz eta jantzia alde aurrez erabilia izan den. Gogora dezagun gure jantziek izan behar dutela Jainkoari egindako sagaratze, gure izate ta anaiartearen ezaugarri.
 - 2 Kristo otzan eta apalez jantzirik, izan gaitezen anaia txiki ez

itxuraz soilik, egiaz, bihotzez, hitzez eta egitez baizik.

- 3 Anaiek daramatzen gaineko jantzi apalek ezer gutxi laguntzen diote arimen salbazioari, beraiek ez badaude apaltasun espirituz jantzirik.
 - 4 Beraz, san Frantziskoren antzera, ardua gaitzen ahaleginean onak izaten, ez itxuraz bakarrik, onak hitzez eta egitez, kanpotik nahiz baretik; eta Erreglak dioenez, guztiak baino txikiagozat edukiz geure buruak, aurrea har diezaiegun gainekoei begirune haundiaz.
 - 5 Gure habitua, Erregla eta Ordenako ohituraren arabera, osatzen da gaztain kolorezko txanodun soin-gaineko, kordoi eta sandaliaz, edo, beharrezko denean, oskiaz.
 - 6 Erabili bezate anaiek Ordenako habitua, sagaratze-ezaugarri eta testigantza bezala. Aniztasun arauak balio du bizarra erabiltzeko ohituraz.
- 34.1 Ministro Probintzialak, definitorioren onuz eta maisuaren aurreeritziz, erabakiko dituen epeetan, tokiko anaiarteak eduki beza elkarrizketa ta eritzi-ematea anaigaien gaitasunaz eta beraiekin nola jokatu behar denez.
- 2 Nobiziotza bitartean eta profesa nagusia egin aurretik, beren anaiartean lau hilabetez bizi izan diren betirako botudun anaiek ere eman bezate beren aholku-eritzia, ministro probintzialak erabakiko duen eran.
 - 3 Aldirako profesa egin duten eritzia ere jaso bedi, bainan beren botua eman gabe.
 - 4 Bilera guzti hauen eta bozketen txostena, egin balitza, bidal biezaio ministro probintzialari.
- 35.1 Gainera, aldirako eta profesa nagusiaren agiria egitea agintzen da, adina ta beste beharreko gora-beherak ezarriaz, profesa-egileak, har duenak eta bi testiguen izanpetuz.
- 2 Agiria hau eta Elizak agindutako besteak gorde bitez arretaz probintzial artxiboan. Ministro probintzialak ere ezarri beza agiria artxiboan gordeko den profesa-liburuan.
 - 3 Profesa nagusiaz ari denean, ministro probintzialak jakin erazi behar dio profesa-egilea bataiatu zuten tokiko erretoreari.

- 36.1 Ministro probintzialak eta, agindu bereziaz, 19gn zenbakian aipatuek iraitzi dezakete gure bizibiderako gauzeza dela uste duten postulante edo anaigaia.
- 2 Eskubide bera daukate nobizioen maisuak eta postulanteen arduradunak, luzapenik ez duen arrazoin larriagatik, bainan anaiarteko kontseiluaren baietzaz. Eta berehala jakin eraziko zaio ministro probintzialari.
- 3 Ministro probintzialari dagokio, definitorioren adostasunaz, funtsezko arrazoinaz eskatzen duen aldirako profesaduna sekularitzea, eta hau libre geratzen da horrenbestez boturik eta profesatik datozken beste bete-beharrik gabe.
- 4 Beste instituto erlijioso edo apostoliko bizimoduzko elkarte batera joan, eta, halaber Ordena utzi nahi duenean anaia batek, aldirako profesa nahiz betirakoa eginda gero, bete bitez Elizaren zuzenbide orokorraren aginduak.

VI-gn Atala: Heziera berezia

- 37.1 San Frantziskok idatzi zuen Testamentuan: "lan egiten ez dakitenek ikas bezate".
- 2 Oharpen honek aditzera ematen digu esannahi berri ta gero ta premiaskoago bat. Izan ere, nekez burutu daiteke egokiro lan bat, prestaketa berezi eta aukerakorik gabe.
- 3 Ordenak lagun behar dio anaia bakoitzari lanerako duen bere trebetasuna garatzen. Honela, lana dela bide, anaia elkar sendotzen dira bokazioan eta anaiarte bizimoldea sustatzen da.
- 4 Eman biezaio anaia bakoitzari bere nolakotasunen araberako prestaketa zenbait lan egin dezan. Beraz, batzuek ikas bitzate arteak eta lanbide teknikoak; beste batzuk, aldiz, pastoral edo zientzien, batipat, liburu santuen ikasteari lotu bitez.
- 38.1 Hala ere, anaia guztiek, txiki izate moduan Jainkoa zerbitzatzuz, gogoan har bezate Jaunaren espiritua ta bere eraginpena oroz gain irrika behar dituztela.
- 2 Beraz, anaia, norberaren gaitasunen arabera, esku-lanen edo buru jakintza sendoaren bidez, konpetentzia lortzen duten bitartean, ardura bitez beren santutasunaz ere.
- 3 Lotu biezaio te heziera bereziari buru-ukamen eta erabidez, norberaren

gaitasunen arabera, beren nortasun eta adimen garapenaz, Eliza, Ordena eta giza-elkartearen onerako izan daitezten.

- 4 Ikasketak, Kristoren goi-maitasunak argiturik eta bizia ematen dielarik, betoz osorik batera gure bizimoldearekin.
 - 5 Horregatik, anaiak beren ikasaldian begira biezaiote bihotz eta adimen hobetzeari, san Frantziskok nahi zuenez; edozein lanerako prestaketa gure erlijioso bizieraren osagarri bait da.
- 39.1 Eliz-maila sakratuetara deituak diren anaiak Elizak emandako legeen arabera eskolatu behar dira, gure izakera kontuan edukiz. Eliz-maila sakratuak hartzeko ministro probintzialaren eta bere kontseiluaren adostasuna beharreko da.
- 2 Eliz-mailetara deituak ez diren anaientzat ere probintzia bakoitzak izan beza ardura bera beren adimen, apostoliko eta tekniko prestaketari buruz, norberaren ofizioa kontutan hartuz.
 - 3 Filosofi eta teologi ikasketa, frantziskotar irakaspenaren arabera emango dena, Kristoren misterioa ikasleei mailaka agerarazteko zuzenduko da.
 - 4 Gure Ordena apostolikoan, pastoral ardurak bizieraziko du prestakizun osoa, anaiak guztiek, ahalbideen arabera, Jesukristo gure Jaunaren ikasle ta profeta direnez gero, Jainkoaren erreinua egitez eta hitzez hotsegiteko gai izan daitezten, gogoan izanik herrialdeen pastoral beharrak eta Elizaren misio eta ekumeniko zeregina.
 - 5 Anaien prestakuntza berezia egokiro antolatzearen, ministro probintzialek, definitorearen adostasunaz, eraiki bitzate probintzietan etxe aukerakoak; edo erabaki bezate bestela, batez ere, probintzien arteko elkar laguntzarekin, nahiz beste frantziskotar familiekin, tokiko zirkunstantzietan uzten badute.
 - 6 Eskualde ta probintziaren egoera eta eskakizunek beharturik, anaiak prestakuntza denboran Ordenatik kanpo gaitzen ariko balira, frantziskotar-kaputxinoen heziara beti eta arreata guztiz zaintzekotan bidaliak izango dira.
 - 7 Ministro probintzialek ardura bitez gai diren anaiak presta daitezten berariak instituto, fakultate ta unibertsitateetan zientzi sakratuak eta besteak ikasiz, edo arteak eta ogibideak, Elizaren eta Ordenaren zerbitzurako egokiak baderizkie.

- 40.1 Konturatu bitez hezitzaileak hezigaiak direla beren buruen prestatzaile nagusien eta aurreneko arduradunak, beren prestatzaileekin uste onez elkar lagunduz.
- 2 Irakaspedean, ikasleekin beren elkarrekiko hizketan, ariketen zuzentzea eginkor izan dadin, saia bitez hezitzaileek kultura bizi ta bame-lotura duena hezigaiei ematen.
- 3 Ikasgaiak prestatzeko eta emateko garaian ipini bezate arreta artatsua, eta bila ere bai beraien hobekuntza ikasteetan Elizaren irakaspen barruan eta moldatu ikasgaiak hezigiaren eskakizunei.
- 4 Azkenik, aholkatzen zaie jakintza-gaien ikerketan eta zabalkundean ihardun dezatela, batez ere, frantziskotar gaietan. Egite honetarako aurki dezakete laguntza beraiek eta beste anaiek Ordenak sortu dituen Frantziskotar Institutoetan.
- 5 Gartsuki eskatzen den probintziako edo eskualdeko liburategiaz gainera, etxe guztiek izan behar dute berena liburuaz ongi hornitua. Ahal den tokietan utzi biezaie kanpokoei ere gure liburategietan sartzea, baina ez arretaz ibili gabe.

VII-gn Atala: Heziera iraunkorra

- 41.1 Iraunkor heziera, norberaren eta komunitatearen berriztapen eta egitamuen bame-loturadun moldatze prozesua da; berak gai egiten gaitu gure bokazioa bizitzeko Ebanjelioaren arabera, egunoroko benetako gorabeheretan.
- 2 Pertsona osoari era batez dagokion arren, heziera iraunkorrak bi alde dauzka: bihotz-berritze espirituala, kristau bizitzaren iturrietara eta Ordenaren hasierako espirituara etengabe itzuliz, bai ere garaiei moldatuz; eta kultural nahiz profesional berritzea delako teknika gaurkotuz. Guzti horrek gure bokazioarako zintzotasuna areagotzen du.
- 42.1 Lehen hezierako aldia bukatu duen anaiak ez du pentsatu behar egin-egina dagoela osorik bizitza guztirako. Horrexegatik, iraunkor heziera guztientzako da.
- 2 Zalantzik gabe, iraunkor hezieraz arduratzea, lehenik anai bakoitzaren eginbear bat eta eskubide bat da, heziera hau gure bokazioa etengabe betetzea besterik ez delako.
- 3 Baina aldi berean, heziera hori nagusi guztien eginbear arrunt eta pastoraltzat hartu beharra dago.

- 43.1 Eman bitez arau bereziak probintzia bakoitzean heziera iraunkorraz, kontuan hartuz tokien egoera ezberdinak eta pertsonen eta garaien gorabeherak.
- 2 Egitaraua izango da organikoa, dinamikoa eta osoa, Ebanjelioaren argitan eta anaiarteko espirituaren arabera, erlijioso bizi gutzia hartzen duena.
 - 3 Egunoroko bizitzaren ezagun araubideak laguntzen dio iraunkor hezierari. Izan ere, egunoroko erlijioso bizimolde, otoitz, gogarte, elkarbizitze eta lanaren mugidaren esperientzia hezierarako lehen eskola da.
 - 4 Arren eta arren aholkatzen dira ezohizko bide batzuk, hau da, iraunkor hezierarako ekinbide berri edo berriak, probintzia bakoitzaren, eskualdekoen edo nagusi-buruen Konferentzien bamean dauden tokietako anaiarteek sortuko dituztenak.
 - 5 Erroman dugun Nazioarteko Ikastetxea gomendagarri da, Ordena guztian anaiarte-espirtua bultzatu, hezieran jarraitu eta frantziskotar kultura sustatzeko.
- 44.1 Anaia guztiek ardura bitez frantziskotar kaputxinoen bokazioaren arabera bizitzen, horretara Jainkoak deituak bait dira.
- 2 Beraz, ahalegindu gaitzen erlijioso bokazio dohaina finkatzen eta zaintzen geuregan eta gainerakoengan, elkar laguntza, zintzo, zentzuzko ermetasun eta etengabeko otoitzaz.
 - 3 Aldendu gaitzen, senideok, bihotz-apostasiatik, hori gertatzen bait da epeltasunak, erlijioso itxuraketan, mundukoi bihotza sorerazen duenean, bokazio-espiritutik eta maitasunatik urruntzen denean eta mundo honen espirtu harro eta lizunari leku ematen zaionean. Gogora ditzagun, bestalde, apostoluaren hitzak: "Ez zaitezte mundu honen antzekoak egin", eta ihes egin dezagun bekatu kutsua duenetik eta erlijioso biziera ahuldu egiten duen guztitik.
 - 4 Mundua utzi dugunez gero, ardura gaitzen bada Jaunaren espirtuari eta bere eraginari jarraitzen, Berari bakarrik atsegin ematea besterik nahi izan gabe; horrela anai eta pobre, otzan, santutasunzale, errukitsu eta bihotz-garbi izan gaitzen egiazki; azkenik, ikus dezala munduak gure baitan Jainkoaren bakea eta ona.

HIRUGARREN ATALBURUA

ANAIEN OTOITZ-BIZIERA

- 45.1 Jainkoaganako otoitza, maitasun-arnas antzo, Espiritu Santuaren eraginpean hasten da, gizon bamekoiak bihotzari hitzegiten dion Jaunaren mintzoa entzuten duelarik.
- 2 Bada Jainkoak aurrea hartu digu gu maitatuz, eta mintzo zaigu sorkari oroen bidez, garaien ezaupidez, gizakien bizitzaz, geuron bihotzaren bidez eta, batipat, salbazio kondairan dagoen Hitzaren bidez.
- 3 Mintzo zaigun Jainkoari otoitzean erantzunez, gure osotasuna lortzen dugu, maitasun geurekoia uzten bait dugu eta bai Jainkoarekin bai gizakiekin elkartzen gara Jainko-Gizon egin zen Jesukristogan.
- 4 Kristo bera da gure bizitza, gure otoitza eta gure egiera.
- 5 Horregatik, gu Kristogan bizi eta bere Espirituarekin otoitz egiten dugularik, Aitarekin seme-hizketa bat dugu, Espirituak diola gure barnean: "Abba-Aita!".
- 6 Jainkozko zerbitzuari bameago emanik gaudenez gero, ebanjelioko kontsejuen bidez, lehia gaitezen, espiritu askatuaz, otoitz-bizimolde hau egiten zintzo eta etenik gabe.
- 7 Ekin diezaiogun axola guztiz otoitz eta deboziozko espirituari, beren mende egon behar bait dute aldiko beste gauza guztiek, otoitz-gizon ez, otoitz-bizi bera baizik zirudien san Frantziskoren jarraitzaile benetako gerta gaitezen.
- 8 Guztiz gain, Jaunaren Espiritua eta bere egiera irrikatuz, otoitz eginez beti Jainkoari bihotz garbiz, emae gun gizakiei egiazko otoitz-testigantza, guztiek ikus eta senti ahal dezaten gure aurpegian eta gure anaiarteko bizimoldean ageri diren Jainkoaren ontasuna eta bihotzbera.
- 46.1 Gure otoitzak adierazi behar du anaia txiki garenon bokazio berezia.

- 2 Otoitz egiten dugu benetan anaien gisa, Kristoren izenean biltzen garenean elkar maitasunez, Jauna gure artean egitan dagoela azalduz.
 - 3 Eta anaia txikiei dagokienez ari gara otoitzean Kristo pobre ta apalakin bizi garenean, Aitari pobreen ohiuak aurkeztu eta beraien bizimoduan esku hartzen dugunean.
 - 4 Profetek, salmo-egileek eta Kristo berberak irakatsi digutenez, gure otoitzak ez gaitu errealitatik aldendu behar; aitzitik, san Frantziskok legendunagan Jauna ikusi zuen bezala, otoitza, bizitzako gora-beheretan, historiaren gertaeretan, herri erlijiotasunean eta eskualde bakoitzaren kulturaren mamitu behar da.
 - 5 Honela, otoitza ta ekintza elkarren aurka ezarri gabe, Jaunaren Espiritu bakar eta berak argiturik, elkar osatzen dira.
 - 6 Frantziskotar otoitza sentikorra, edo bihotzekoa da, Jainkorekin bameko esperientziara garamana. On gorenako eta on guztien iturri den Jainkoa kontenplatuz, gurtza, esker-ematea, mirespena ta gorespina jario behar dute gure bihotzetik.
 - 7 Sorkari guztietan Kristo ikusiz, gabiltzen munduan zehar bakea ta penitentzia iragarritz, eta Jainko-maitasunaren lekuko izanik, dei eginez guztiei Bera goraiatzera.
- 47.1 Bataio eta profesaren bidez Jainkoaren zerbitzurako sagaraturik gaudenez gero, ederretsi dezagun, oroz gain, Jesukristoren apaizgoaren iharduera, Elizaren egimen guztiaren buru eta kristau bizitzaren iturri den Liturgia sakratua; saia gaitezen berarekin elikatzen gure bizitza espirituala, pertsonala eta anaiartearena, bai ere kristauei bere gordairuak har-erazten.
- 2 Aintzat har ditzagun, beraz, biziki Eukaristiko misterioa eta Apaiz Otoitza; horiek nahi zuen san Frantziskok mamitu zezatela anaiartearen bizi osoa.
 - 3 Hori lortzearren, egoki izango da oso anaiarte bakoitzean liturgi-eginkizunak prestatzeko anaia batzuk izendatzea, egunean egunean berriztatuz oldez moduan, liturgi-arauen eta beren espirituaren arabera.
 - 4 Ohikunari dagokionez, molda bitez anaiek beren herrialderako Elizak eman dituen arauetara.

- 48.1 Esku har dezagun osoki Eukaristiko oparian buru-bihotzez eta eskaintzaz, horretan ospatzen bait dugu Jesukristoren bazko-misterioa Bera etorri arte, geure buruak zeharo eskainiz gugatik eskaini denak erabat har gaitzan.
- 2 Eukaristiko ogi-haustean Kristorekin eta elkarrekin bat egiten dugula agirian jartzearren, ospa bedi egunoro gure anaiarteetan elkarmeza bat guztientzat. Hau egin ezin denean, ospa bedi aldizka behintzat anaia guztiek parte hartuz.
 - 3 Eta laudagarri da elkarmeza ematea, opari, apaizgo eta anaiartearen batasuna adierazteko, banan-banako meza ospa beharrik ez delarik.
 - 4 Jesukristo bera, ogi ta ardo sagaratuen irudipean dagoen Eukaristia gorde bedi gure elizen toki egokien eta gisakoagoenean.
 - 5 San Frantziskoren antzera, gurtu dezagun gauza guztien gain Eukaristian dugun Jesukristo, eskaini diezaizkiogun Aitari Berarekin batera geure buruak eta egintzak, eta otoitz egin maiz eta gartsuki bere aurrean, han bereganatzen bait du anaiarte.
- 49.1 San Frantziskoren katolikotasunaz ohartuz, gure Eukaristiko oparian eta gure otoitzetan eska diezaiogun Jainkoari Eliza ama santuaren alde, agintari eta giz-emakume guztien alde, mundu osoaren salbaziorako eta, bereziki, frantziskotar familia osoaren eta onegileen alde; orobat otoi diezaiogun Jainkoari hildako guztien alde.
- 2 Hildakoen aldeko otoitzei buruz, agintzen da: Aita Santua, Ministro jenerala nahiz ministro jeneral izandako bat hiltzean, anaiarte bakoitzak eman beza hilen meza bat. Berdin egin bedi definidore jeneral eta izandakoen alde beraien taldeko anaiarte bakoitzean.
 - 3 Kapitulu probintzialari dagokio hildako ministro probinzial eta izandakoen alde hil-otoitzak erabakitzea; era berean, hildako anaia, senide eta ongileen aldekoak.
 - 4 San Frantziskoren festaburuaren ondoan, ospa bedi gure anaiarte guztietan hildako anai eta ongileen oroitzapena.
- 50.1 Kristoren gorespen kantu eta bitarteko eskariakin bat egiten da Eliza, eta gauza bera egitera dei egiten digu, Eukaristia ospatzean bakarrik ez, baizik-eta Orduen Liturgia esatean ere.
- 2 Horregatik, anaiarte osoa egunoro bilduko da Kristoren izenean

Orduen Liturgia elkarrekin ospatzeko. Hau osorik ospatu ezin denean, esan bitez bederen elkarrekin Gorespenak eta Bezperak.

- 3 Gainera, gauza bera egin dezatela anaiek aholkatzen da, bizi eta aurkitzen diren lekuan; eta ospa bedi Orduen Liturgia eliztarrekin, tokiko gora-beherak kontuan hartuz.
 - 4 Tokiko kapituluak, probintzialaren adostasuna duelarik, antola beza etxeko eta lanerako ordu-araua halako moduz non lan-eguna Jainkoaren gorespenerako gerta dadin, pertsonen, garaien eta kulturen gora-beherak behar bezala kontuan hartuz.
 - 5 Orduen Liturgia elkarrekin ospa ez dezaketeenek pentsa bezate bakarrik esateak ere Eliza osoakin gogoz elkartzen dituela espirituz eta, batez ere, beren anaiekin. Orobat, "gureaiten" Ofizioa bakarka esaten duten anaiek otoitz egin bezate asmo bizi beraz, Erreglaren arabera.
- 51.1** Orduen Liturgian Jainkoari hitzegiten diogu Idauzteunetik jasotako bere mintzoz, eta Jainko bera gurekin elkartzen da bere hitzez eta gurekin dihardu.
- 2 Jainkoaren hitza sakonago sar dadin gure bihotzetan eta bizierazi gaitzan eraginkorrago, Orduen Liturgiaren ospakizunak bizi eta eginkor izan behar du, eta laudagarri da, ixil-une batzuk tarteka egitea, honela ohardun eta onuratsu gertatzen baita.
 - 3 San Frantziskoren antzera, bere bihotzkadak agertzen bait zituen sarritan kantari eta soinua joaz, Liturgi ospakizunak abestu bitez jaiegunetan bederen, ahal denean.
 - 4 Ohar biezaiote anaiek ez ahotsaren gozotasunari, gogo-batasunari baino, ahotsa gogoakin bat etor dadin eta gogoia Jainkoarekin.
- 52.1** Zaindu eta susta dezagun san Frantziskoren eta aintzinakoen espiritu kontenplaria. Beraz, emaiogun denbora gehiago, gogozko otoitza egin-araziz.
- 2 Gogozko otoitz ongi eginak egiazko gurtza sorterazten du, Kristorekin barmeki elkartzen gaitu eta betirako eraginkor egiten du liturgi sakratua gogo-bizitzan.
 - 3 Otoitz espiritua inoiz epeldu ez dadin guregan, aitzitik gero ta sutuagotu, horretan ihardun behar dugu bizitza guztian zehar.
 - 4 Aita nagusiek eta bizitza espiritualaren arduradun gainerakoek

- saia bitez anaia guztiak aurrerazten gogozko otoitzaren ezagueran eta egitean.
- 5 Anaiek, kristau espiritualitate ta frantziskotar jatorrizko iturrietatik har bezate otoitz espiritua eta otoitza bera, Jesukristoren ezaguera goreneraino iristeko.
 - 6 Gogo-otoitza anaien maisu espirituala da; bihotz-barnean eten gabe otoitzean ari dira, baldin anaia txiki egiazko eta espiritualak badira. Izan ere, otoitza, Jainkoari bihotzez hitzegitea besterik ez da; ez du zinez otoitz egiten ahoz soilik mintzo zaionak. Eta horregatik, norberak eginahalak egin behar ditu kontenplazio edo gogo-otoitzean aritzeko eta betidaniko Aita gurtzeko espirituz eta egitan, Kristo maisu on-onak irakatsi bezala, lehiatuz axola guztiz adimena argitzen eta bihotza suhartzen, hitzak ebakitzen baino.
- 53.1 Anaiarteetan eta anaia bakoitzean, nonnahi bizi diren, espiritu eta otoitz-bizitzaren lehentasuna zerbait konkretuan mamitu behar da, san Frantziskoren hitzek, bere bizimoldeak eta kaputxinoen ohitura zuzenek eskatzen dutenez.
- 2 Behar-beharrenetako gauza da norkbere otoitza eginbehar biziaren kontzientzia moldatzea. Anaia bakoitzak, ez axola non den, egunoro hartu behar du nahiko asti gogo-otoitzerako, adibidez, ordubate bat.
 - 3 Probintziko eta tokiko kapituluek ardura bitez anaia guztiek, bakarka edo elkartean, gogo-otoitza egiteko astia izan dezaten.
 - 4 Tokiko anaiarteak azter behar du kapituluetan ea anaiek ba-ote duten elkartean edo bakarka otoitz egiteko astirik. Anaiek, batipat nagusiek, beren pastoral zerbitzua dela-ta, jakin bezate, otoitz-biziera sustatze behar honetan, erantzulekide direla.
 - 5 Kristoren ikasleok, nahiz-eta behartsu eta ahulak, lotu gakizkion otoitzari halako gisan non Jaunaren bila zinez dabiltzanek gurekin otoitz egitera deituak senti daitezten.
 - 6 Ihardun dezagun arreta guztiz Jainko-herrian otoitz-espiritua sarrerazten, batez ere, barnekoa; hau izan zen gure Anaiarte kaputxinoaren karisma hasieratik, eta kondairak ager duenez, benetako eraberritzearen emamuina.
- 54.1 Jainko- seme garenez gero, Espiritu Santua izan bedi otoitz aldian gure gidari, Aitarekin eta anaiekin gero ta alkartuago egin gaitzan.

- 2 Ebanjelioko espirituarekin, ospa ditzagun era bereziz eta hotsegin fededunei Kristo gizon eginaren misterioak, batipat, Eguberrikoa eta Nekaldikoa, horietan san Frantziskok miretsirik gogoematen bait zituen Jaunaren maitasuna eta apaltasuna.
 - 3 Maria Birjina Errugabe, Aitaren alaba eta mirabe, Jainkoaren Semearen Ama ta Espiritua Santuaren emazte, san Frantziskok zioenez, Eliza bilakatu zenari omen egin biezaio berariaz, batez ere, liturgi elizkizun eta Errosarioaren bidez, eta biztu dezagun herri-jendean harenganako debozioa. Izan ere, bera da gure ama eta bitarteko, gure Ordenaren zaindari, bere Semearen pobretasun eta nekaldian partaide, eta, esperientziak erakusten duenez, Kristo pobre eta gurutziltatuaren espirituarengana garaman bidea.
 - 4 Orobat, omendu dezagun bere senar Jose santua, aintzinako ohituraren arabera.
 - 5 Susta dezagun anaia txikien jarraibide dugun Aita san Frantzisko-arenganako jaiera, eta santuenganakoa, batipat gutarrenganakoa, tokiko ohituren arabera; bainan jaiera hori izan bedi beti liturgi-espituaren araberakoa.
- 55.1 Gure erlijioso biziera etengabe berritzearren, egin bitzate anaia guztiek urtero gogojardunak eta aldian aldiko beste bakartegunak, eta laudagarri litzateke, noizean behin beraiek antolatzea taldeka, anaien berarizko lanbideen arabera.
- 2 Eman biezaio anaia bakoitzari, bai ere etxetik kanpo bizi direnei, honetarako aukera eta behar den denbora.
- 56.1 Anaiarte guztiek izan behar dute egiatzko otoizlari. Hori lortzeko, baliagarri da probintzia edo eskualdetan eraikitzea, Jainkoaren askotariko graziaren arabera, bakartegi eta kontenplategirako anaiarteak; horietan anaiek, Jainkoak argituta, ari daitezen otoitz espirtua eta bizitza sustatzen.
- 2 Anaia hoek, gogora bezate probintzial anaiarteekin batera, san Frantziskok biziera bakartegi etxeetan egin nahi dutenentzat idatz zuena.
 - 3 Kapitulu Probintzialari edo Nagusi buruen Konferentziari dagokie anaiarte hauen egokitasuna erabakitzea ta arauak ematea.
- 57.1 Barne-espituarentzat zaindari ona den ixiltasuna, maitasunak eskatzen du elkarrekiko bizitzan; eman biezaio axola otoitz, ikaste ta gogoeta-giroa zaintzeko gure anaiarte guztietan.

- 2 Tokiko kapituluaren egitekoa da gure anaiarteetan otoitz eta bildutasun giroa zaintzea, oztopo guztiak urrunduz.
- 58.1 Liburu Santu eta beste liburu espiritualen irakurketa baliorduna da benetako debozioa biztu eta Jainko esperientzia sustatzeko. Irakurketa hau egiteko har beza zintzoki norberak nahiko denbora..
- 2 Hitzeman ditugun bidea eta bizimoldea tinko gogoan gordetzeko, probintzi bakoitzak arautu beza, Liburu Santu, Erregla, Testamentu eta Konstituzioen agiriko irakurketa; halaber elkarren artean profesa berritzea.

LAUGARREN ATALBURUA

GURE POBRETASUN BIZIERA

I-go Atala: Gure pobretasun eredua

- 59.1 Jesukristo Jainko Semea, Aitagandik oro hartu eta Aitarekin Espirituagan gauza guztien partaide izanik, pobreei ebanjelioa aldarrikatzera bidalia izan zen. Aberats izanik, pobre eta gizonen antzeko egin zen guregatik, bere pobretasunaz gu aberas gaitezen.
 - 2 Seaskan jaio eta gurutzean hil arte maite izan zituen pobreak, eta Aitak pobreen aldeko ederraren testigantza eman zuen, bere ikasleen irakaspenerako.
 - 3 Elizak, Kristoren jarratzaileen ezaugarritzat jotzen du gogozko pobretasuna, bereziki erlijiosoena, eta erakusten digu san Frantzisko dela ebanjelioko pobretasunaren iduri profetikoa.
 - 4 Jainko Erreinuaren aldeko gure pobretasunaren bidez parte hartzen dugu Kristok Aitarekin duen semetasunean eta gizonekin duen senidetasunean eta mirabetzan.
 - 5 Ebanjelioko pobretasunak, maitasunerako prest egotea ta, zerbitzatzera etorria den Kristo pobre ta gurutziltzatuakin kidetasuna eskatzen ditu, eta munduko txikienganako elkartasunera garamatza.
 - 6 Ez ditzagun geureganatu gizatasun eta grazi dohainak geuretzat bakarrik emanak baitliren, baizik eta erabil ditzagun ahaleginez eta osoki herriaren onerako.
 - 7 Balia gaitezen munduko ondasunetaz eskerronez banatuz pobreekin, eta bide batez, ondasun bila lehiaz dabiltzan gizakiei erakutsi diezaiegun, gure lekukotasunaz, nola erabil ondasunak.
 - 8 Jainko bera pobreekin egitan dagoela adieraziko diegu, beren egoeran parte hartzen dugun neurriaz.
- 60.1 Pobretasun ebanjelikoa, gure bizieran helburu guztiz garrantziskoa denez gero, azter dezagun bera Kapitulu nagusietan, probintzikoetan

eta tokikoetan, garaien aldaketari dagozkion eta beraz aldakor diren antolamenduen bidez.

- 2 Kapituluetan azter bedi berarizko eran, nola erabil ohi diren anaiarteei eman zaizkien ondasunak, pobreen onurako gogoz jarri behar direnak: direla dirua, etxebizitzak nahiz lurraldeak.
- 3 Izan ere, norberaren eta taldekoaren pobretasunak, jatorra izan dadin, azalpenik behar ez luken gabezia adierazi behar du.
- 4 Pobretasunak bizimodu neurrizko eta xume bat eskatzen du, adibidez, janzkeran, jan-edanean, etxeetan, baita ere edozein sozial, politiko nahiz eliz aginteri uko egitean.
- 5 Elkartu gaitezen biziki munduko konta-ezin pobreekin, eta gure apostolutzaren bidez eragiogun jendeari, batipat, kristauei, herrien garapenaren alde zuzentasun eta erruki-egintzen bidez.
- 6 Aipagarri dira pobreen sozial eta kulturazko aurrerabide bai ere eskatolujiko itxaropenaren alde ari direnak, beraien artean biziz eta beren egoeran eta nahikundeetan esku hartuz, tokien gorabeheren arabera.

- 61.1 Zaindu dezagun elkarte biziera eta banatu pozik geure artean ematen zaigun guztia.
- 2 Anaiarteari eman biezaizkio ondasun guztiak, edozein arrazoinenez jasotako lan-sari, mantenusari, dirulaguntza aseguru eta errentak barne, bakoitzak izan dezan jateko bera, jantzi bera ta behar duen oro.
- 3 Nagusiak izan bitez eredu anaien artean pobretasuna zaintzen, eta saia bitez bera zaindu erazten.

II-gn Atala: Ondasun eta diru-pobretasuna

- 62.1 Gorde dezagun hitzeman dugun pobretasuna san Frantziskoren pentsamoldea ta hitzak gogora ekarriz: "Anaiak ez bezate gauzarik berentzat har, ez etxe, toki, ez beste ezer".
- 2 Honela, bada, munduan erromes eta arrotz izanik, zerbitzatu dezagun Jainkoa pobretasun eta apaltasunean, bizidunen herrira goazen bitartean.
- 3 Lurreko ondasunez balia gaitezen bizitza, apostolutza eta errukiegitzeen beharkizunetarako, batipat, pobreentzarako.

- 4 Nagusiek, beraiek nahiz besteen bitartez, bete ditzakete legebidezko eginkizunak lurreko ondasunei buruz, bainan gizonentzat edo guri emandako eginbeharrentzat beharrezko direnean bakarrik.
 - 5 Nagusi buruek hauta bitzate fisiko nahiz moral pertsonak, beren izenean ezarri ditzaten gizarte-legearen aurrean gure esku utzitako ondasunak.
- 63.1 Betidaniko Aitaren seme garenez, aldendu dezagun kezka larri oro, ipini Jaunagan uste ona eta ezarri geure buruak bere baztergabeko ontasunean.
- 2 Beraz, ez dezagun pila ondasunik neurri gabe, ezta ere janarirako beharrezko dugunetik.
 - 3 Eskuratu ditzagun, batez ere, gure lanaren orde, bizirako eta ministeritzako premiatsu diren ondasunak.
 - 4 Gabezi aldi, jo dezagun uste osoz Jaunaren mahaira, Eliza osoaren eta tokikoaren erabakien arabera; hala ere, giz-emakumeen esku-zabaltasunera jotzean, pobretasun, anaitasun eta frantziskotar alaitasun testigantza eman behar diegu.
- 64.1 San Frantziskok, Elizan zuen pobretasun eta txikitasun karismak eraginik, agindu zien bereei ez hartzeko inolaz ere dirurik, aberastasun seinale, diru-zalekeriaren arrisku, ahalmen eta nagusitasun lanabes delako munduan.
- 2 Hala ere, garaien aldatzearekin batera, beharrezko gertatu denez gero diru-erabiltzea, anaiek, Aitaren nahia irrikatuz, erabil bezate dirua sozial aldaketa eta bizibide arrunta bezala bakarrik, Konstituzioen arabera, ezinbesteko bilakatu bait da dirua pobreentzat ere.
- 65.1 Anaien beharren axoladun arretatsu izatea beren gain duten nagusiek erabil bezate dirua bizitza, apostolutza eta erruki-egintzen eskakizunetarako.
- 2 Arrazoin bera bide delarik, beste anaiek ere dirua erabil dezakete, nagusiaren baimenaz eta kontu ematekotan.
 - 3 Bainan guztiek, nagusi nahiz beste anaiek, erabil bezate dirua egiazko pobreekin ados doan eran.
 - 4 Pobretasuna gordetzearren, ez bezate anaiek jo diru eta beste gauzen eske, adiskide, guraso edo senitartekoengana baimenik gabe.

- 66.1 Tokiko nagusiek, ministro probintzialak bere definitorioren baietzaz emandako erabakien arabera, balia daitezke kaudimen edo beste gizarte laguntzaz, holako betebeharrak herriko nahiz elizako agintariek guztiei edo halako giza-mail profesional bati leporatzen dizkieten herrialdean, edo holako jokabidea pobre gehienena denean.
- 2 Bainan ez bezate jo bizi diren lurraldean luxu eta irabazkin itxura duten edozein seguruetara.
 - 3 Hala ere, bidezko da nagusiek egitan beharrezko duten dirua banketxetan edo holako erakundeetan jartzea korritu begiratuan, jende xumeek dagiten bezala.
 - 4 Ez bezate eskuratu fundaziorik, ez betirako ondarearik, betiraundeko eskubide eta betebeharrekin.
- 67.1 Anaiak beren bizieraz ager biezaiete gizakiei, borondatezko pobretasunak libratu dituztela gaitz guztien eta bihar eguneko kezka larriaren iturri den diru-gosetik.
- 2 Beraz, nagusiek aldegin bezate arretaz diru-biltze edo sal-erosketatik diruaz baliatzean, neurrizko segurtasuna izan ezik.
 - 3 Ondasunak erabiltzean, dirua barne, probintzialek, anaiarteek eta anaiak joka bezate eritzi zehatz eta eginkor honen arabera, alegia: behar denetik gutxien, legezko denetik ez gehien.
 - 4 Anaiarte batentzat beharrezko ez diren ondasunak eman biezaizkie nagusi buruei eskualdeko behartasunentzat, nahiz pobreentzako nahiz herrien garapenerako, probintzial Kapituluak ezarritako erabakien arabera, ondasunak bidegabekeriz gordez, san Frantziskoren seme ezgai bihur ez gaitzen. Guzti hau azter bedi sarritan elkarren artean tokiko Kapitulan.
 - 5 Anaiak, Konstituzioei doakienez, gogoeta egin bezate tokiko kapituluetan, ondasunak zuzen erabiltzeaz jostaldi, jantzi ugaritasun, norberarentzako erregali, bidai eta antzekoetan.
 - 6 Beharraldian, herrialde bereko anaiarteak, orobat Ordenako probintziak prest egon bitez heuren eta besteen artean behar diren ondasunak banatzeko.
 - 7 Ministro jeneralari dagokio, definitorioren adostasunaz, probintzietan dituzten gainezko ondasunetaz erabakitzea.
 - 8 Ondasunen hitzarmen eta besteganatzeaz, bete bitez osorik zuzenbide orokorraren gainerako arauak.

III-gn Atala: Pobretasuna gure etxeetan

- 68.1 Etxe pobre eta apaletan bizi behar dugu, beraietan erromes eta arrotz bezala ostatu hartuz.
 - 2 Etxe berri baterako tokia hautatzerakoan, gogoan har bitez gure pobretasun biziera, anaien onura espirituala eta bete behar diren ministeri lanak; eta antolatu bitez etxeak inori hurbil-ezinekoak iduri ez zaizkion eran, batipat jende apaleenei.
 - 3 Hala ere, etxeak anaiartearen eskakizun eta ministerio lanetarako egokiak izan behar dute, bai ere otoitz egiteko, eginbeharretan aritzeko eta anai-bizierako aukerakoak.
- 69.1 Ministro probintzialaren egitekoa da, definitorioren adostasunaz, eta zuzenbidearen arauak gordez, gure etxeak eraikitzea, eskuratzea eta besterentzea.
 - 2 Etxegintza bukatu ondoren, tokiko nagusiak ez beza eraiki, ez erauzi, ezta ere haunditu eraikita dagoena, tokiko kapituluaren eritzi eta aholkularien baietzik eta goi-nagusiaren baimenik gabe.
 - 3 Tokiko nagusiak erabaki beza arretaz etxe zaintzeari eta bertako ondasunak gordetzeari buruz, bere kontseilarien baietza edukiz garrantzitzuen gauzetan.
- 70.1 Elizak izan bitez xume, egoki eta garbiak.
 - 2 Ahaleginak egin behar dira, elizak, eginkizun liturgikoak ospatzeko eta eliztarrek biziki parte hartzeko aukerakoak izan daitezen.
 - 3 Sakristiak, egokiak eta apaiz-jantzi nahiz eliz-tresnez behar-hainbat hornituak izan behar dute.
 - 4 Kultuari dagokion oro duin eta liturgi legeen arabera izango da, baina ez pobretasun eta bakuntasunaren kaltez.

IV-gn Atala: Ondasunen administrazioa

- 71.1 Kuria jeneralean, orobat probintzikoetan, nagusi buruak, bere aholkularien adostasunaz, izendatu duen ekonomo bat izango da diru eta beste ondasunen arduradun.
 - 2 Etxe bakoitzak ere ekonomo bat izan behar du, ministro probintzialak definitorioren baietzaz izendatua; kargu hau, etxe nagusienetan nagusiaz beste batena izango da eskuarki.

- 3 Ekonomoak egiazko teknikoak izan behar dute beren arloan, eta ari bitez nagusiaren zuzendaritza ta zaintzapean, zuzenbideko arauen eta definitorioren erabakien arabera.
 - 4 Tokiko ekonomo eta nagusi guztiek kontu zehatza eman bieziaite beren nagusi, etxeko kontseilari eta tokiko Kapituluari, nagusi buruek erabakitako garai eta moduan.
 - 5 Hiru urteko txosten-ematea dela-ta, ministro probintzialek, definidoreek izenpetuko duten agirian eman bieziaite zinezko kontua ministro jeneralari probintziako ekonomiko egokeraz, bera, probintziak dituen premiei buruz eta pobretasuna gordetzeaz egokiro ardura dadin.
 - 6 Probintzial ordeak eta misioetako nagusiek eman bieziaite kontu bera beraien nagusi buruari, aholkulariek izenpeturik, erraz ahal bada.
 - 7 Ministro jeneralak jakin arazi beza Ordenaren ekonomiko egokera Kapitulo jeneralean, honek erabakiko duen moduan.
 - 8 Egin bezate gauza bera nagusi buruek beren Kapituluetan.
 - 9 Ahal delarik, utzi bedi sekularren esku ondasunen ardura, batipat, sozial edo erruki-egintzeena; holakoetan, anaiek izan bezate bakarrik zuzendaritza espirituala.
 - 10 Ondasun administrazioa egin bedi zehazki zuzenbide orokorraren arabera.
- 72.1 Probintzietan eta probintzi-ordekoetan ekonomiko gaiak erabiltzeko batzorde bat edo gehiago eratzea aholkatzen da, ondasun administrazioaz eta etxe eraikitzeaz, zaintzeaz eta besterentzeaz aholku eman dezaten.
 - 2 Kapituluari dagokio batzorde horiek sortzea eta beren eskumena erabakitzea. Hala ere, nagusi buruak, Kontseiluaren baietzaz, izendatzen ditu batzordekideak, alde batez sekularrak izan daitezkeenak.
- 73.1 Ministro jeneralak, definitorioren adostasunaz, erabaki beharko du zorrak egiteko, ondasunak besterentzeko eta ohi gabeko gastuak egiteko zer dirutzaren gain eskatu behar duten nagusi buruek Kontseiluaren adostasuna edo nagusiaren baimena, kontutan hartuz diruaren balore ezberdina eta nagusi-buruen aurre-eritzia, edo arazoak eskatuz, beren Konferentziena.

- 2 Aldatzekoak aldatuz, honela joka beza nagusi buruak, Kontseiluaren baietzaz, bere barrutian dituen tokiko nagusiei buruz.
 - 3 Ohi gabeko gastuak dira goi-nagusiaren kargurako eta anaien zerbitzu arruntarako beharrezko ez direnak; baina tokiko nagusiari buruz, bere esku duen anaiartearen zaintze arruntari ez dagokiona.
- 74.1 Pobretasun ebanjelikoa bizitzera deituak garenez gero, ohitu gaitzen urritasuna eramatera, Kristo bezala; eta gogora dezagun san Frantzisko, hain pobre nahi izan zuena, gabezi osoan eta bihotz lokarriak etenik, gutaz axola duen Aitaren besoetan ipini bait zuen erabat bere burua.
- 2 Eta ez dezagun sasi-pobre izan nahi, holakoak nahi bait dute pobre izan, ezeren hutsik ez izatekotan.
 - 3 Gogoan izan dezagun pobretasun ebanjelikoa, bere bete-betean eta oroz gaintetik, Jainkoagana eta gizakiengana erabat prest egotean datzala.
 - 4 Horregatik, ez gaituz lurreko ondasunetaz zaletu grina txarrez, horrela mundu honetako gauzetaz balia gaitzen baliatuko ez bagina bezala, Aitaren osperako eta bere haurren onurako.

BOSKARREN ATALBURUA

GURE LAN-MOLDEA

- 75.1 Etengabe lanean ari den Jainko Aitak dei egiten digu izadiaren hobekuntzan berarekin aritzera, halaber norberaren nortasuna garatzera grazia den lanaren bitartez; honela elkartzten gara gure anaiekin eta eragiten diogu gizartearen aurrerapenari.
 - 2 Jesukristok goitasun berri bat eman zion lanari eta salbazio orokorraren lanabes egin zuen, bai bere eskuz lan eginez eta gizakien beharaldia gozatuz, bai Aitaren mezua hotseginez.
 - 3 San Frantziskok bere anaiei eskatu zien lan egiteko zintzo eta debozioz, eta bere exenpluz gizakien bizimoldean honela parte hartuz lanak duen goitasunaren testigu gerta zitzaigun.
 - 4 Bere jarraitzaile zintzo garelarik, eta zinez txikienak garenez langile anitzekin berdinduz geure buruak, lotu gakizkion egunoro lanari pozik eta Jainkoaren osperako; aldegin dezagun alferkeriatik eta elkartasun espirituz zerbitzatu ditzagun anaia eta beste gizakiak.
- 76.1 Geuretzat lana da funtsezko bizipidea ta gizakiei karitatea egiteko aukera, batez ere, gure lanaren emaitza beraiekin banatzen dugun heinean.
 - 2 Anaia bakoitzaren lanak anaidi osoaren adierazpen izan behar du. Norberak erabil bitza pozik eta zabal-zabal bere kemenak, Jainkoagandik dituen gaitasunak, orobat adina eta osasuna, anaiartearen beharaldiak kontuan hartuz.
 - 3 Anaiek ez dute hartu behar lana oroz-gaineko helburutzat edo beragan ezarri neurrigabeko lehia, ezta ere arriskatu otoitz eta eraspen espiritua, honi lagun behar bait diote lurreko beste gauza guztiek.
 - 4 Honela, bada, uxa bezate heziera jarraikorra bera gal erazten duen gehiegizko lanerako garra.

- 77.1 Diren lan-motak era ezberdinetan egokitzen zaizkigu, norberaren trebetasun eta Jainkoaren dohain berezien arabera.
- 2 Har ditzagun ministeritza eta lanak gure anaidi bizierakin ados dauden heinean, bai ere Elizaren eta gizakien premien arabera.
 - 3 Pobretasuna, apaltasuna eta anaitasuna agertarazten dituzten jardunaldiak dagozkigu batez ere. Beraz ez da geuretzat bat bestea baino arbuia garriago den lanik.
 - 4 Eta geuretzat eta besteentzat lan dohaina emankorrako egitearren, saia gaiten bere elkartasuna zaintzen lan guztien artean, elkar laguntzeko prest taldeka arituz, horrela bihotz-berritze lanean ere aurrera egingo dugu.
 - 5 Bainan gure bokazio apostolikoa inoiz ahaztu gabe, izan gaitezen gizakientzat Kristoren testigu gure lan guztietan.
- 78.1 Ahalegindu bitez anaiak, bizitza guztian, beren espiritual, doktrinal eta tekniko heziera hobetzen, eta beren lanetan gaitasunak lantzen, gure Ordenak azaldu dezan Eliza barruan duen bokazioa. Horregatik, adimenezko ariketa, beste lanak bezala, pertsonak duen bizi-kemenaren adierazpen antzo hartu behar da.
- 2 Bestalde, Ordenaren lehenbiziko tradizioari jarraituz, anaiak prest egon bitez esku-lanetarako, karitateak zein obedientziak eskatzen duten heinean, nork bere lanbidea laga gabe.
 - 3 Nagusiek eman biezaizkie, eginahalean, anaiei berarizko prestaera lor dezaten aukera ta hortarako ahalbideak eta astia, kontutan hartuz bakoitzaren dohainak eta gaitasunak, eta anaiartearentzat eta Elizarentzat onuratsu izan daitekeenak.
 - 4 Elizaren, Ordenaren eta anaia beraien onerako, nagusiek lanbide ta karguak banatzean, begi eman biezaie anaiaren gaitasun eta trebetasunari; eta ez bitzate kendu erraz berariaz prestaturik dauden lanetatik.
- 79.1 Probintzien egokera ezberdina kontuan hartuz, arimen aldeko garra eta beren eta kanpokoan premiak arintzeko lehiak eskatzen duten heinean, anaiek lan dezakete kanpokoentzat ere, ministro probintzialak aholkularien baietzaz nahiz nagusi buruen batzarrak eta halaber tokiko gotzainak eman dituzten aginduen arabera.
- 2 Bainan etxetik kanpo lan egiten dutenen eta beste anaiekin bizi behar dutenen arteko batasuna kalterik gabe gordetzekotan.

- 3 Eman bezate guztien aurrean testigantza ebanjelikoa ta agirian ezarri Kristoren maitatzea; lagundu ere bai behartsuei, baina gure bizierakin elkartu ezin diren hartu-emanetan zentzugabekeriak esku hartu gabe.
- 80.1 Anaiek eskuratzen duten lan-sari oro anaiartearena da, ta beraz nagusiari eman behar zaio osorik. Eta ez bedi neurtu anaien lana eskuratzen duten lan-sariaren arabera.
- 2 Bestalde, anaiek ez bitez lotu irabazi-nahia ta haundikeria sortarazi ditzaketen jardunei, pobretasun espiritu eta apaltasunaren kontrakoak bait dira.
- 3 Aldiz, beti prest egon behar dute lan egitera ordaintzarik gabe, karitateak eskatu edo aholkatzen duenean.
- 81.1 Anaiek izan bezate egunoro beren jolas-aldia, anai elkartasuna bizkortu eta kemenak berreskuratzeko; eta eman biezaie astialdia berentzat.
- 2 Eman biezaizkie jolas-aldi berezi eta atsedean aldiak, herrialdeen ohitura eta ahalbideen arabera; jolas eta atsedean aldi hoek anaia txikiei dagokien bizierakin ados izango dira.
- 82.1 Paulo apostoluak aditzera ematen digu: "Aukera dugularik on egin dezagun guztien alde".
- 2 Beraz, gure salbazioa berriz etorriko ez den aldi egokian dagoela jakinik, eta gizakiek eta anaiarteek ez dutela aurrera egiten denbora etorri hala baizik, erantzun diezaiogun arduraz honela denboraldian bidera datorkigun Jainkoari.
- 3 Garaia ez galtzeko eta alferrik ez eralgitzeko, gure ariketak eta eginbeharrak beude ados oraingo aldien eskakizunekin, geroaldiari zentzuz eta ongi asmatuz begira, gaurreguneko tekniko bideak baztertu gabe.
- 4 Astia eralgi dezagun fisiko eta espiritual lan egokietan; eta hori ongi datorke, batez ere, era egokien bidez gure aldiko jendeen pentsamoldea ta erizkera gero ta hobekiago jakiteko denboraz baliatzen bagara, horrela gure lanaren bidez, munduan kristau espiritua sorterazteko lankide eragileago gerta gaitezen.

SEIGARREN ATALBURUA

GURE ANAIARTEKO BIZIERA

- 83.1 Jesukristok, senide askoren artean lehensemeak, gizadi osoakin benetako anaiarte bat eratzen du.
 - 2 Bera dago, bere izenean biltzen direnen erdian batasun lokarri antzo.
 - 3 Fededun guztien elkartea den Elizak aldeztu ditu biziera ta karitatezko batasunean bizitzeko harremanen kide-sustatzaileak dituzten instituzioak.
 - 4 Honela, garatzen da askatasunean ez bakarrik Jainko-seeen gizarduntasuna, baizik eta areagotzen da apostoliko eragina.
 - 5 San Frantziskok, jainkozko argiz sorterazi zuen ebanjeliko biziera bat, eta eman zion anaiarte izena, Kristoren eta bere ikasleen bizieraren antzera.
 - 6 Horregatik, biziera honerako zin-hitza emanik, anaien benetako Ordena eratzen dugu.
 - 7 Horrela, Jainko gure Aitarekin sinesmenez elkarturik eta Jainko hitzaren eta Eukaristiaren mahaian elikaturik, elkar maite dugu, munduak Kristoren ikasletzat ezagun ahal gaitzan moduan.

I-go Atala: Anai biziera sustatzeaz

- 84.1 Jaunagan elkarturik senide antzo, dohain bereziaz jantzirik izanda ere, maita dezagun elkar bihotzez. Horregatik, nonnahi Jesusen izenean bilduta gaudelarik, gaitezen bihotz bat eta arima bat, etengabe gora eginik hobekuntza beteagora; eta Kristoren egiazko ikasle garenez, maita dezagun elkar bihotz-bihotzez bata bestearen akatsak eramanez, eta Jainko ta anai maitatzean etengabe arituz, emaiogun exenplu ona elkarri eta beste denei, geure grina txar eta joera bekatuzkoak menderatuz.
 - 2 Elkarriketaren bidez jakinazi behar ditugu uste onez gure

- esperientziak, eta adierazi gure beharrak. Gainera, bizikide espiritua ta benetako abegia jabetu bitez orotaz.
- 3 Bokazio bera dela-ta, anaia berdinak egiten gara. Horregatik, Erregla, Testamentu eta kaputxino lehen ohituraren arabera, deitu gaitezen orok, bereizkeriarik gabe, anaiak.
 - 4 Anaiartearen zerbitzurako beharrezko den lehentasuna anaiek dauzkaten kargu eta ofiziotik dator.
 - 5 Bestalde, Ordenako, probintziako eta toki-anaiarteko edozein ofizio eta zerbitzurako hautagai dira anaia guztiak, baina ez apaizgintza beharrezko den haietarako.
 - 6 Lagun bezate elkar guztiak, beren dohainen arabera, baita gure etxeetan egunoroko zerbitzuetan ere.
- 85.1** Adin ezberdintasuna gure anaiarteetan bedi batasun eta elkartasunaren osagarri.
- 2 Adin haundikoei adieraz biezaizkie maitatze ta esker-erakutsiak.
 - 3 Gazteek izan biezaie begirune handia adineko anaiei eta ikas beraien esperientziatik.
 - 4 Urtetsuek, aldiz, onar bitzate biziera ta lan tankera berri eta onak; eta elkar bana bitzate beren dohainak.
- 86.1** Anaien bat gaixotu balitz, nagusiak eskura biezaio berehala, anaimaitez, arimari eta gorputzari beharrezko zaion guztia, san Frantziskoren eredu eta eskariaren arabera; eta beza eria utzi anaia trebe baten ardurapean eta, beharrezkoan, sendagilenean.
- 2 Etxe bakoitzak izango du toki berezian eritegia bat, bai klausuratik kanpo ere, beharrezko delarik.
 - 3 Egoki dela uste duten probintzietan, eraiki bedi eritegi probintzial bat.
 - 4 Gaixoagan Kristo oinazetua begiraturaz, pentsa bezate anaiek haren lekuan izanik beraiei zer egitea nahi luketen, eta gogora bezate san Frantziskok Erreglan idatzita utzi zuena, ez dela bere semeganako hain samur eta bihotz-oneko amarik gu anaia espiritualganako izan behar garen hainbatekorik.
 - 5 Beraz, zaindu beza bakoitzak eri dagoen anaia, atseginez agertua egin biezaio eta anaikiro pozarazi.

- 6 Nagusiak ikus bitza maiz eta anaikiro bere eriak eta espiritualki susperrerazi berak edo beste norbaiten bidez; eta gaitza balitz arriskutxua, esan biezaio zentzuz gaixoari eta prestatu sakramentuak hartzeko.
- 87.1 Anaia eriek ez bezate ahaztu anaia txiki garena.
- 2 Utzi bezate sendagile eta gaixozainen esku beren buruen ardura, pobrezia ez haustearren arimen kalteaz, eta eskertu bezate Jainkoa guztiagatik.
 - 3 Gogora bezate eriek, beren oinazeak gogo onez eramanez, Kristo oinazetuaren iduri beteagoak izatera deituak direla bokazioari jarraituz, eta ardura bitez Kristoren atsekabeak zerbait sentitzen; orobat san Frantziskok bezala, gores bezate Jainkoa, bere maitez, oinazeak eta ezbeharrak egoarri eramaten dituzten gaixoengatik. Gogora bezate, halaber, beren gorputzean Kristoren atsekabeei falta zaiena osoturik, Jainko herriaren salbazioari, mundu osoaren ebanjelizatzeari eta anaia arteko bizitzari laguntzen dietela.
- 88.1 Nagusiek susta bezate etengabe elkarrekiko biziera.
- 2 Anaiarteak osotzean, gure etxeetan nahiz alogeratuetan, begira bitzate anaien aiurria ta bizitzaren eta apostolutzaren beharrak, honela talde lana indartuz.
 - 3 Famili-harremanak gordetzearen, arautu bedi zuhurki eta zentzuz gure etxeetan eta egoitzetan arrotzen harrera, bamekoi, otoitz eta ikaste giroa kalte gabe gerta dadin.
 - 4 Erlijioso biziera babestearren, zaindu bedi klausura edo toki berezi bat gure etxeetan.
 - 5 Bainan, arrazoin bereziak direla-ta klausura gorde ezin daiteken etxean, nagusi buruak bere Kontseiluaren adostasunaz, arautuko du arazoa etxearen ingurugiroa gogoan hartuz.
 - 6 Nagusi buruari dagokio klausuraren mugak ezartzea, lege-bidez aldatzea eta aldi baterako kentzea.
 - 7 Premiazko aldietan eta behin-behingoaz, tokiko nagusiak kendu dezake klausura.
 - 8 Otoitz eta ikaste giroak eskatzen duen bake-ingurua gordetzearen, xaloki, zentzuz eta abegi onaren arauz eratuko diren mintzatokietan hartuko dira arrunki gure etxetara datozenak.

- 89.1 Bestalde, gure anaiarteek ez dute karitatea mugatu behar etxe barrukoetara soilik, baizik eta, zabal bitez ebanjeliko arretaz gizakien beharretara, etxe bakoitzaren egokera kontutan hartuz.
- 2 Anaiarte batetan har daitezke gure biziera barneagotik bizi nahi duten laikoak, hala gure otoiitzean nola elkar maitasunean edo apostolutzan partekide izan nahi badute.
 - 3 Holakoak hartzeko denboraldi labur baterako, nahikoa da tokiko Kapituluaren baietza; baina luzarorako badatoz, beharrezko da nagusi buruaren baietza ere.
 - 4 Nagusi buruak har ditzake bere Kontseiluaren baietzaz, sendikotzat bezala bizi guzirako beren buruak Jainkoari eskaini dizkieten laikoak, elkar betebehar eta eskubideei buruz aurretik hitz-hartuz.
- 90.1 Anaiarte berak, guztien baietzaz eta nagusiaren zuzendaritzapean, zaindu bitza etxeko sozial komunikabideak, guztien onerako eta ekintzetarako zerbi ditzaten, eta bide batez, pobretasuna, otoiitz giroa, anai-biziera ta lanaldia gordetzeko moduan.
- 2 Sozial komunikabideak erabiltzean, hauta bitez berak neurritz eta erizpide helduaz; eta baztertu bedi axola handiz fede, moral eta erlijioso bizieraren kontrako dena.
 - 3 Anaiek, batipat nagusiek, jakinazi bitzate, ongien deritzaien bidez, anaidien, probintzien eta Ordenaren gertaera nabarmenenak.
- 91.1 Etxetik irtetzean, eska biezaiote anaiek baimena nagusiari, probintziako ohituraren arabera.
- 2 Bidaiei buruz, anaia bakoitzak baimena eskatu aurretik, azter bitza bere barnean bidaiaren arrazoinak, kontuan hartuz gure pobretasuna, espiritual eta anai-biziera eta herriari eman behar zaion testigutza.
 - 3 Nagusiek bidai baimena ematekoan joka bezate zuhur. Ministro jeneralari, definitorioren adostasunaz, dagokio Ordena guzirako bidai baimena arautzea, eta ministro Probintzialari, bere definitorioren baietzaz, bere probintziarako.
 - 4 Anaiartearen etxeetatik kanpo diren egotaldi luzeei buruz, bete bitez zuzenbide arruntaren arauak.
 - 5 Ibilbideak erabiltzean, gogora bezate anaiek gure pobretasun eta apaltasun biziera.

- 6 Ministro probintzialari dagokio, definitორი entzun ondoren, anaien ministeritza, lanbide eta anaiartearen zerbitzuari begira, kotxeak edukitzea bidezko ote den erabakitzea eta beroien erabilera arautzea.
- 92.1 Har ditzagun anai-karitatez eta pozik gure etxeetara datozen anaia guztiak.
- 2 Ahal izanik, anaia bidazteik jo bezate gogo onez Ordenaren etxeetara, gualdirako bederen.
- 3 Beren oldez, aurkez biezaiote nagusiari bidai-baimena, eta esku har bezate anaiartearen bizieran, tokiko ohituretara doakienez.
- 4 Eta, ahal denean, egoki da iristeko ordua garaiz nagusiari jakin eraztea.
- 5 Beste probintzietara, heziera dela edo beste arrazoinagatik doazenak onar bitzate nagusiek eta tokiko anaiarteek bertakoak baitliren; eta beraiek bertakotu bitez osorik anaiartean, Konstituzioen 113,5 zenbakian agindua kontuan hartuz.
- 6 Beste probintziako etxe batetan anaiek aldi baterako egon behar dutenean beren ikasketak direla-ta, norberen nagusi buruek antola bezate anaikero ostatu-sariari buruzkoa.
- 93.1 Zer-nola bereziak direla-ta, obedientziaz horniturik komentutik kanpo bizitzera behartuak dauden anaiek parte har bezate, besteek bezala, ezarriak dauden anaiartearen onuraetan.
- 2 Ager bitez anaiarteko bizikide bezala, eta beren aldetik lagun biezaio Ordenari bere espiritual eta material hobetzean.
- 3 Frantziskotar zinezko anaiak direnez gero, betoz gure etxeetara eta atsegindu denboraldi batez, batez ere espirituaren bildutasuna dela bide.
- 4 Onartuak izan bitez ongi-nahiez gure etxeetan eta eskura biezaie arimarentzat eta gorputzarentzat behar dutena.
- 5 Probintzialek eta tokiko nagusiek lagun bitzate anaikero, beraiei ikustaldiak ere egin eta bihotz eman.
- 6 Nagusi buruek zuzen eta ebanjeliko maitasunez joka bezate mundura itzultzen diren anaiekin.
- 94.1 Elizaren onerako, Jainkoak hala nahi-ta, hainbat erlijioso familia

- ezberdin sortu zen bezala, berehorixe gertatu da espirituz bakarra den frantziskotar familian; horrela san Frantziskok zuen karismak, munduan edaturik, zabaltzen du bere eragipena hainbeste anaia eta arreben bidez, Laiko Ordena barne.
- 2 Bizi gaitezen, beraz, espiritu beraren anai-batasunean eta susta dezagun gogo onez, gure ikaskizun eta egitamuen bidez, frantziskotar biziera eta ekintzaren aldeko elkar lana.
 - 3 Bizkor dezagun elkartasun berezi bat kontenplari arrebeekin, eskaintzen bait dute egunoro gorespen bat, barne biziera Jainkoarekin bakardade ta ixiltasunean eramaten saia eta Eliza harrigarritzko yoritasun apostoliko baten bidez zabaltzen bait dute. Klarisa kaputxinaen monastegi bat gurekin elkartzea eratu behar denean, 614 ta hurrengo kanonen arabera, ministro jeneralak, nagusi gorenari entzun ondoren, erabakia hartuko du definitoriok in batera. Elkartu den monastegiren egiazko agintaritzta du nagusi gorengoak, erlijiosoen Konstituzioek dioetena kontutan hartuz. Era berean, elkarturik gaude, senide-maitasunaz, gure Ordenakin espiritualki loturik dauden instituto erlijiosoekin.
 - 4 Gorde dezagun lotsazko eta sendi maitasuna guraso, ahaide, ongiegile, laguntzaile eta espiritualki gure familiakoak diren guztiekin; gogora ditzagun guztiak Jainkoaren aurrean gure otoitzetan.
- 95.1** Orobat, frantziskotar Familian leku berezi bat dauka Anaiarte edo Frantziskotar Sekular Ordenak; berak parte hartzen du eta eragiten frantziskotar espiritu jatorrari eta beharrezkotzat eduki behar da frantziskotar karismaren betetasunerako.
- 2 Berehorretan, anai-arrebek Espiritu Santuak eraginik, goimatasuna bere betean lortzeari lotzen dira sekular mailan, Ebanjelioa bizitzeko san Frantziskok bezala profesia eginik.
 - 3 Frantziskotar Sekular Ordena gure Ordenakin elkarturik dago bere sorrera, kondaira eta biziera direla-ta, eta Erromako Aulki Santuak gure zainpean ezarri du.
 - 4 Horregatik, axola bitez anaiek biziki Sekular Ordenakoei anai-zentzu jatorra ematen, beren exenpluz ebanjeliko bizierarekiko zintzotasuna bizkortzen eta Ordena hori sekular apaiz eta laikoan artean sustatzen.

- 5 Gure nagusiek ba-dute ahalmen Sekular Frantziskotar Ordena gure etxe denetan sorterazteko, orobat beste lekuetan zuzenbide arauak gordez. Zaindu bezate ardura handiz gure anaiarte eta Sekular Ordenakoen arteko bizizko elkartasuna.
 - 6 Ahalegindu bitez nagusiek, beste frantziskotar Familiekin batera, Sekular Anaiarteari espiritual eta pastoralki laguntzen, beren legeen eta zuzenbide arruntaren arabera, batez ere, ministeritza hortarako bereziki prestatu diren anaia trebeen bitartez.
 - 7 Anaiek eman biezaiote gogo onez espiritual laguntza Ordena honi. Sekularrak direla jakinik, ez bitez nahasi beren barruko araubidean, zuzenbideak esanekoetan izan ezik.
 - 8 Gure arteko elkartasunak eskatzen duenez, asistenteak izendatu edo anaiarte berriak ezartzekoan, eska biezaio eritzia dagokien Sekular Ordenako zuzendaritzari.
 - 9 Era berean, eragin eta eman biezaie espiritual laguntza san Frantziskoren bizimoldea bizierazi nahi duten elkarte guztiei, batipat gazteenei. Gure etxeak bihur bitez Kristori san Frantziskoren gidaritzapean jarraitu nahi dioten guztien biltoki, beraietan bildu daitezen anaigirotan guztiak, nahiz eliz-gizon nahiz sekular izan.
- 96.1 Lurrean arrotz izan zen Kristo berak azken auzian bere eskuinekoie esango die: "Arrotz nintzen eta etxean hartu ninduzuen".
 - 2 Eta san Frantziskok ere nahi zuen har genitzan begi onez gure etxeetara zetozten guztiak; beraz, har ditzagun maitetsuki guztiak, batipat nahigabetu eta dohakabeak, eta lagundu beren beharretan.
 - 3 Abegi on-ona egingo zaie, herrialdeen gora-beheren arabera, gure etxeetan ostatu eman diezaiekeenei, batez ere apaiz eta erlijiosoei.

II-gn Atala: Anaien biziera munduan

- 97.1 Mundua ezerezetik sortu eta birrerosiak pozten zuen biziki gure Aita san Frantzisko, eta anaitasun lokarriaz loturik ikusten zuen bere burua ez gizakiekin soilik, baita ere sorkari guztiekin, berberak anaia Eguzkiaren eresian hain harrigarriro oihukatu zuenez.
 - 2 Bururakizun honen argipean, mirets eta babes ditzagun izadi-lanak, beraien hasiera ta azkena Kristo bait da; beraien zientzi-ikertzapenak nabariago jartzen dituzte lan horiek eta eramaten

- gaituzte jakinduria ta ahalmena den Aita gurtzera.
- 3 Aintzat eduki dezagun egindako gauzetatik jakintsunek lordutena, batipat, Jainko dohainak agerian ipintzen dituzten kultural eta antzelanetan.
 - 4 Ikus dezagun, gainera, Kristoren misterioan gizakien mundua, Jainkoak hain maite izan zuena, non bere Seme bakarra eman zion.
 - 5 Bada, bere bekatuak ugari izan arren, ba-ditu ezin arbuia daitezkeen alde baliozkoak eta hornitzen ditu harri biziak Jainkoaren etxea den Eliza eraikitzeko.
- 98.1** San Frantziskok, Jainkoak argituta, jakin zuen gizakiak eraberritzera bidalia zela biziera berri baten bidez.
- 2 Horregatik, ebanjeliko bizi berri bat sortu zuenez gero, eta mundukoa ez izan arren bertan gelditu zenez gero, nahi izan zuen bere Anaiartearen ere gizakien artean bizi eta ari zedila, ebanjeliko bihotzberritze-mezu alaiaren testigantza emateko hitzez eta egitez.
 - 3 Hori dela-ta, gu ere bere jarraitzaile garenez, bizi gaitzezen ebanjeliko orantza gisa, munduan gizakiek gure anai-biziera, zorientasunen espirituz eratua ikusiz, kontura daitezzen Jainko Erreinuaren hasi dela beren artean.
 - 4 Honela, biziko gara munduan Jainko bizia zerbitzatzeko, eta karitate, apaltasun eta frantziskotar alaitasunaren bidez susta egingo ditugu munduaren eta Elizaren onurako bakea ta ona.
- 99.1** San Frantziskoren espirituaren arabera, aldarrikatu ditzagun bakea ta salbamera, hitzez ez ezik, baita ere anai-maitasunak egin erazten dituen egintzen bidez edatuz.
- 2 Espiritu honek eraginik, saia gaitzezen bakezko eta iraunkor elkartasuna sortera zuten gorrotoak, bekaizkeriak, aurkako eritziak, eta gizamaile, enda ta herri borrokak zatitzen dituzten artean.
 - 3 Hortarako, bateratu ditzagun gure anaiarteak dituen ahalmenak nazio eta nazioarteko ekin-bide ta instituzioekin, behar den eraz, batasunaren, zuzentasun orokorraren eta bakearen alde.
- 100.1** Oroz gain, uste osoa Aitaren arduran ezarriaz, goazen munduan baina frantziskotar alaitasun eta itxaropenez beterik, ondorioz gehitu egingo bait dugu geure garaiko jendeen uste ona.

- 2 Mundu honen kezka ezdeusak aldentu-ta jainkozko arduraren gisa, pobreen aldeko gure betebeharez jabetu behar dugu, eta jarri ditzagun behartsuen esku anaiartearen zerbitzu eta ondasunak, batez ere, zorigaitz orokorrean.
- 3 Izan ere, guk anaia behartsuen ondoan, eta batipat, erien hurbil egon behar dugu, gure anai-zerbitzua emateko bihotzez beti prest, san Frantzisko errukiz beterik pobreen alde, eta Anaidi kaputxinoaren eragileek izurridunen alde bezala.
- 4 Jainkoaren ardura nabari egiten zaie gizakiei, ez gertakizun eta ekintzen bidez bakarrik, baita ere garaien ezaupidetzat jotzen diren pentsamolde eta ideien bidez; horregatik, begira behar ditugu espiritu zabal eta uste on osoz beraiek, horrela Jainko lanaren laguntzaile eta lankide gerta gaitezen munduaren kondairan eta gizartearen aurrerabidean.
- 5 Horrela, egiazki maitatuz, gure Jainkoagan dugun itxaropenaren lekuko izango gara eta gogo oneko gizakiekin lankide, eta horiek, guztiahaldun eta on bera den Aita Jainkoa gorai pa eraziko ditugu.

ZAZPIGARREN ATALBURUA

ANAIEN PENITENTZI BIZIERA

- 101.1 Jesukristok, Erreinuaren Ebanjelioa hotsegitean, dei egin zien gizakiei penitentzia egitera, hots, erabat eraberritzera, bide horretaz hasten bait dira Semeagan disdiratu zuten Jainkoaren santutasun eta maitatzearen modura pentsatzen, eritzi ematen eta biziera moldatzen.
- 2 Fedean eta bataioan hasiera duen bihotzberritze honek geure buruari gero ta gehiago uko egitera daraman etengabeko ekintza eskatzen du. Jainkoarentzat bakarrik biziz, gizakiekin lotura berriez loturik, batez ere, pobreekin, penitentziaren bidez azkartzen gara ebanjeliko anaiartearen eraikitzeke.
- 3 San Frantziskok, Jaunaren laguntzaz, bere penitentzi-bizierari hasiera eman zion legenardunen alde errukitsu izanez eta orduan alde egin zuen mundutik.
- 4 Pozik eta bihotz beroz, Ebanjelioko zorientasunen arauz eratu zuen bere bizitza, eta aspertu gabe hotsegin zuen penitentzia, gizakiei eraginez hitzez eta egintzez Kristoren gurutzea eramatera, eta bere anaiak penitentzi-egile izatea nahi izan zuen.
- 5 Penitentzi-espiritua, biziera latz baten bidez, gure Ordenaren berarizkoa da; Kristo eta san Frantzisko eredutzat egiazki harturik, bizi estua hautatu bait dugu.
- 6 Espiritu horren eragipenez eta gure baitan bai ere gizartean dagoela bekatua aitortuz, saia gaitezen etengabe geure ta besteen onbideratze lanean, Kristo gurutziltzatu eta biztuari geure buruak antzeratuz.
- 7 Ekintza horretaz, Kristoren atsekabeei falta zaiena osoturik, Eliza beti santu eta, bide batez, garbitasun beharrez dagoenaren lankide gara, eta gizadia maitasun betean elkartuko duen Jainko Erreinuaren etorrera sustatzen dugu.

- 102.1** Penitentzia, aldaketa ta onbideratze baten ezaupide delarik, gure egunoroko bizitzan agirian azaldu behar den bihotz-jarrera da.
- 2 Penitenti-egile den frantziskotar anaia, bere bihotz maitasunaz eta alaitasunaz nabarmendu behar da, bere buruekin latz baina gainerakoekin ontasun eta gozamenaz beteak ziren gure santuen antzera.
 - 3 On-bihurtze ta eraberritze asmoz, egin ditzagun penitenti egintzak, Erregla, Konstituzioen eta Jaunak argi egiten digunaren arauz, Kristoren bazko-misterioa gero ta gehiago gure baitan ari dadin.
 - 4 Gogora dezagun, oroz gain, Jainkoari emana den gure biziera bera, penitentzia bikaina dela.
 - 5 Horregatik, eskaini ditzagun, gure eta besteen salbaziorako, gure pobretasuna, apaltasuna, bizi-nekeak, egunoroko lanak, Jainkoa ta lagunhurkoa zerbitzatzeko lehia, anai hartu-emanetan bizitzea, eritasun eta adinaren ajeak eta orobat Jainko Erreinuagatik datozkigun erasoak; sufritzen dutenekin sufrituz, Kristoren antzeko izateaz beti poztzen garelarik.
 - 6 Jarrai diezaiogun san Frantziskoren onbihurtze bideari, batipat gure garaietan laguntza gabe ta bazterturik daudenen bila ibiliz.
- 103.1** Guztion eredu Jesukristok bere Aitaren mandatua hartu eta Espiritu Santuak eramanik, basamortuan berrogei egun eta berrogei gauz barau egin zuen; eta bere ikasle san Frantzisko ere, Jaunaren antzeko izatea irrikatuz, barau eta otoitz eginez bizi izan zen.
- 2 Begira dezagun bakar eta elkar-arteke penitenti latzena egiteko garaiak direla Abendua eta, batipat, Garizuma eta ostiral guztiak.
 - 3 Halaber gomendatzen dira "bedeinkatua" deritzaion garizuma eta san Frantziskoren eta Andre Mariaren Sortzez Garbiaren jai-bezperak.
 - 4 Egun horietan onbideratzeak lagungarri dituenetan ari behar gara gogotik: otoitzean, barne-bildutasunean, Jaunaren hitza entzuten, gorputz-hilduratzen eta anaidi-harauan. Eta bana dezagun neurrieraz eta anaikiro beste pobreekin Jaunaren mahaitik datorkiguna, eta ihardun gaitezen gartsuago erruki-egintzetan, gure tradizioaren arabera.
 - 5 Haratuzte ta baraei buruz, bete bitzate anaiek Eliza orokorraren eta tokikoaren arauak.

- 6 Probintzial Kapituluari dagokio barau eta haratuzte egunak eta nola barau egin zehaztatzea, tokiko eta garaien zer-nolakoak kontuan hartuz.
- 104.1 Jesuen nekaldia gogoratuz eta san Frantzisko eta gure anaia santuei jarraituz, bedi gure biziera neurritsu eta xalo, pobreei dagokienez, zinez jokatzu Ebanjelioaren arabera. Egin dezagun baita ere borondatezco hildura jan-edanetan, halaber jai-leku eta beste jostaldietan gogo onez neurritsu jokatzu.
- 2 Gauzak hornitzean, batez ere orientzat, nagusiek gogoan bezate maitasun agindua ta san Frantziskok erakutsia.
- 105.1 Norbere eta besteen bekatuetaz bihotz-damuturik eta bizi berri batean abia nahirik, ari gaitzen damu-egintzetan; hoek, ordea, izan behar dute herrialde ta garaien pentsamolde ezberdinari dagokionez.
- 2 Zehazki, aholkatzen dira Jesusek erakutsi zuen anai-zentzaraztea, Ebanjelioko argitan anaien elkarrizketa beren bizieraz, beste ebanjeliko damu-egintzetaz, bereziki, fraile elkartearenak direnei buruz.
- 3 Probintzial kapituluek, herrialdeko zer-nolak kontuan hartuz, eman bitzate arau bidezkoak elkarrekiko damu-egintza hauei eta bestelakoei buruz.
- 106.1 Aitortza eta adiskidetze sakramentuan garbitu eta era-berritzen dira anaiak ez ezik, baita ere anaiarte bera, Salbatzailearekiko batasuna berriztatuz eta, bide batez, Elizakin adiskidetzuz.
- 2 Gainera, sakramentu honen bidez Kristoren heriotze eta biztueraren onura geureganatuz, parte hartzen dugu bamekiago Eukaristian eta Elizaren misterioan.
- 3 Elizaren sakramentuen bidez garbiturik eta eraberriturik, frantziskotar-kaputxino biziera egunoro hobetzen dugu.
- 4 Har dezagun biziki ontzat gure bekatuak maiz aitortzea, egunoro gure kontzientzia aztertzea eta arimaren zuzenbidea. Orobat, gomendatzen da elkarren arteko penitentziaren ospakizuna.
- 107.1 Gotzainaz beste, anaien aitortzak entzuteko eskubide eman dezake nagusi buruak, eta aldi berezietan, behin-behingo, tokiko nagusiak, apaiza ba-da.

- 2 Ordenako apaiz oro, nagusi buruaren baiezenarekin, anaiei aitortzen entzule izan daiteke mundu guztian.
 - 3 Anaiek aitor diezaizkionete aukeran beren bekatuak Gotzainagandik eskubide duen edozein apaizari.
 - 4 Gogoan bezate aitorleek san Frantziskoren esortazioa; ez daitezela haserre edo beren onetik atera norbaiten bekatua dela-ta, baizik har dezatela Jainkoagan bihotz onez.
- 108.1** Elkar maitatuz Kristok maite izan gaituen bezala, ez dezagun arbiatu arriskuan dagoen anaia, baizik eta arreta handiz lagun dezagun; bekatu egin baleza, babes dezagun bere ospea zainduz, ez gakizkion haren epaile, eta areago maite dezagun, gogoan izanik guretako normahi hutsegite handiagoen errudun litzatekela, Jainkoak onginahiez bere eskua luzatuko ezpaligu.
- 2 Bestalde, prest egon behar dute nagusiek, aita-maitez, bekatu egin edo arriskuan dauden anaiei aukerako laguntza eta eragilea emateko, baina zuzenbide orokorraren arabera.
 - 3 Ez bezate ezarri zigorrik, batez ere, kanonikorik, hortara behartuak ez badira behintzat besterik ezinean, eta jakina, orduan maitasun osoz eta zuhurki.
 - 4 Gogora bitzate beti san Frantziskoren hitzak ministro bati idatziz: "Honetan ikasi nahi dut Jainkoa eta ni, bere ta zure morroi hau maite gaituzun, hots: iristen baduzu ez dadila munduan anairik, bekatari handia izanik ere, zugandik behinere alde egingo duenik zure begiak ikusi-ta zure errukia lortu gabe, bere bila badabil; eta bila ez badabil, galde egiozu nahi duen. Eta gero mila bider ager baledi zure aurrean, maita ezazu ni baino gehiago, Jainkoarentzat bera irabaztearren".

ZORTZIGARREN ATALBURUA

ORDENAREN EDO ANAIARTEAREN GOBERNUA

- 109.1 Gure anaiarte, Espiritu Santuak zuzendurik, gorpuzki bizi da Kristoren Gorputz mistikoan, berehortan Kristorekin elkartuta jarraituz Elizaren eraikitzaile bezala zenbait lanbide ta ministeritzen bidez parte hartzen duelarik.
- 2 Beraz, anaiek, beren dohain eta bokazioaren arabera, Elizaren eta anaiartearen onerako aritzera behartuak sentitzen dira, Kristoren misteriori erabat lotu dakizkion.
- 3 Gure Ordenaren batasun espitua eta agirikoa areagotzearen, Kapituluak eta nagusiak anaien elkartasunaren alde ari dira eta, espirituz zerbitzari direnez gero, Elizaren bidez Jainkoagandik datozkien ofizio eta karguetan dihardute.

I-go Atala: Ordenaren antolamendua

- 110.1 Gure Ordena edo Anaiarte, gobemamenduaren aldetik, probintzia, probintziorde, kustodi eta etxe edo tokiko anaiarteetan antolatzen da; hauek bakoitza egiazko anaiarte bat da.
- 2 Probintzia osatzen dute anaiek eta tokiko anaiarteek beren lurraldean, ministro probintziala buru dutelarik.
- 3 Probintziordea Ordenaren zati bat da, bere lurraldea duelarik, probintzia baten edo, tartekorik gabe, ministro jeneral beraren zainpean dagoena, probintzial-ordekoa duela buru, ministro probintzial edo jeneralaren bikario bezala.
- 4 Kustodia edo misioa osatzen dute lurralde batean misio-lanean ari eta probintzia baten mende dauden anaiek; nagusi "regular" bat dute beren buru, ministro probintzialaren bikario delarik.
- 5 Tokiko anaiarte edo etxea osatzen dute gutxienez hiru anai profesatuek, tokiko nagusia buru edo goardiano dutela.
- 6 Ministro jeneralak definitorearen adostazunaz, ezarri dezake etxe

edo anaiarte bat bere mende, tartekorik gabe; etxe honek, beharrezko izanik, izan beza araudi berezia.

- 7 Konstituzio hauek probintzietaz diotenak, probintziorde eta kustodientzat balio bera du, baldin gaiak, pasarteak edo inguruek besterik eskatzen ez badute.

111.1 Ministro jeneralari dagokio, bere definitorioren adostasunaz, herrialdeko nagusi buruen batzarrei eta doakien ministro probintzialesi eta definitorioei entzun ondoren, probintziak eraikitzea, batutzea, banatzea, aldaketak egitea eta kentzea, zuzenbidearen arabera.

- 2 Orobat, zer-nola berezietan, ministro jeneralak definitorioren baietzaz, eraiki ditzake herrialde ezberdinekin osatutako probintziak; araudi berezia izango dute, ministro jeneralak definitorioren adostasunaz ontzat emana.

- 3 Probintzia berri bat anaiek eratu ahal dezaten beharrezko dira, tokien gora-beherak kontuan hartuz, anaien nahiko kopurua, apostolu testigutza ematea, Ordenaren bizitzaren sustatzaile izatea eta halako batasun geografiko bat edukitzea.

- 4 Ministro jeneralak definitorioren adostasunaz, izendatzen ditu barrutietako nagusi buru eta definidoreak, anaia profesia nagusikoen eritzia jaso ezker, eta lehenengo kapitulua nola eratuko den erabakitzen du.

112.1 Kapituluaren baietzaz, ministro probintzialari bere definitorioren adostasuna izanik, dagokio etxeak eraikitzea eliz-araudiaren arabera.

- 2 Ministro jeneralari definitorioren baietzaz dagokio etxeak uztea, anaia arduradunen eskari berarizkoa dela-ta, aurreko atalean agindua betez, edo beste arrazoin bategatik, zuzenbidearen arauak gordez.

- 3 Premiazko denean, Kapitulua probintzialaren baietza ez da beharrezko, baina etxe bat eraikitzeko beharrezko da definitorio probintzialaren adostasunaz gainera, ministro jeneral eta bere definitoriorena.

113.1 Profesaren bidez Ordenan hartuak izan diren anaia guztiak, nagusi buruak hartu dituen probintzian, probintziordean edo kustodian sarreraziak dira.

- 2 Anaiartean aintzintasuna profesia-egunean hasten da.

- 3 Ministro jeneralari dagokio, bere definitoriari entzun ondoren,

probintzia batetik bestera anaiak bidaltzea, kontutan hartuz Ordenaren onura eta probintziaren nahiz anaia bakoitzaren beharrak, eta doakien ministro probintzial eta beren definitoriari entzun ondoan; anaia bat beste probintziakoa erabat egitekotan, ministro jeneralak bere definitorioren adostasuna izan behar du.

- 4 Probintzial nagusiek, elkarri laguntzearen anaikero, prest egon bitez behar horiei irtenbide emateko beren anaiak bidali az aldi baterako beste probintzietara.
- 5 Anaia bakoitzak Ordenako esparru batetan bakarrik ditu botu eskubideak, ofizioaren arrazoinagatik beste alde batetan ere ez badagozkio. Beste herrialde batetara zerbitzua dela-ta bidaliak eskubideak bertan ditu, ez berean. Baina bere ez duen herrialdean dagoenak beste arrazoinak direla bide, bere esparruan bakarrik ditu eskubideak.

II-gn Atala: Nagusiak eta karguak oro har

- 114.1 Aita Santuaren aginte gorenekoaren mendean, Ordenaren nagusi dira beren ohizko ahalmenekin: ministro jenerala Ordena guztian, ministro probintziala bere probintzian eta tokiko nagusia bere anaiartean.
 - 2 Ordezko ahalmen ohizkoa duten nagusiak dira: bikario jenerala, bikario probintziala, misio-nagusia eta tokiko bikarioa.
 - 3 Tokiko nagusia eta bere bikarioa izan ezik, beste guztiak hoek nagusi buru dira.
 - 4 Ministro probintzialei buruz Konstituzio hauetan esaten denak balio du probintzial-orde ta misio-nagusientzat ere, gaiak edo pasarteak eta pasarte-inguruak besterik ez badu eskatzen.
- 115.1 Ordenako karguak hautapen edo izendapen bidez ematen dira.
 - 2 Karguak ematean joka bezate anaiek zuzen, xalo eta legebidez.
 - 3 Ordenaren onura gogoan hartuz, egin daiteke, lehendabizi, galdeketa begiratu bat hauta edo izendatu behar diren hauta-gaiez, baina izenda behar denean, galdeketa beharrezkoa da.
 - 4 Hautapenak onespina izan behar baldin badu, gai diren zortzi egun barru eskatuko da bera.
 - 5 Egiatzko anaia txiki garenez, anaiek ez bitzate irrika karguak;

bainan anaiek, uste onez, kargutarako deituak badira, ez bezate setaz uka nagusitza edo beste kargurik.

- 6 Anai-Ordena osatzen dugunez gero, san Frantziskok hala nahi eta kaputxinoen tradizioak erakusten duenez, profesa nagusidun anaia oro hautagai da zemahe ofizio edo kargurako; nagusi izateko, orde, hautagaiak hiru urtez profesa nagusiduna izan behar du gutxienez.

III-gn Atala: Ordenaren antolamendu orokorra

- 116.1 Anaiarte osoaren batasun eta elkartasunaren seinale batipat den Kapitulu jeneralak, ordezkarien bitartez batzarrean bilduta dagoenean, Ordenaren nagusitza goren dauka.
 - 2 Ministro jeneralak aditzera eman eta deialdia egiten du Pentekoste inguruan, sei urtero ospatu behar den ohizko Kapitulura, ministro jeneralari bere definitorioren adostasunaz urteko beste denbora bat egokiago ez baderitzo.
 - 3 Ohizko Kapituluaz gainera, behar bereziak hortaratuaz, ministro jeneralak definitorioren adostasunaz ez-ohizko Kapitulura deialdia egin dezake, Ordenako biziera ta egintzei buruzko garrantzi handiko gaiak erabiltzeko.
 - 4 Ohizko zein ez-ohizko Kapitulan botua eman dezakete ministro jeneralak, definidore jeneraleek, aurreko sei urtez ministro jeneral izanak, ministro probintzialeek, idazkari jeneralak, prokuradore jeneralak eta probintzia, probintziorde eta Kustodietako ordezkariak.
 - 5 Ministro probintzialak, ministro jeneralak ontzat emango duen arrazoin bat delarik ezin badu joan Kapitulura, probintzial-ordeak joan behar du.
- 117.1 Kapitulura jeneralerako deialdia egin ondoren, ehun botudun gutxienez dituen probintzia bakoitzean, profesa nagusidun anaiek hauta bitzate Kapitulurako ordezkariak eta hauen ordezkoak.
 - 2 Bainan berrehun profesadun baino gehiago dituen probintziak hauta bitza ordezkari bat eta honen ordezkoa berrehuneko talde oso bakoitzeko.
 - 3 Hautapen hau burutu behar da Kapitulu probintzialak erabakiko duen arabera; eta ondorioa Kapitulua baino hiru hilabete lehenago argitara emango da.

- 4 Era berean, probintziorde eta Kustodietan hauta bitez ordezkari bat eta honen ordezkoa ehun profesadun anaien talde bakoitzeko.
 - 5 Ehun profesadun ez dituzten probintziorde eta kustodietan ordezkarien hautapena egiteko, ministro jeneralak definitorioren adostasunaz eta anaia interesatuei entzun ondoren, hauteskunde-taldeak eratuko ditu, eta hauek hautatuko dituzte ordezkari eta honen ordezko bat, ahal izanik, geografiko eta kultural hurbiltasuna kontutan hartuz.
 - 6 Ministro jeneralak definitorioren adostasunaz ezagutu eta onartuko dituen zirkunstantzia berezietan, ehun anaia ez dituzten probintziorde eta kustodietako hauteskunde taldeek hauta ditzakete Kapituluara eskubide osokin joango den ordezkaria eta honen ordezkoa.
- 118.1** Ohizko Kapitulu jeneralean lehenik hauta bedi ministro jenerala; honek eskuratzen du agintea Ordena osoaren eta anaia guztien gain.
- 2 Ministro jeneral izana berehala berrautatua izan daiteke, baina beste sei urtez soilik.
 - 3 Gero, "Kapitulu jenerala egiteko Araudia"-k dioenez, hauta bitez zortzi definidore jeneral; hoetatik, lau gehienez, izan daitezke asken kapituluaren hautatuak.
 - 4 Definidore jeneralak hautatzean, ministro jeneral izanak hautabidea soilik du.
 - 5 Zortzi definidoreen artetik hauta bedi Bikario jenerala, eta bera izango da lehen definidore.
 - 6 Ordenaren gobernuan ministro jeneralari laguntzea da definidoreen egitekoa, Konstituzioen eta Kapitulu jeneralak kuriarako onartutako estatutuaren arabera.
- 119.1** Kapituluaren azter bitez gure biziera gordetze ta eraberritzeari eta gure ekintza apostolikoa bizkortzeari dagozkien gaiak.
- 2 Eska biezaie anaia guztiei, era onez, Kapituluari adieraziko zaizkion gaiak eta bidal biezaizkio ministro jeneralari.
 - 3 Behar den alde-aurretik, ezaguterazi biezaie batzarkide guztiei ministro jeneralak bere definitorioren adostasunaz egin duen gaien zerrenda. Kapitulu berak, ordea, erabakiko du zein gaiak erabili behar diren.

- 120.1** Ministro jenerala eta definidoreak egotez bizi bitez Erroman.
- 2 Ministro jenerala Erromatik kanpo delarik, bego bere lekuan bikario jenerala.
 - 3 Hala ere, ministro jeneralaren egitekoak dira: ministro probintzialaren onspena, bisitatzailerak jeneralak izendatzea eta berak beretzat gorde dituen beste zereginak.
 - 4 Ministro jenerala bere karguan aritzeko ezindurik balego, bikario jeneralak goberna beza Ordena gai oroetan, eta jakin eraziko dizkio ministro jeneralari garaiz gai nabarmenenak.
 - 5 Baina bikario jenerala ere ezindua gerta baledi, bego ministro jeneralaren orde hurrengo definidorea, hautapenaren arabera.
- 121.1** Ministro jeneralaren kargua hutsik gerta baledi, har beza bera bikario jeneralak, eta lehenbailehen jakin eraziko dio Aulki Santuari delako kargua-gabea.
- 2 Bikario jeneralaren kargua hutsik gerta baledi Kapitulu bano urte bat lehenago, ministro jeneralak definitoriokin, zortzi garren definidorea hautatu ondoren, hauta beza, ixilpeko hautapenez, definitorio taldeko beste bikario general bat.
 - 3 Definidore jeneral baten kargua hutsik gerta baledi kapitulu bano urte bat lehenago, ministro jeneral eta bere definitorioak definidore hura zen taldeko nagusi buruen Konferentzietan entzun ondoren, hauta bezate beste bat, azken definidoren lekua hartuko duena.
- 122.1** Ministro jeneralari eta bere definitoriok lagun egiten diete beren zereginetan: idazkari nagusiak, Ordenaren arazoak Aulki Santuaren aurrean jartzea dagokion prokuradore jeneralak, Jainko Zerbitzarien dohatsu eta santu egiteaz Aulki Santu berarekin diharduen postuladore jeneralak, Frantziskotar Sekular Ordenaren zuzendari nagusiak, misio-ekintzen idazkari nagusiak, eta arazoak burutzeko behar diren arduradunek.
- 2 Horiek oro, hor-eremengo herrialdeetan hautatuak dira, eta ministro jeneralak bere definitorioren adostasunaz izendatuak.
 - 3 Kapitulua nagusiak onartutako estatutuaren arauz ezar eta erabiliko dira kuria jeneraleko karguak eta ofizioak.
- 123.1** Ordenaren Kontseilu plenarioaren helburu da: anaiarte osoaren

- eta bere gorengo zuzendarien arteko batasun ezaupide izatea, anaia guztien elkar erantzunkizuna ta lankidegoa bizkortzea eta Ordena bere aniztasunean bateraturik eta elkarturik sustatzea.
- 2 Kontseilu honen bazkide dira ministro jeneralak, definidore jeneralak eta nagusi buruen Konferentzi ordezkariak, ministro jeneralak definitorioren baietzaz eratu hainbana.
 - 3 Ez da beharrezko nagusi buruen Konferentzien batzarkide izatea ordezkari bezala hautatua izateko.
 - 4 Hautakera, Konferentzia bakoitzak erabakitzen du.
 - 5 Kontseilu plenarioari dagokio: definitorio jeneralaren eta Konferentzien arteko hartu-emanak bizkortzea, halaber hauenak elkarren artean; gogarte-etxe bat sortzea eta garrantzi handieneko arazoak azter eta beren irtenbidea Ordenari adieraztea; ministro jeneralari eta definidoreei laguntza ematea Ordenaren eraberritze egoki bat burutu dezaten; orobat, Ordena ugaritzean eta anaien hezikieran.
 - 6 Kontseilu plenariorearen botua aholku-eritizkoa da. Gogarte horien balorea jaso eta Ordena guztia rentzako egiterau gisa ematearren, egoki da, ministro jeneralak, aukerakoak baderizkio eta definitorioren adostasunaz, Konferentzia osoaren erabakiak bere nagusitasun-itzalez hornitzea eta Ordena osoari proposatzea.
 - 7 Ministro jeneralak, definitorioren adostasunaz, sei urteetan bi aldiz egin beza, eskuarki, Ordenaren Kontseilu plenarioarako deialdia.
 - 8 Ordenako Kontseilu plenarioak, berak egindako eta ministro jeneralak bere definitoriokin onartu duen estatutuaren arabera dihardu.

IV-gn Atala: Probintzi-antolamendua

- 124.1 Erilijosoen anai-elkartasun batzarra den kapitulu probintzialak, probintzia guztiaren ordezkari-tza duenez, bere agintari nagusia da.
- 2 Ministro probintzialak aditzera eman eta hiru urtero deialdia egiten du ohizko probintziako kapitulura, ministro jeneralak bere definitorioren adostasunaz aurretik baimena emanik; ministro jeneralak, bidezko denean, sei hilabetez aurreratu nahiz atzeratu dezake hirurteko Kapitulu.

- 3 Ez-ohizko Kapitulu bat ospa daiteke, ministro probintzialak definitoreien baitzaz deialdia eginda gero, probintzia, probintziorde eta Kustodiaren bizi eta ekintzei buruz diren arazo garrantzitsuenak erabiltzeko.
- 125.1** Ohizko eta ez-ohizko Kapitulan botua dute: ministro jeneralak, batzar-buru bada, ministro probintzialak eta bere definidoreek, Kapitulu probintzialak eskubide eman dien anaiek, probintzial-ordeek, eta misio-nagusiek, bai ere probintzi, probintziorde ta kustodietako ordezkariak, 113,5 zenbakian agintzen dena betez.
- 2 Probintzia batek nahi badu ospatu Kapitulu botu zuzenez, hau da, profesa-nagusidun guztiek parte hartuz, hori profesa-nagusidun anaia guztien hirutik bien gehiengoak erabaki behar dute, eta gero erabakia Kapitulu ospatzeko egingo den arauan ezarriko da. Kapitulan parte hartzeko eragozpenik balu bertarako behartuak dauden profesa nagusidun artekoen batek, ezaguterazi behar dio ministro probintzialari eta bere definitorei, horiei baidagokie gauza azter eta erabakitzea. Kapitulan bertan benetan daudenek bakarrik dute botua. Gainera, probintziako Kapitulan parte hartzen dute probintzial-ordeak, misio-nagusiak eta probintziorde ta kustodiako ordezkariak, Kapitulu probintziala ospatzeko araudiaren arabera.
- 3 Probintziorde edo kustodiako nagusiak, ministro probintzialak bere definitoreekin aztertuko duen funtsezko arrazoina dela-ta, ezin badu edo bere kargua hutsik baledi, bihoa Kapitulara lehenengo edo bigarren kontseilaria, ahal denez.
- 126.1** Probintzial Kapitularako deialdia egin ondoren, une hartan profesa nagusidun diren anaia guztiek, probintziorde ta kustodietakoek izan ezik, hauta bitzate ordezkariak eta horien ordezkoak, Kapitulara orok joan behar ez izatekotan.
- 2 Probintziorde ta kustodietako anaiek ere hauta bitzate beren ordezkariak eta hauen ordezkoak.
- 3 Kapitulu probintzialak erabakiko du ordezkarien kopurua, bai probintzikoena bai probintziorde ta kustodiena, orobat hautatzeko modua.
- 127.1** Kapitulu probintzialean azter bitez, alde-aurrez anaia guztiei galde eginda, probintziaren bizierari eta ekintzari dagozkien gaiak.

- 2 Behar den alde-urrez ezaguterazi biezaie batzarkide guztiei ministro probintzialak eta bere definitorioak egin duten gaien zerrenda; Kapitulu berari, ordea, dagokio erabil behar diren gaiak erabakitzea.
 - 3 Ohizko Kapitulu hauetatuko da ministro probintziala Kapitulu probintzialak onartu duen kapitulu-araudiaren arabera.
 - 4 Ministro probintzial izana, aurreko Kapitulu hauetatua izan bazen, berrautatua izan daiteke berehala beste hiru urteetarako.
 - 5 Aipatu araudiaren arabera, hauta bitez gero lau probintzial definidore, ministro jeneralari definitorioren adostasunaz, kopurua gehiagotzea on dela ezpaderitza; definidoreen erdia, gehienez, izan daiteke aurreko Kapitulu hauetatua.
 - 6 Ondoren, hauta bedi definitorio taldetik bikario probintziala, hautapen honen bidez lehen definidore izango dena.
 - 7 Definidoreak hautatzean ministro probintzial izanak hautabidea soilik du.
 - 8 Hautatua izan den ministro probintziala bere karguan ariko da ministro jeneralaren ordezkari antzo, bere hautapena ontzat emana den arte.
 - 9 Ministro probintziala eta definidoreak hautatu edo izendatuak izan ondoren, anaiek beren karguetan iraungo dute besterik erabaki arte; arau honek balio du, aldatzekoak aldatuz, probintziorde eta kustodientzat ere.
- 128.1** Arrazoin larriak direla bide eta probintziako profesia nagusidun anaia guztien idatz-eritzia aurretik iritsi ondoren, ministro jeneralak definitorioren adostasunaz, izendatu ditzake ministro probintziala eta definidoreak, baina hori ez daiteke egin bi hirurtez segidan.
- 2 Izendatzea eginda gero, ospa bedi dagokion garaian, Kapitulu probintziako arazoak aztertzeko.
- 129.1** Bikario probintzialaren egitekoa da bere esku utzi dituenetan ministro probintzialari laguntzea; eta ministro probintziala kanpoan edo ezindurik delarik, probintziako arazoak bere kontu hartzea, hark beretzat gorde dituenak salbu.
- 2 Ministro probintzialaren kargua hutsik gelditzen denean, bikario probintzialak berehala ezaguteraziko dio ministro jeneralari eta

goberna beza probintzia harik eta aginduak jaso arte.

- 3 Probintzialaren kargua hutsik gelditzen denean kapitulua baino hamazortzi hilabete lehenago, ministro jeneralak definitorioren adostasunaz, probintziako profesagusidun anaian aholku-eritzia jaso ezker, izendatu beza ministro berria hirurtekoa bukatu arte; honen ondoren ospa bedi Kapituluak.
 - 4 Bikario probintziala ezinduta dagoenean, har beza bere kargua hurrengo definidoreak.
 - 5 Bainan definidore probintzialaren kargua hutsik gelditzen denean Kapitulu probintziala baino urte bat lehenago, ministro jeneralak definitorioren adostasunaz, ministro probintzialari eta bere definitoriari entzun ondoren, izendatuko du azken definidoren lekua hartuko duen beste bat; eta ondoren, bikario probintzialaren kargua hutsik gelditzen denean, ministro probintzialak eta bere definidoreak hautatuko dute ixilpeko txartelez definitorio taldetik beste bikario probintzial bat. Eta hau ezaguteraziko zaio ministro jeneralari.
- 130.1** Ministro probintzialak definitorioren adostasunaz, izenda beza probintzial idazkari heziera buka duten artetik profesagusidun anaia bat; orobat, probintzial kuriak dituen betebeharrak burutzeko behar diren ofizialak, eta beste lan bereziak egiteko beharrekoak.
- 2 Idazkari probintziala ministro probintzialaren mende bakarrik dago; Kapitulu probintzialari dagokio erabakitzea beste laguntzaileak bere mende bakarrik dauden ala ez.
 - 3 Probintzia bakoitzean ministro probintzialak definitorioren baitzaz, arazo bereziak erabiltzeko batzordeak eratzea aholku ematen da.
- 131.1** Ministro jeneralak definitorioren adostasunaz eratzten ditu probintzial, probintzialorde eta misio-nagusien Konferentziak, probintzia, probintziorde eta kustodien arteko elkar-laguntza bizkortzeko; orobat, gotzain eta erlijioso ta erlijiosa nagusi buruen Konferentzien artekoa, sortzen diren arazoak erabiltzeko eta, ahaleginean, gobernu batasuna zaintzeko.
- 2 Konferentzia hoek, ministro jeneralak definitorioren adostasunaz onartuko duen estatutu berezia izango dute, eta urtean behin, gutxienez, bilduko dira.
 - 3 Konferentzia horiei dagokie: Konstituzioek, beren estatutuek edo

ministro jeneralak gomendatu dietena betetzea, beraien herrialdean Ordenaren hobekuntza orokorra sustatzea eta eskualderako arau bereziak ematea; arau hoek ez dute indarririk harik eta beren Kontseiluek eta ministro jeneralak, definitorioren adostasunaz, onartu arte.

- 4 Lurralde bakoitzean bizi diren Ordenako anaien elkartasuna sendotzearen, saia bitez nagusi buruek honetan: anaiek, beraien kemenak bateratuz frantziskotar testigantza eman-erazten beren aberri edo giro politikotik kanpo; onela, kristau bizitza berri eta bake, zuzentasun eta elkartasun alde joka ahal dezaten.

V-gn Atala: Probintziordearen antolamendua

- 132.1 Probintziordeek duten helburu nagusienetako bat da tokiko Elizan Ordena ezartzea, frantziskotar karismaren testigantza ebanjelikoa eman dezan.
 - 2 Beraz, probintziordeetan tokiko bokazioak arretaz susta behar dira; horretarako, pastoral bizitza ta ekintzak errialde bakoitzari dagozkionak bizkortuko dira.
 - 3 Probintziak, ahal duenez, bidal bitza bere probintziordera honek behar dituen hainbat erlijioso.
 - 4 Probintziordera bidali nahiz probintziara itzul behar diren erlijiosoak hautatzean, nagusiek, probintzial-orde ta bere Kontseiluari entzun ondoren, kontuan har bitzate toki horietarako anaiek dituzten gaitasunak, bai ere gazteen heziera eta probintziordean erabil behar den apostolutza.
 - 5 Probintzial-ordeak, Kontseiluaren adostasunaz, beharrak kontutan hartuz, eta ministro probintzial edo jeneralaren aurre-baiezta izanik, egin ditzake hitzarmenak, garai-enez, beste probintziekin nahiz nagusi-buruen Konferentziekin, bainan hitzarmen hoek ministro jeneral eta probintzialaren baieztapena izan beharko dute.
- 133.1 Probintziordearen buru da probintzial-ordea bi kontseilariekin.
 - 2 Hala ere, ministro jeneralari definitorioren adostasunaz dagokio, ministro probintzialari entzun ondoren, kontseilarien kopurua gehiagotzea.
 - 3 Probintzial-ordea ta kontseilariak hirurte baterako hautatzen dira,

- aldi hau igaro ondoan, berrautatu daitezke, baina probintzial-ordea beste hirurte baterako bakarrik.
- 4 Probintziordeak bere Kapituluaren erabaki beza probintzial-orde izana hautatu ote daiteken kontseilari.
 - 5 Profesa nagusidun anaiek hautatzen dituzte probintzial-ordea ta kontseilariak, Kapitulu probintzial-ordeak eraturako moduan eta probintzial nahiz jeneralaren aurre-baiezaz. Kasu berezietan, arrazoin bidezkoa izanik, ministro jeneralak, difinitorioren baiezaz, baimendu dezake nagusiak eta kontseilariak hautatzea ordezkarien bidez egindako Kapituluaren.
 - 6 Baldin hautapena botu zuzenez egingo balitz Kapituluaren, Probintzial-orde berak Kapituluaren deialdia egiten du, ministro probintzial edo jeneralaren adostasunakin; eta botua eman dezakete bertan dauden anaiek, ministro probintzial nahiz jenerala barne, hoek buru balira. Kapituluaren joan ez daitezkeen anaiei buruz, balio du Kapitulu probintzialaz esandakoak.
 - 7 Hautapena Kapituluaren kanpo eginda gero, probintzial-ordeak, bere kontseilariak eta azterketa egiten den tokiko Kapituluak hauta dituen anaiek egin bezate txartel-azterketa, bertan izanik ministro probintziala nahiz jenerala, edo beraien ordezkaria. Ondoren, aldarrika bitez hautapenaren emaitzak.
 - 8 Probintzial-orde hautatua ariko da bere karguan probintzial edo jeneral ministroen ordezkari bezala harik eta hautapena baiezta den arte.
 - 9 Bere hautapena baieztatua izan den ordutik, probintzial-ordeak ahalmen legezko du bere karguan, ordezkari ahalmen arrunta da bera, eta aldi berean, egoki da ministro probintzial edo jeneralak berari ematea Konstituzioen 19 eta 36 zenbakietan dauden eskubideak.
 - 10 Gero ministro probintzialak ezaguterazi diezaiot hautapena ministro jeneralari.
 - 11 Ministro probintzial nahiz jeneralaren baimenaz, probintzial-ordeak deialdia egin dezake Kapituluaren zenbait gai erabiltzeko, eta egoki litzateke ministro probintzial nahiz jenerala batzar-buru izatea, botua emateko aukerarekin.
 - 12 Probintzial-ordea kanpoan edo ezindua denean, bere kargua lehen edo hurrengo kontseilariak dauka, hautapenaren arabera, lehenengoa ezindua denean.

- 13 Probintzial-ordearen edo kontseilariaren kargua hutsik gelditzen denean edozein arrazoin delarik, jakin erazi biezaio ministro probintzial edo jeneralari, eta 129 zenbakiaren arabera ari izango da.
- 14 Probintziorde Kapituluak eratu eta ministro probintzial edo jeneralak onartu duen estatutuan zehaztu behar dira probintziordearen gobernuari dagozkion beste xehetasunak. Delako estatutuak, beste gauzen artean, finkatu behar ditu Kapitulu-batzarkideak zenbait arazo aztertzeko, orobat ministro probintzial edo jeneralaren baimenaz bakarrik zein arazoak azter behar diren.
- 134.1 Probintzial-ordea bildu bedi bere kontseilarekin urtean lau aldiz, gutxienez, eta beraien aholku edo baietzaren beharrea ministro probintzialak, Konstituzioen arabera, bere definitorearen aholku edo baietza behar duen aldiro.
 - 2 Hala ere, adierazi biezaizkie ministro probintzialari edo jeneralari probintziarentzat edo probintziordearentzat astunago diren berrikuntzak.

VI-gn Atala: Kustodien antolamendua

- 135.1 Kustodia bakoitzaren buru da misio-nagusia bi kontseilarekin.
 - 2 Dohakienei entzun eta beharrak eta Kustodiaren on dena kontuan hartuz, ministro probintzialak, definitorearen adostasunaz, hauta ditzake beste bi kontseilari. Eta hori ezaguteraziko zaio ministro jeneralari.
- 136.1 Kustodiakoak diren profesa nagusidun anaiek, hautatuko dituzte, hiru urterako, misio-nagusia eta kontseilariak, kontuan izanik 113.5an agindua. Kasu berezietan arrazoin bidezkoa delarik, ministro jeneralak, definitorearen adostasunaz, baimendu dezake nagusiak eta kontseilariak hautatzea ordezkarien bidez egindako Kapitulan.
 - 2 Hala ere, misio-nagusia berehala hautatua izan daiteke beste hiru urterako.
 - 3 Kustodiako Kapituluak erabaki beza misio-nagusi izana kontseilari hautatu daiteken ala ez.
 - 4 Hautapena egiteko Kapitulu-bidez edo beste eraz, beharrezko da

ministro probintzialaren baietza, eta eman dezake berak botua Kapitulumuru baldin bada.

- 5 Aldi baterako behintzat, ministro jeneralaren obedienciaz, misiorakotu diren anaiak kustiakoak dira, baita ere profesaren bidez Kustodiari erantsi zaizkion anaia guztiak, nahiz beste alde batean bizi, heziera edo beste arrazoin bat dela bide.

137.1 Misio-nagusi eta kontseilarien hautapena Kapituluaren egiten da botu zuzenez, bertan botu dutelarik han dauden anaiek, edo hautapena egin daiteke beste modura, misio-nagusiak kontseilarien baietzaz, anaien eritzia entzun eta Kustodiako gora-beherak aztertu ondoren, kontuan izanik, hala ere, 136.1an agindua. Kapituluera joateko eragozpenez, balio du Kapitulu probintzialaz esandakoak.

- 2 Ministro probintzialari dagokio hautapena baieztatzea; bera bertan ez balego, aldarrikatzen dira ahotapenak eta hautatu misio-nagusia ariko da bere karguan ministro probintzialaren ordezkari gisa, harik eta hautapena baieztatua izan arte. Ministro probintzialak ezaguterazi biezaio hautapena ministro jeneralari.

- 3 Baieztapenaren une beretik, misio-nagusiak ahalmen arrunta du bere karguan; aldi berean, egoki da ministro probintzialak berari ematea Konstituzioaren 19 eta 36 zenbakietan dauden eskubideak.

- 4 Arrazoin pisutsuak direla bide, ministro jeneralak bere definitorearen adostasunaz, ministro probintzialari entzun eta Kustodiako anaien konsulta-botua idatziz edukirik, izendatu ditzake misio-nagusia eta kontseilariak.

138.1 Kanpoan edo ezindurik denean misio-nagusia, kargua du lehen edo hurrengo kontseilariak, hautapenaren arabera, lehenengoak ezin badu.

- 2 Den arrazoinagatik, hutsik gelditzen denean misio-nagusi nahiz kontseilariaren kargua, ezaguterazi biezaio ministro probintzialari, eta hau ariko da, aldatzekoak aldatuz, 129 zenbakiak dioenez.

139.1 Misio-nagusia bildu bedi bere kontseilariekin urtean lau aldiz, gutxienez.

- 2 Eta eskatuko die baietza edo kontseilua, ministro probintzialak bere definitorearen baietza edo kontseilua behar duen arazo guztietan.

- 3 Komeni da Kustodiak estatutu bat izatea, ministro probintzialak defintorioren adostasunaz baieztatua; bertan mugatuko dira Kustodiaren gobernuari dagozkion gauza garrantzitsuenak.

VII-gn Atala: Tokiko antolamendua

- 140.1 Kapitulu probintzialean, edo geroago, aldi onez, ministro probintzialak defintorioren baietzaz, ahal delarik anaietara entzunda, eratu bitza anaiarteak eta izenda tokietako nagusiak, 115.3aren arabera, arretaz zainduz gure bizimoldea, anai-elkartasuna sustatuz, eta etxe bakoitzeko zerbitzu bereziak kontutan hartuz.
 - 2 Probintziorde ta Kustodietan, beren zer-nolako bereziak kontuan hartuz, antola bitez era berean anaiarteak eta izenda nagusiak.
 - 3 Ministro probintzialak defintorioren adostasunaz, izendatuko ditu tokietako nagusiak hiru urterako; baina izenda ditzake beste hiru urterako ere, eta behar-beharrezko denean, hiru aldiz, eta bidezko arrazoina izanik etxe berberarako.
 - 4 Sei urtez tokiko nagusi izan dena, edo beharrezko izanik bederatziz urtez, gel bedi kargu hori gabe urtebetez, gutxienez.
- 141.1 Ministro probintzialak defintorioren baietzaz izendatuko du anaiarte bakoitzarentzat bikario bat, eta berak lagunduko dio nagusiari anaiartearen gobernuan. Eta nagusia kanpoan edo ezindua denean edo kargua utzi duenean, zuzenduko du anaiarte.
 - 2 Sei anaiak gutxienez dituzten etxe guztietan, legez lehenengo kontseilari den bikarioaz beste, profesia nagusidun anaietara hauta bitzate kontseilari bat edo bi, tokiko nagusiari espiritual eta material arazoetan argibideak emateko.
 - 3 Garrantzi handiko arazoetan erabakidun botua dute kontseilarietara, Konstituzio eta herrialde edo probintziako estatutuen arabera.
 - 4 Nagusia eta bikarioa kanpoan edo ezinduak direnean, anaiarte buru da Kapitulu probintzialak honetarako izenda duen anaiak.
 - 5 Tokiko nagusiaren kargua hutsik gelditzen denean Kapitulu probintziala baino sei hilabete lehenago, ministro probintzialak defintorioren adostasunaz izenda beza beste nagusi bat; baina kargua gelditzen bada hutsik delako Kapituluaren aurreko sei hilabete barru, bikarioak zuzenduko du anaiarte.

- 142.1** Tokiko kapitulua profesadun anaia guztiek osatzen dute.
- 2 Kapitulan ongi agertzen da gure gurea den maitasuneko menpetasuna, eta honen bidez anaiek elkar zerbitzatzen dute, oroien sormena sustatzen da eta norberaren gaitasunek guztien onera jotzen dute.
 - 3 Tokiko kapitulari dagokio, nagusiaren zuzendaritzapean, anai-espirtua sustatzea, anaia guztien kontzientziari anaiartearen onerako eragitea, anai-bizitzari buruzko den oroz elkar-hizketatzea, bereziki, otoitzaldia bizitu, pobretasuna nola gorde, eta, bide batez, anaikiro elkar laguntzeko asmoz Jainkoak nahi duena bilatzea.
 - 4 Tokiko Kapituluaren sarritan ospa behar da urtean zehar; nagusi buruek haren eragile izango dira, eta bihotz emaile ere bai, batzutan parte hartuz.
 - 5 Nagusiek ez dute jakin-erazi behar soilik, baita ere galdegin anaiei, hortarako egoki bidez, Kapitulan erabiliko diren gaietaz.
 - 6 Kapituluaren botua aholku eritizikoa izango da, lege arruntak nahiz gureak besterik ezpadu agintzen.
 - 7 Profesa nagusidun anaiei bakarrik dagokie hautapenak egin eta anaia botuz profesara hartzea, Konstituzioen arabera.
- 143.1** Kuria nagusiak eta probintzialak, orobat probintzial ordearen eta misio-nagusiaren etxeek, eta bai ere gure etxe guztiek artxibo bat izango dute beharrezko dokumentu guztiak erazturik eta giltzapeturik gordetzeko; eta arduradunak idatziko du aipagarri den oro.
- 2 Artxiboak dituen dokumentuak, lerrokaturik gordeko dira.

BEDERATZIGARREN ATALBURUA

ANAIEN APOSTOLU-BIZIERA

- 144.1 Aita Jainkoak Semea bidal zuen mundura, gizon eginik, berri ona pobreei hotsegitera, bihotzez damutuak sendatzera, katiguak askatzera eta itsuei ikusmena berriz ematera.
 - 2 Jesukristok nahi izan zuen eginbehar hori jarraitzea Elizan Espiritu Santuaren eragipenez.
 - 3 Espiritu Santu berak eragin zien san Frantzisko eta bere anaiarte apostolikuari, beraien garaiko gehien premien arabera, Elizaren alde indar guztiz lan egitera, batipat, berri onaren mezua gehien behar zutenen alde.
 - 4 Horregatik, gure Anaiarteak, Jaunaren Espirituari eta bere egitekoari lagun eginez, burutzen du Elizan gizaki guztienganako zerbitzua, berri ona zabalduz hitzez eta bere bizieraz.
- 145.1 Gure karisma bereizgarria gorde behar dugu apostolu-lanean, egoera ezberdin eta garaietara bera egokituz.
 - 2 Anaia txikiaren apostolutza onena, munduan ebanjelioaren arabera egiz, xume eta alai bizitzea da.
 - 3 Opa diezaiegun gizaki guztiei gure ongi-nahia eta elkar-hizketarako gertutasuna.
 - 4 Pobreen ebanjelizatzeari lehentasuna em an arren, Kristori eta san Frantziskori jarraituz, ez dugu beldurrik izan behar ahaltzu eta herrien menperatzailei zuzentasun eta bake aldeko konbertsio-mezua aldarrikatzeko.
 - 5 Lotu gakizkion gogo onez edozein ministeritza eta ekintza apostolikuari, gure bizierakin eta Elizaren beharrekin bat datorren aldi oroz; eta anaia txiki garelakin jakinik, ekin diezaiegun, adorez beterik, batipat zailtzat hartzen diren ministeritzei.
 - 6 Probintzial eta tokiko anaiarteek bultza ta tajutu bitzate apostoliko lanak anaiarte osoaren agerpen antzo.

- 7 Anaiek, Kristoren ikasle ta san Frantziskoren seme direnez gero, gogora bezate apostolutza bizierak fede alde ta lagun hurkoa salbatzeagatik gurutzea ta jazarpa sufritzeko egokitasuna eskatzen duela odolaitortza emateraino.
- 146.1 Ari bitez anaiek gartsuki edozein apostolutzan, norberak asmatuan ere, bainan beti beren nagusiaren menpeko.
- 2 Aita Santuaren eskubidea ezik Ordenaren zerbitzuak erabiltzeko Eliza osoaren onerako, tokiko Gotzainaren esku dago edozein apostolutzan aritzea, beragandik bait dute anaiek aginte ta eskubide oro, beraien ministroek aztertu eta onetsi dituzten ondoren. Nagusiek ontzat har bezate gogo onez, ahal denez eta gure karismaren arabera, Jainko herriaren zerbitzuan eta gizakien salbazioan lan egiteko Gotzainek dei egiten digutenean.
- 3 Kapitulu probintzialari dagokio apostolu-ekintzak garaien eskakizunei egokitzea, gure frantziskotar-kaputxino izaera alda gabe; bainan ministro probintzialaren egitekoa da, definitorioren adostasunaz, probintzian apostolutza antolatzea.
- 4 Anaiarteko nagusiak, arlo garrantzitsuetan tokiko Kapituluari entzun ondoren, bana bitza iharduerak, Elizaren beharrak eta anaia bakoitzak dituen gaitasunak kontutan hartuz, eta elizagintariak tajutu dituzten pastoral erakundeekin erabat elkarturik.
- 5 Anaiek egin bezate lan, gogo onez, Elizaren beste erlijioso institutoek dituzten egiteko eta egitasmoetan.
- 147.1 Ohitu bitez anaiek garaien ezaupideak igartzera, horietan sinesmen begiek antzematen bait die jainkozko xedeei, ebanjelizatzeko eskakizunek eta gizakien beharrek eskatzen duten hainbatekoak izan daitezen gure apostoliko egitasmoak eta ekinbideak.
- 2 Susta bitzate ohizko apostolu-ekintzak, hots, herri misioak, gogojardunak, kristauen sakramentu-aitortza, erlijiosoen ardura espiritualak, batipat frantziskotarrena, orobat gaixoena, espeteratuena, eziketa lanena eta sozial eragintzarena.
- 3 Apostolutzaren era berriak onaturik, ardura bitez biziki pastoral arreta arrunta ez dutenen alde beren bizimolde berezia dela-ta, esaterako: beren kristau bizitzan arriskuz inguraturik dabiltzan gazteen alde, etorkinen, langileen, ekonomiko arazoagatik edo etsaikeriagatik edo arraza-gorrotoagatik erasotuak direnen alde.

- 4 Gar bereziaz saia bitez maitasun, egia eta otoitzezko elkarrizketa sortarazten katoliko ez diren kristauekin, Elizak kristau batasunaz duen axolan parte hartuz.
 - 5 Orobat, ahalegindu bitez salbazio buruzko elkarrizketa sortzen bestelako erlijiorik dutenekin, bai ere sinesgabeekin, hauen artean bizi direlarik, edo bizitzera bidaliko balituzte.
 - 6 Gizakien onez egiten ditugun zerbitzu guztiak Ebanjelio bidetik doan bizieran oinarrituak izan behar dute. Herritik hurbil, bihotz xume ta txiki jatorren bizi-tankera eta mintzoera dituzten testigutza erraxago jaso eta atseginago onartzen da.
- 148.1** Eliz-agintaritzak onartzen zuen Kristoren ohiulari zen san Frantzisko; nonnahi ereiten zuen Ebanjelioko azia, hirietan ibiliz eta Jainkoherriari Kristoren misterioa hotseginez mintzo labur eta xumez.
- 2 Berak bezala eta Ordenaren tradizioa gordez, predika bezate anaiek Jaunaren hitza mintzaira garbiz eta osorik Liburu Santuen arabera.
 - 3 Ahalengindu bitez anaiek Jaunaren Hitza den Kristo beren bihotzetan tink ezartzen, eta beren buruak berari osorik emanda bizitzen, Kristo berberak bultza ditzan hitzegitera maitasunez gainezkatuturik. Honela predikatuko dute Kristo bizieraz, egitez eta hitzez.
 - 4 Hori iristeko, saia bitez Kristoren jakinduria gero eta hobeago bereganatzen, bera bait da lortzen bizian zehar Liburu Santuen irakurketaz, gogoematez eta ikaste arduratsuz.
- 149.1** Sakramentuak ospatuz, Kristo agertzen zaie kristauei bere ahalmenean, santu egiten ditu eta bere Gorputza eraikitzen du. Beraz, anaiek gertu egon bitez kristauei laguntzeko beren karguz edo herri-apaizek eskatzen dietenean, sakramentuak emanez, horrela fedea elikatu, bizkortu eta nabari dadin.
- 2 Apaia anaiek, Kristo artzainaren espirituz, hotsegin bezate bekatuen barkamenerako dugun adiskidetze-sakramentua, eta prest beude gogo onez kristauen aitortzak entzuteko, hau bait da anaia txikien berezko ministeritza, eta espiritualki pobreenak diren giz-emakumeekin maiz erabiltzen dena.
 - 3 Nabari bitez anaia horietan Jainko santutasun eta errukiaganako lehia, orobat pertsonen duintasunaren aldeko begirune, goi-maitatze, eramanpen eta zuhertasuna.

- 4 Saia bitez aitorleek etengabe pastoral jakintza hobegotzen eta beren ministeritzan zuzen aritzen.
- 150.1** San Frantziskok bezala ta Ordenaren betiko ohituraren arabera, onar bezate anaiek, gogo onez, ahul eta erien arimak, bai ere gorputzak zaintzea.
- 2 Honela, Jainko Erreinuaren etorreraren ezaugarritzat hiri eta herrien barna ahuleria eta gaixotasun oro sendatzen ibiltzen zen Kristoren antzera, bete bezate anaiek Elizaren egitekoa: bera, bere seme-alaben bidez, edozein mailako gizakiekin elkarganatzan bait da, batipat pobre ta nahigabetuekin, eta eginahalak egiten ditu gogotik beraien alde.
 - 3 Nagusiek susta bezate holako ministeritza, bikaina bait da eta karitate ta apostolu-lanerako eraginkor.
- 151.1** Gure Ordenaren izate ta tradizioakin bat eginik, anaiek prest egon bitez tokiko Elizaren apaizei beren parroketan pastoralki laguntzeko.
- 2 Arimen premia handiak kontutan hartuz eta tokiko elizari gogoz zerbitzatzearren, goi-nagusiek, beren Kontseiluaren adostasunaz, har bezate zuhurki parroki ministeritza ere.
 - 3 Ministeritza hau gure bokazioaren araberako gerta dadin, hauta bitez gehienbat, gure txiki izatearen testigutza errazago eman eta gure biziera eta betebeharrak anaitasunean burutu daitezkeen parrokiak. Izan ere, honela Jainko herriak aukeran parte har dezake gure karisman.
 - 4 Gure Ordenaren zainpean ezarritako santutegiak ebanjelizazio eta jaiera zuzenerako lekuak behar dute izan.
- 152.1** Eliz bizitzan eta ekintzetan laikoek duten garrantzia ontzat hartuz, anaiek sustatuko dituzte laikoak berenak diren zenbait ministeritzetan lan egin dezaten, batipat ebanjelizatze arloan; halaber, bizkor bitzate Jainkoaren hitza bizi eta hotsegiteko konpromisoa hartu eta mundua barmetik aldatu nahian ari diren fededunen elkarteak.
- 2 Elkarte hauen artean aintzakotzat har dezagun bereziki Frantziskotar Sekular Ordena. Lagun diezaiegun sekular frantziskotarrei, alde batetik, beren anaiarteak sinesmen-elkarte bikainak izan daitezen ebanjelizazio lanean eragile ondo jantziak agertuz, eta bestetik, elkartekide bakoitza trebatu dadin Jainko Erreina zabaltze-

lanean, bai beren bizimoldeaz, bai apostolutza egiteko era zenbaitez.

- 153.1 San Frantziskok, Jainko Erreinua kantuz eta herri-hizkerazko leloekin ere hotsegitera sustatzen zituen bere anaiak; eta berberak, idazkiak zabalduz, gizakien salbazio bila ari nahi izan zuen.
 - 2 Horregatik, aintzat har ditzagun guk ere oraingo komunikabideak gure aldiko jendeak ebanjelizatzeke, egokiak bait dira jandetaldeak eta giza-elkarte osoa ere mugi arazteko.
 - 3 Bainan, komunikabide hauen bidez, apostolutza era guztietaz jabetu ahal daitezen anaiek, nagusiek eman biezaie gai diren anaiei behar duten trebetasuna eskuratzeko aukera.
 - 4 Eskolatu bitez anaia guztiak sozial komunikabide hauek zuzen erabiltzeko, honela giza-elkartearen egoeraz eta Elizaren beharretaz zehazki jabetu daitezten.
 - 5 Eragin biezaio, orobat, gogo onez eta kemenak elkartuz, idatz-apostolutzari, batez ere frantziskotar gaiak edatze-asmoz; honetarako, gomendatzen da biziki molda daitezela probintzietan nahiz nazioetan eta Ordena osoan ere erakundeak edo langintzak.
 - 6 Sozial komunikabideetat, bete bedi zuzenbide orokorrak agintzen duena; eta gogora bedi, goi-nagusiaren baimena behar dela erlijio eta ohituretat idazten denean.
 - 7 Anaiek izango dituzte beren karguetan aritzeko behar dituzten lanabesak, gure anai-biziera arriskatu gabe eta kontutan hartuz gure frantziskotar-kaputxino bokazioaren eskakizunak.
- 154.1 Edozein arrazoin dela bide, apostolutzan diharduten anaiek bateratu bitzate beren bizimoldea ta ekintza Jainkoa ta gizakia maitatuz, hortan bait datza apostolutza ororen arima.
 - 2 Gogora bezate gainera ezin dutela beren egitekoa burutu, etengabe berriztatu gabe beren bokazioari zor dioten zintzotasuna.
 - 3 Beraz, ari bitez pobre ta apal apostolutzan, ministeritza berena egin gabe, denek ikus dezaten Jesukristoren bila soilik dabiltzala; zainduko dute Kristok hain bete-betea nahi izan zuen anaiarte-batasuna, munduak ezagun dezan Aitak bidal zuela Semea.
 - 4 Anaiarteko harremanetan ihardun bezate otoi eta ikaste-bizitzan Salbatzailearekin hertsiki elkartzeko, eta Espiritu Santuaren eraginpean, ager daitezten ausartki munduan alai mezuaren testigutza oparo emateko.

HAMARGARREN ATALBURUA

GURE OBEDIENTZI-BIZIERA

- 155.1** Menpean bizitzeko hitz eman dugunez gero, kargurik bereizi gabe, bila dezagun Jaunaren ikasleen artean azken izatea, elkar zerbitzatuz maite-espirituz eta gizaki guztien menpeko izanik Jainkoagatik.
- 2 Hau da egiazko obedientzia, Jesukristoren bizitzean zerbitzari gisan ageri dena.
 - 3 Espiritu Santuaren esaneko, bila eta bete dezagun Jainkoaren nahia anai-elkartasunean, zer-nahi gertaera eta eginkizunean.
 - 4 Honela, ministro edo nagusiek, beren esku utzi dituztenei zerbitzatuz, bai ere gainerako anaiek nagusien menpeko fedez egonik, egingo dute Jainkoari atsegin zaiona.

I-go Atala: Ministroen pastoral-zerbitzua

- 156.1** Kristo ez zen etorri zerbitzaturik izatera zerbitzatzea baizik; horixe egiztatzeko garbitu zizkien apostoluei oinak eta gauza bera egiteko esan zien.
- 2 Beraz, besteen zerbitzari diren ministroek ez bezate agindu jaunen gisa, baizik-eta zerbitzari bitzate anaiek espiritu eta bizitza emanez, exenplu eta hitzaren bidez.
- 157.1** Ministroek, beren esku ezarri dituzten anaiez Jainkoari kontu eman beharko diotenez gero, zuzendu bitzate anaiekin maitasunez, beraien eredu gogo onez azalduz.
- 2 Honela, bada, har duten karguan ari bitez trebe, anaiekin eta gauza guztien axola izanik, batipat espirituzkoetan.
 - 3 Anaiekin batera, bila bezate Jainkoaren borondatea otoitz gartsuan eta zuhurki jokatu.
 - 4 Ari bitez elkarriketan gogoz eta ebanjelio espirituz, bakarka edo guztiekin batera eta onar bitzate beren kontsejuak; bainan oroi

- bezate orok azken hitza ministroek dutela, beren karguagatik.
- 5 Ministroek eragin bitzate arduraz anaiak gure biziera gorde eta nonnahi bila dezaten Elizarentzat onuratsu dena.
 - 6 Susta bezate, anaiarte osoaren onerako, guztien elkar lana, batipat etxe berean kargu bereziak dituztenena.
- 158.1** Ministro oroen eginbeharra da anaiei Jaunaren hitza azaldu eta ikaskuntza egoki bat eta erlijio hezkuntza ematea.
- 2 Probintzia bakoitzean, ministro probintzialak, bere definitorioren adostasunaz, erabakiko duenaren arabera, hori zenbait moduz gauzatu daiteke toki eta garaiak kontuan hartuz; adibidez, solasaldi espiritualen bidez bakarka nahiz tokiko Kapituluak, bai ere Eukaristia edo Jaunaren hitza ospatzean anaiei egingo zaien homiliaren bidez, orobat nagusi buruen idazkien bidez, era berean bileretan erabiliko diren erlijiozko eta frantziskotar gaien bidez.
- 159.1** Ministroek bultza bitzate anaiak Jainkoaren borondatea aztertu eta egitera, deitu dituen Aitaren egitasmoari gogo onez erantzun diezaioten.
- 2 Gidatuko dituzte bere esku diren anaiak Jainko- seme bezala eta beraiekin begirunez jokatu dute, gogoz obedi dezaten.
 - 3 Ez diete aginduko ezer anaiei obedientzi-botuaz, hartaritzen ez badituzte karitateak eta beharrak, eta orduan ari bitez zuhurtasun handiz.
- 160.1** Izan bitez sendo, eta bide batez otzan eta maitakor, Erreglaren manuz, ohartarazi, adoretu eta, beharreko denean, anaiak zentzaraziko dituztenean.
- 2 Saia bitez anaia bakoitzaren hutsaldia bakarka zuzentzen anai mintzo, nor den eta bere zer-nolakoa kontuan hartuz.
 - 3 Anaiek hartuko dute gogo onez, nagusiaren zentzaldia arimaren onerako.
 - 4 Nagusiek hitzegin bezate anaiekin, batipat tokiko Kapituluak, anaiartearen akats eta hutsaldietaz, eta bila ta ezarri, guztiek batera, baliozko osagaia.
- 161.1** Erregla eta lege arruntak agindutako nagusi buruen pastoral ikustaldia lagungarri da oso gure biziera sustatu, anaiak eraberritu eta elkartzeko.

- 2 Ministro jeneralak, bere karguaren iraunaldian, ikus bitza anaiak oro berez edo besteren bidez, batez ere, definidore jeneralen bidez.
 - 3 Gainerako nagusi buruek egingo diete ikustaldia beren herrialdeko anaiarte guztiei bi aldiz gutxienez hirurtekoan.
 - 4 Probintziorde ta Kustodiei, beren probintzial-orde ta misionagusien ikustaldiaz gainera, ikustea egingo die ministro probintzialak hiru urtero.
 - 5 Ministro jeneralak, gainera, aukera duelarik, ikus bitza herrialdeetako anaiak eta esku har beza noizean behin nagusi buruek dituzten Konferentzien bilereetan.
 - 6 Orobat, beste nagusi buruek, anaiei eta beren ekintzei laguntza emateko arduratsu izanik, onar bezate gogo onez edozein aukera anaiekin biltzeko.
- 162.1 Bisitatzaileek hitz egin bezate anaiekin zinez, bakarka eta guztiekin, berariz bildurik, bizibidea, espiritual eta materialki, gorde ta garatzeko dituzten arazoetat; eta bisita bitzate etxeak.
- 2 Ihardun bitez herrialde ezberdinen garai eta egoerak kontuan hartuz, anaiek ager dezaten gogo onez eta egiazki beren eritzia eta orok batera bila ditzaten biziera etengabe eraberritu eta lanak ugaltzeko bide egokiak.
- 163.1 Ikustaldia bukatu ondoren, bisitatzaile-ordeak bidal biezaio bere nagusiari txosten zehatza.
- 2 Bainan nagusi buruek eta tokikoek, bisitatzaileak mugatu garaian, jakin eraziko dizkio beren hurreneko nagusiari ikustaldi ondoren bete diren gauzak, baita ere Konstituzioek, probintzietako Kapituluek edo nagusiek agindutakoak.
 - 3 Goi-nagusiek bidal biezaio, hiru urtez behin, dagokion nagusiari, bere herrialdekoaren egoerari buruzko txostena.

II-gn Atala: Anaien maitetzko obedientzia

- 164.1 Aitaren nahiari bere bizitza guztian esaneko izan zen Jesus Jaunaren urratsei jarraituz, profesa duten obedientziaren bidez anaiek Jainkoari eskaintzen diote borondatea bere buruen opari, bat egiten dira etengabe Jainko guztiz maitatuaren salbazio

- borondatearekin, eta Elizaren zerbitzuari lotzen dira.
- 2 Obedientziaren bidez, gainera, anaiartearekin batera hobeki ezagun dute Jainkoaren nahia eta anai-batasun bera sendotzen dute.
 - 3 Ebanjelioko aholkuak atsegin ez hitzeman zituzten gogo berak eraginik, bitez nagusien esaneko fedez, bai ere Jainko borondateari maitasunez eta menpetasun eraginkor eta zentzudunez.
 - 4 Etsita beude berenez, Jainkoari egindako nahiaren opariak ezin hobeki laguntzen diola norbere hobekuntzari eta Jainko Erreinuaren testigutza gertatzen dela gizakien aurrean.
- 165.1** Sineste-espirituz obeditzeko prest daudelarik batera, anaiek adierazi biezaizkiete nagusiei guztien onerako dituzten eritzi eta egitasmoak, baina nagusiei dagokie azkenean egin behar dena erabaki eta antolatzea, guztia anaiekin gogoz arakatu ondoren.
- 2 Anaia batek asmo sendoz eta aukeran egiten duena ere zinezko obedientzia da, nagusien nahiakin bat datorrela ta elkartasunaren aurka ez doala jakin ezkeror.
 - 3 Eta anaia batek, anaikiro hitzegin ondoren, ministroak agindu diona baino gauza hobe ta egokiagoak badirela ikus badeza, uka beza bere burua gogoz Jainkoaren aurrean; eta saia bedi agintzen zaiona betetzen. Hau bait da egiatzko eta maitezko obedientzia, Jainkoari eta lagun hurkoari atsegin amaten diena.
- 166.1** Beren arrazoinagatik edo hor-hemengo gora-beherak direla-ta, Erregla espiritualki bete ezin duten anaiek jo bezate, ta jo behar ere dute, ministroengana, uste onez, aholku, adore ta laguntza eske.
- 2 Ministroak har bitza eta lagundu maitez eta arretaz.
- 167.1** Zinez eta zintzo jokatur, izan dezagun guztiok, ministroek eta anaioek, anaitasun sakona elkar zerbitzatur eta obeditur.
- 2 Elkar har dezagun ontzat halako moduz, non aurrean ez dugun anaiaz inoiz ere ez dugu esango, bere aurrean karitatez esango ez genukena.
 - 3 Horrela arituz, Jainkoari sagaratua izan behar duen mundu honetan, zeruetako Erreinuaren nagusi den maitatze bete-betearen ezaupide izango gara.
 - 4 Noizbait ebanjelio bizieraren testigutza ematearren beharraldiak,

erasoak eta atsekabeak jasan beharra badatorkigu, itxaron dezagun uste osoz guztiz maitatua den Jaunagan.

- 5 Jaunaren Espirituaren eragite santuak bultza ta lagundurik, behartsu eta bake-egile antzo, abia gaitezen beldur gabe eginkizun handietan, bada Jainkoak koroatuko gaitu azken arte irauten badugu.

HAMAİKAGARREN ATALBURUA

GURE KASTITATEZKO BIZIERA SAGARATUA

- 168.1** Ebanjelioko aholkuetatik Jainkoaren dohain goresgarrienetakoa kastitatea da, Espiritu Santuaren eraginez Jesukristo eta bere Erreinuagatik gogoz onartzen dena.
- 2 Gure kastitatezko bizieraren arrazoina Jainkoaganako eta gizakienganako maitetasun mina da: izan ere, berak sortzen du gugan bihotz askatasun zabalagoa eta elkartzen gaitu Jainkoarekin zatitu gabeko maitasunaz eta egiten gaitu oro oroentzat.
- 3 Dohain hau zintzoki gorde ta etengabe landuz, gure anaiartea, Eliza bere senar bakarrakin baturik duen misterioaren ezaupide bikain bihurtzen da. Orok uler ezin duten ezkongabetasun karisma, Jainko Erreinuagatik egiten den hautamena da, guregan dugun Erreinu horren profetiko iragarpena eta geroko bizitzaren testigutza; bizitza horretan, biztuak anaia elkartuak izango bait dira Jaunaren aurrean; orduan Jainkoa oro oroentzat izango delarik.
- 169.1** San Frantziskoren bereizgarri nabarmenetakoa bere nahikari edo afectoen aberastasuna da eta beroiek agertzeko erraztasuna.
- 2 Frantzisko, maiteminduta zegoelarik Jainko, gizaki eta bai ere izaki guztiekin, oroen anaia ta adiskide da.
- 3 Guztiz gizalegezko eta leial, on eta eder oroengana sentikor, Frantziskok, bihotz-berritzaile den penitentziaren kantari alai nahi ditu bere anaiak, bake ta orokor anaitasunean, kosmikoan barne, murgildurik.
- 170.1** Jainko Errainuarako bidetik oraino goazelarik, kastitateak berekin darama guk ontzat eman eta jaso behar dugun gabezia bat. Naturaz-goiko eta naturazko ahalez arduraz baliaturik, oreka errazagoa da, eta onez ateratzen du anaia ezkongabea gehienbat dituen arriskuetaatik, adibidez, bizitzaren alferkeriatik, bihotzaren bakar-minetik, errazkeriatik, egintza debekatuetaatik edo maitasunari lioken ahuleriazko nardatik.

- 2 Jainkoari eskaini zaion kastitatea goi-dohaina da, eta sakramentuen bidez azkartu, bizkortu eta azitzen dena, batipat Eukaristia ta aitortzarekin, etengabe otoitzean arituz eta Kristo ta bere Ama Birjinakin barneki elkaturik.
 - 3 Geure indarretaz arrotu gabe, eta goiko laguntzan uste osoa jarririk, saia gaitezen holako dohaini oparo erantzuten.
- 171.1** Garapen maitakor eta sexualak, bere ibilbidea beti jarraikor eginez, gure buruzalekerizko maitatzea oparizko maitasun bihurtzen du, eta maitasun hau oparigai besteen alde.
- 2 Gogora bezate anaiek, batipat nagusiek, familibizitzan eta anai-zerbitzuan nabari den elkar maitasuna dela kastidadearen berebiziko babesa.
 - 3 Zinezko anaidiak, besteen alde gozo eta zabal denak, erraztatzen dio norberari berezko maitasun-garapena. Anai-bizitzako harremanak, alde batetik, norbere maitakeriari uko egitea eskatzen du, eta bestetik, eskaintza bat; hortik sortzen dira adiskidetasun jator eta sakonak, maite-bizitzaren beterako garrantzizkoak.
 - 4 Zentzuen eta bihotz jabetasunaz beste, ekin diezaiogun lan arretatsuari, bizi apal eta latza eginez, eta balia gaitezen arima eta gorputzeko osasunaren aldeko beste zereginetaz.
- 172.1** Anaiek maita bitzate giz-emakume guztiak Kristogan eta, lagunkoi eta anai-harremanen bidez, bultza bitzate Jainko Erreinuan parte hartzera.
- 2 Frantzisko anaiek Klara arrebarenganako zuen gisako maitasunaren antzera, emakumeenganako gure jarrera bedi gizatzu, begirunetsu eta zuzen.
 - 3 Adiskidetasuna, dohain bikaina da eta giza nahiz espiritual garapenari eragiten dio. Gure eskaintza dela-ta eta harremanak ditugunen bokazioari zor diogun begirunez, ez ditugu gurekin lotu behar gehiegi; baizik-eta, em aizkiegun guk gure buruak. Honela, sortzen da adiskidetasun askatzaile bat, ez anaitasun hondatzaile bat.
 - 4 Anaiek beren familiakin dituzten harremanak laguntzen dute maitasun garatzea; hala ere, gogora dezagun anaidia dela gure familia berria.
- 173.1** Gogora ditzagun sarritan san Frantziskoren harako hitzak: kezka

oro hutz arazi eta, bihotz hutsez, gorputz garbiz eta egintza santuz, Jainko Jauna maitatzera eta bera sorkari guztietan gurtzera anaiak bultzatzeko erabiltzen dituen hitzak.

- 2 Ezerk ez beza eragotzi Jainko Espirituaren lana ta agerpena gugan eta gure anaiartean arriskatu ditzakeenik.

HAMABIGARREN ATALBURUA
FEDE ZABALTZE ETA BIZITZEAZ

I-go Atala: Ordenaren misiolari mandatua

- 174.1** Jainkoaren Ebanjelio eta Ebanjelioaren ohiulari goreneko eta lehen den Jesukristok eman zizkien bere ikasle guztiei eta beraiengan fede elkarte den Elizari berri ona zabaltzeko grazia eta agindua.
- 2 Bataitu guztiak eta batipat erlijiosoak, beren eskaintza bereziagatik, Eliza erromesakin elkartzen dira; Eliza bait da salbazio sakramentu orokorra, Kristoren eta Espiritu Santuaren aginduz eta, beraz, berezko misiolari.
 - 3 San Frantziskok, goiargiturik, berritu zuen bere garaian misio-espiritua, bai bere bizimoldez bai Erreglaren eraginez, eta Elizaren misio-ekintzak indartu zituen; ekintza horien bidez aldarrikatzen da Ebanjelioa eta datorren Jainko Erreinua, gizakia bera aldatu eta mundu berri bat, zuzena eta bakez bete sortzen duen Erreinua. Honela, Eliza egunoro zabaltzen da eta elkarte beteago bilakatzen.
 - 4 Gure Ordenak bere egitekotzat hartzen du Eliza osoaren ebanjelizatze egin beharra, eta bere apostolu-eginkizun nagusien artean begiratu eta misio-arazoa bere gain hartzen du.
 - 5 Misiolari dira edozein herrialde edo herrian salbazio-mezu alaiak kristau ez direnei aditzera ematen dietenak.
 - 6 Bainan, ontzat hartzen dugu eliza berrien zerbitzuan misio-lanean ari diren anaien goera berezia.
- 175.1** San Frantziskok aurrez ikusi zuenez, misiolariak ari daitezke, kristau ez direnen artean, bi gisaz: Jainkoagatik gizaki oroen menpeko eginik, ebanjelio bizieraren maitasun-testigutza emanez, baita ere Jainkoari atsegin zaiola baderitzate, salbamen-hitza argi ta garbi zabalduz fedegabekoei, bataiatu eta kristau egin daitezten.
- 2 Tokiko Elizek ebanjelizatze egintzan zati behinena jaso dutela

jakinik, entzun diezaiete anaiek gogo onez Eliza berriaren seme-alabei eta elkarrizketatu bitez beroiekin. Honela ondo ageri da tokiko Elizak eta beren artzainak zerbitzatzera joan direla.

- 3 Ihardun bezate karitatez eta Jainko-semeen askatasunez, profetiko espirituak eraginik, istoriko, erlijioso, gizartezko eta kultural egoeretz eritzi ematerakoan Ebanjelioaren argitan.
 - 4 Era berean, beste kristau Elizekin eta kristau ez diren erlijioetakoekin elkar-hizketaren bidez, susta bitzate mundu berri bat sortzeko behar diren aldaketak eta izan bitez sentiberak herrien pentsamolde eta jokabidean eragina duten ideiekin.
- 176.1 Jainkoaren goi-argiz, ebanjelizazio lana premiazkoago den herrialdeetara joateko deia duten anaiek ager diezaiote ministro probintzialari beren gogo: honek, ordea, deitu ditzake apostolulan horretarako aukerako eta prest dauden beste anaiak.
- 2 Ministro probintzial berak, anaia horiei misio eta ekumeniko gaietaz irakaspen eta lanerako heziera berezia har erazi ondoren, heuren gaitasunaren arabera, aurkeztu bitza ministro jeneralari; honi bait dagokio obediencia ematea.
 - 3 Ministroek ez bitzate utz bidal gabe gai diren anaiak, probintzian fraide-urri dela-ta; aitzitik, ezarri bezate osorik pentsamentua ta kezka gutaz etengabe ardura duenarengan.
 - 4 Ordenako probintzia guztiek, beharrezko izanik, lagun diezaiote elkarri, beharrean dauden beste misio-lekuei, misiolariak eta laguntza esku zabal eskainiaz, ministro jeneralaren bitartez.
 - 5 Dei egingo diete anaiei misio-lanean esku har dezaten, aldi bateko ere, batipat zenbait zerbitzu berezietan.
 - 6 Anaiek ariko dira, lanean eta aholku emanez, laiko misiolariekin, batez ere, katekistekin, eta guztiek batera areagotu bezate arretaz bizimodu espirituala, eta sustatu ere bai herriaren gizarte ta ekonomiko aurrerapena.
 - 7 Nagusiek bizitu bitzate anaien artean misioen aldeko maitasuna ta lankidetasuna, horrela, beren gaitasuna eta ahalak kontuan hartuz, misiolariekin beti anai-harremanetan, bete dezaten misio-obligazioa, otoitz eginez eliza berrien alde ta kristau herrian ere zeregin honen alde kezka sortuz.

177.1 Erlijiosoen bizibidea Elizaren bizitza ta santutasunarena delarik,

eta horregatik hasiera-hasieratik arretaz sustatu behar denez gero, anaia misiolariak saia bitez arduraz gure espiritua ta karisma tokiko elizetan bizierazten.

- 2 Horregatik, nagusi buruek ahaleginduko dira misiolarien artean aukerako anaiak jartzen, gure Ordenarako erlijioso-gaiei heziera emateko.
 - 3 Eliza katolikoaren erritu guztien hartzaile da gure Ordena; bere biziera ta espiritual ondarea erakutsi eta erabiliko dira herrialdearen egoera, herri bakoitzaren aiurri eta tokiko Eliz-izakeraren arabera; eta ez bitez har erazi herrialde horietan norbere herriko ohiturak. Ministro jeneralari dagokio, definitorioren adostasunaz, eta zuzenbidea gordez, herrialde bakoitzean errituari buruz erabakitzea.
- 178.1** Ministro jeneralari, definitorioren adostasunaz, dagokio, elizagintariekin batera, tokiko Elizetako misio-ekintza eragin eta antolatzea.
- 2 Ministro probintzialari bere definitorioren baietaz dagokio ministro jeneralak proposatzen dion misio-lana onartzea, bai ere bertako eliz-nagusiekin hitzarmenak izenpetzea, ministro jeneral eta bere definitorioren oneritiz.
 - 3 Ministro jeneralak eta probintzialek, beren definitorioen adostasunaz eratu bitzate misio-bizitasun eta lankidetasun aldeko idazkaritzak, hauen egitekoa zehaztatuz.
 - 4 Anaiek lankide izan bitez etengabe lurralde berean tokiko Elizen misio-lanean ari diren Instituto erlijiosoekin edo norbere aberrian misio-arietan lan egiten dutenekin.
 - 5 Misio-ekintzaren burutapena tokiko Eliza eraikitzea da; bertan apaizek, erlijiosoek eta laikoek izango dira erantzule, bakoitzak duen gaitasunaren arabera.
- 179.1** Jesukristok bere ikasleak bidal zituen antzera, gogora dezagun san Frantziskok ere bidal nahi izan zituela bere anaiak pobrezian eta Jainko Aitagan uste osoa ezarriz, nonnahi bakea hotsegitera beren bizieraz eta hitzaren bidez.
- 2 Eginbehar hau Artzain Onaren Ama Andre Mariaren babesean ipintzen dugu; berak, jende guztien argi ta salbamen dugun Kristo sortu bait zuen, eta bera izan zen aitzindari, otoitz eginez, ebanjelizatzearen hasieran, Espiritu Santuaren eraginpean Pentekoste goizean.

II-gn Atala: Anaien sinesmen-bizitza

- 180.1 Jaunaren egiazko ikasle ta san Frantziskoren seme garenez gero, gorde dezagun zintzoki azkeneraino, graziaren laguntzaz, Jainkoak Elizaren bitartez eman zigun sinesmena; sar gaitezen honetan indar guztiz eta senaz, eta egokitu osoro gure bizierari.
 - 2 Eska diezaiogun Jainkoari etengabe neurritz-gaineko dohain honen gehitzea, eta bizi gaitezen sakon elkaturik Jainko herriarekin.
 - 3 Espiritu Santuaren gidaritzapean, ager dezagun nonnahi Kristoren testigantza, eta eske letorkenari eman aditzera betiko bizitzan dugun itxaropidea.

- 181.1 San Frantziskok ahalegin guztiz bizi nahi izan zuen Eliz-irakaspenari loturik, hau bait da Jainko Hitzaren eta ebanjelio bizieraren zaintzaile, idazteunez eta tradizioz emana.
 - 2 Espiritual ondare hau osorik gordetzearren, diezaiogun lege handia Eliza Ama santuari.
 - 3 Beraz, gaitezen guztiz Elizaren eritziko pentsakeran, hitzetan eta egintzetan, gezurrezko eta galgarri erakaspenak alde bat utziz.
 - 4 Erantzukizun bizi eta jakitun batek eraginik, eskain diezaiogun Aita Santuari nahimen eta adimen obedientzia erlijiosoa, bera bait da Eliza katolikoaren Irakasle gorena; orobat Aita Santuarekin batera Jainko herriari, sinesmen testigu antzo, irakasten dioten gotzainei.
 - 5 Nagusiek, karguen hasieran, baita beste anaiek, zuzenbidearen arabera, egin bezate fede-aitormena.

- 182.1 Bokazioari erantzunez, bere salbamen ekintzan partaide izatea Jaungoikoak beraren bidez egunoro eskatzen digunez gero, gogora dezagun zein neurritan Kristori hitz emanda gauden Jainko herriaren aurrean, gure profesa dela-ta.
 - 2 Lehia gaitezen, beraz, gisaz jokatzan eta gero ta zintzoago izaten egin zaigun deiarekin, gogoratuz Jainkoak ez dituela dohainak alferrik ematen, ezta ere, beraz, demaigun bokazioa. Bere graziak ez digu huts egingo bizitzara garamatzan bide estu honetako zailtasunak gainditzeko.
 - 3 Gure eraberritzeari arretaz ekinez, iraun dezagun pozik geure bizimoldean; eta dugun giza ahuleriaz jakitun, jo dezagun bihotz-

berritze bidetik, Espiritu Santuaren eraginez etengabe eraberritzen den Eliza osoarekin.

- 183.1** Gure profesia dela-ta, bete behar dugu xaloki eta espiritu katolikoz Honorio Aita Santuak onartu zuen san Frantziskoren Erregla.
- 2 Aulki Santuak beretzat gorderik dauka Erreglaren legezko azalpena; berak adierazten du indargabe gelditzen direla aginte indarrari buruz bakarrik lenagoko Aita Santuen Erreglari buruzko argitasunak, zutik daudelarik zuzenbide arruntan eta Konstituzio hoetan daudenak.
 - 3 Aulki Santuak, gainera, onerizten die Kapitulu orokorrei garaien zirkunstantzia berriei Erregla egokitzeko ahalmena; egokitze horiek lege-indarra dute Aulki Santuak baiespena ematekotan.
- 184.1** Konstituzioen interpretazio jatorra Aulki Santuaren eskuetan dago. Kapitulu jeneralari dagokio, batzarkideen bi herenen oneritziz, Konstituzioak osotzea, aldatzea, indargabetzea edo kentzea, garaien eskakizuen arabera, berritze egoki baten eta halako jarraipenaren bila; hala ere, behar da Aulki Santuaren onespena.
- 2 Bainan Kapitulutik kanpo, ministro jeneralari definitorioren adostasunaz dagokio gure zuzenbide propioan agertzen diren zalantzak azaltzea eta huts-uneak betetzea; hala ere, hurrengo Kapitulu arte bakarrik balio dute erabaki horiek.
 - 3 Nagusiek, kasu berezietan, dispensa ditzakete bere menpekoak eta arrotzak Konstituzioen araubidezko legeetatik, anaia horien espiritual onerako dela uste dutenean.
 - 4 Ministro jeneralak dispensa dezake aldi baterako probintzia guztian; goi-nagusiak bere tokiko anaiarte osoan.
 - 5 Konstituzioen agindua probintzia eta herrialdeen egoerei egokitu dadin, Kapitulu probintzialak edo nagusi buruen Konferentziek ezarri ditzakete estatutu bereziak, ministro jeneralak definitorioren adostasunaz onetsi beharko dituenak.
 - 6 Erlijosoen, etxeen nahiz Ordenako zirkunskripzioen arteko auzibidezko arazo guztiak erabakitzen dira gure "Modus procedendi"-ren arebera.
- 185.1** Eliz-zuzenbide arruntak, Erreglak eta Konstituzioek zuzentzen dute gure Ordena. Konstituzioen testu honek bakarrik dauka lege-indarra Ordena osoan.

- 2 Kasu berezi guztietarako lege ta arauak eman ezin daitezkeenez gero, ditzagun gogoan, gure egintza denetan, Ebanjelio santua, Jainkoari hitzeman diogun Erregla, tradizio jatorrak eta santuen exenpluak.
- 3 Nagusiak izan bitez aurrenekoak gure anaiarte bizieran eta bultza bitzate anaiak maitasun-adorez Konstituzioak bete ta gordetzera.

BUKAERA

- 186.1 San Frantziskok, hil hurren zegoelarik, eman zien Hirutasun txit santuaren bedeinkapena eta berea, Erregla zinez beteko zutenei. Beraz, saia gaitezen guztiok, nagikeriarik gabe eta gartsuki Erregla berean eta gure Ordenan irakasten zaigun perfektasun ebanjelikoa erdiesten.
- 2 Gogora dezagun, anaia maite-maiteok, san Frantziskok anaien Kapituluaren erabili zuen mintza-gaia: Gauza handiak agindu dizkiogu Jainkoari, baina handiagoak dira Jainkoak agindu dizkigunak. Lehia gaitezen, bada, Konstituzio hauek eta hitzeman dugun guztia gordetzen, eta irrika sutsuz bila dezagun, Jainkoaren eta gure Ama Mariaren bitartez, agindu zaigun saria.
- 3 Gauza hoek gordez, begira diezaiogun gure Erosleari, eta bere nahiaren jakitun, saia gaitezen maitasun hutsez bere atsegin izaten. Konstituzioak betetzeak lagunduko digu, ez agindu dugun Erregla bakarrik gordetzen, baita ere Jainko-legea eta Ebanjelioko aholkuak. Lanetan ugarria izango da Jesukristogan gure poza eta oro ahalgarri izango zaigu indartzen gaituen Harengan, bada orotan jakintza emango digu Jainko-Jakinduria denak, guztiei oparo ematen dienak.
- 4 Are gehiago, jendeen argi eta itxaropen, legearen helburu, Jainkoaren salbamen, datorren munduko Aita, Hitz eta oro finkatzen duen indar, eta azkenik, gure itxaropide den Kristok, beragan oro egingarri, jasangarri eta leun delarik, eta gure ahulariaren jakitun, berak ez digu agindu eta aholkuak betetzeko indarrak soilik emango, baizik-eta zerutar dohainez aberastuko gaitu oparo,

oztopo guzti garaituz, bihotz-poz beroz berari jarrai eta bere antzeko izatea lor ahal dezagun, lurreko gauzak atzerritar antzo erabiliz eta betirakoak irrikatuz.

- 5 Kristogan, Jainko eta gizon, egiazko argi eta aintzaren distira, betiko argiaren dirdira ta ispilu garbia, Jainko-ontasunaren irudi, Aitak epaile, legegile ta salbatzaile hautatua, berari buruz Aitak eta Espiritu Santuak testigutza eman zutena, harekin gure merezimendu, bizierakuspenak, laguntza ta sariak dituen, guretzat Jainkoak jakinduria ta zuzentasuna egin zuen Kristogan ipini ditzagun gure gogo, gogoeta eta jarraipena.
- 6 Azkenik, Aitarekin eta Espiritu Santuarekin bizi eta errege denari, betikokide, izate bereko, Jainko bat bakarra eta berdin den Kristori betidaniko gorespen, ospe ta aintza gizaldi eta gizaldietan. Halaxe.



AURKIBIDEA

San Frantzisko Aita Serafikoaren Erregla ta Testamentua	5-17
San Frantziskoren Erregla	7
San Frantziskoren Testamentua	15
San Frantziskoren aholkua	18
Nola egin profesa	18
KAPUTXINO ANAIA TXIKIEN KONSTITUZIOAK	19-111
Dekretua	21
Aintzin solas	23
I Atalburua: LEHENBIZIKO ANAIA TXIKIEN BIZIERA	25-30
I Atala: Gure biziera Ebanjelioaren arabera	25
II Atala: Gure Eliz-biziera	28
II Atalburua: GURE BISIERAKO DEIAZ, HARRERAZ ETA ANAIEN HEZIERAZ	31-45
I Atala: Gure bizierarako deiaz	31
II Atala: Gure bizieran harrera	32
III Atala: Hezieraz, oro har	35
IV Atala: Hasiera gure bizieran	36
V Atala: Gure erlijioso biziera	39
VI Atala: Heziera berezia	42
VII Atala: Heziera iraunkorra	44
III Atalburua: ANAIEN OTOITZ-BIZIERA	46-52
IV Atalburua: GURE POBRETASUN BIZIERA	53-59
I Atala: Gure pobretasun eredua	53
II Atala: Ondasun eta diru-pobretasuna	54
III Atala: Pobretasuna gure etxeetan	57
IV Atala: Ondasunen administrazioa	57

V Atalburua:	GURE LAN-MOLDEA	60-62
VI Atalburua:	GURE ANAIARTEKO BIZIERA	63-71
	I Atala: Anai biziera sustatzeaz	63
	II Atala: Anaien biziera munduan	69
VII Atalburua:	ANAIEN PENITENTZI BIZIERA	72-75
VIII Atalburua:	ORDENAREN EDO ANAIARTEAREN GOBERNUA	76-91
	I Atala: Ordenaren antolamendua	76
	II Atala: Nagusiak eta karguak oro har	78
	III Atala: Ordenaren antolamendu orokorra	79
	IV Atala: Probintzi-antolamendua	82
	V Atala: Probintzia-ordearen antolamendua	86
	VI Atala: Kustodien antolamendua	88
	VII Atala: Tokiko antolamendua	90
IX Atalburua:	ANAIEN APOSTOLU-BIZIERA	92-96
X Atalburua:	GURE OBEDIENTZI-BIZIERA	97-101
	I Atala: Ministroen pastoral-zerbitzua	97
	II Atala: Anaien maitezko obediencia	99
XI Atalburua:	GURE KASTITATEZKO BIZIERA SAGARATUA	102-104
XII Atalburua:	FEDE ZABALTZE ETA BIZITZEAZ	105-110
	I Atala: Ordenaren misiolari mandatua	105
	II Atala: Anaien sinesmen-bizitza	108
BUKAERA	110





